TXEMA GARCIA-VIANA

Sei lore

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2001 Txema Garcia-Viana
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2001eko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

ARFARAH

Arfarah: *Hirurogei zentimetrotik metro bat bitarteko landarea. Zurtoin zurrun eta inoizka oinarri aldean adarkatua. Hosto distiratsu, aldakor eta koskadunak. Lau petalodun loreak, hamar bat zentimetroko diametrokoak, kolore aldakorrak izaten dituzte, orokorki xuri edo lilak. Zenbaitetan orban zuri gorriak ere ageri ohi zaizkio. Txiza idorgarri eta, bere hazi freskoen tintura trinkoaz, adatseko nahiz pubiseko bizkarroiak akabatzeko ukendu bortitza lor daiteke.*

–1–

Euria gogor ari zuen kalean. Gustuko nuen euria ikustea nire bulegoko epeletik, lasaitu egiten ninduen. Nire aurpegia ikusi nuen kristalean islaturik. Sekula baino zaharrago ematen nuen. Atzera aulkian eseri nintzen, sitsak jotako mahai luzearen aurrean; hantxe amildu nintzen.

Zaila egiten zitzaidan nire barneko ezinegonari arrazoi sinesgarririk aurkitzea. Banekien jakin aspaldi goiz-zahartzen hasia nintzela; baina horrek ez ninduen inoiz biziki kezkatu. Bestalde, ohi bezala, osasuna eta lana elkarren paretik zebilzkidan: zein baino zein patalago. Agian adin kontua izango zen, besterik gabe.

Deblauki dei batek atera ninduen nire pentsamenduetatik.

Emakume gazte baten ahots xuxurlaria eztiki irristatzen zitzaidan belarritik barrena. Zinez eskertzekoa gertatu zitzaidan makaltze une hartan prexixo deitu izana. Irribarre lerdoa marraztuta neukan eta, istant batez, bueltatu eta nire mozolo aurpegia kristalean islaturik ikustea bururatu

ere egin zitzaidan. Hitzordua Zabalburu plazako modako kafetegi batean egin genuen, bazkalostean. Aferaren zehaztasunik apenas eman zidan. Lan baterako nire laguntza behar zuela baino ez.

Kalera irten eta ibili egin nintzen. Noraezean nenbilen, euri xehe eta temosoari nire gainera erortzen utziz. Bazkalorduan, San Francisco kaleko hanburgesategi estu bezain zikin batean sartu nintzelarik, mutu geratu nintzen era gogaikarriaz txiklea murtxikatzen zuen neska zerbitzari ttikiaren aurrean. Baso bat whisky hartuta, leihoaren ondoan eseri nintzen. Barruan trabesti batek probokagarriki kulunkatzen zuen atzealdea sorbaldatik behera alfonbra pilo bana zuten bi magrebiarren aurrean. Deitu zidan emakume misteriotsu hura hamaika itxura desberdinez irudikatzen nuen, tragoxka bakoitzeko bat kasik. Sabelean aspaldi sentitu gabeko ziztada gozoa nabaritzen nuen. Leihoaz bestaldean euria areagotu egin zen; barruan, berriz, magrebiarretako batek eskua izterretik gora irristatu zion trabestiari, ipurdiaren parera jartzeraino. Besteak txalo egiten zuen hortz lizun belztuak erakutsiz.

Ordu laurden bat lehenago iritsi nintzen hitzordu lekura. Kafetegi dotorea zen. Exekutibo itxurako trajedun franko zeuden han eta hemen, maletina aldean zutela, irribarre xuri, xuriegia erakutsiz. Paretetan Guggenheim museoaren hainbat ikuspegi erakusten zuten argazkiak zeuden. Bigarren whiskya esku artean nuela bihotzerre zorrotza sentitu nuen. Holako kasuetarako erabiltzen nituen pilulak bilatuz poltsikoak miatu nituen alferrik; izan ere, gehiegi edaten nuen baraurik.

–2–

Neska sartu zenean ez nuen dudarik egin bera zenik. Neurriz ttikia eta lerdena, begi ernea eta irribarre zabal atsegina. Ilea atzeraka bilduta zeukan motots batean, doi bat makillatua zegoen eta soineko garestia erakusten zuen. Oro har, ondo zaindutako itxura xarmanta. Berehala ni ezagutu eta, irribarrea are gehiago luzatuz, inguratu egin zitzaidan.

– Markos Gorriti detektibea, ezta? –eskua emateko nire keinuari bi musuz erantzun zion.

– Julia Montilla nauzu eta zure laguntza behar dut.

Kafe hutsa eskatu eta, tarte batez koilaratxoaz eragin eta eragin aritu ondoren, honela mintzatu zitzaidan:

– Gure aita ikerlaria zen. Hil aurretik egundoko aurkikuntza egin zuen: medikuntza arloan ikaragarrizko garrantzia izan lezakeen formula bat. Bere kolaboratzaileen artean banatu zuen, pusketa bana emanez. Kontua zati guztiak batu eta balizko etekinak hainbana partituko direla

agintzen duen kontratua sinatzea da. Operazioa gainbegiratzeagatik ondo ordainduko dizut.

Erdi hondoraturik zetzan nire basoko izotz pusketan tinkatu nituen begiak. Hatz erakusleaz irmo kalkatu nion; zipriztin batzuk mahai gainera jausi ziren.

– Kontratu bat sinatzea? –nik, erabat sinesgaitz.

Neskak begi zorrotzez begiratu zidan, baita goitik behera begiratu ere. Ondoren, lasaitu nahian edo, arnasa sakon hartu eta baiezkoa egin zuen buruaz. Neska horren hazpegiei kemena eta indarra zerizkien borborka.

– Gure aita arkeologoa zen. Asiako bazter galdu batean ari zen lanean kasualitatez formula topatu zuenean. Gero, taldeak hainbat arazo izan zituen bertako gerrillari batzuekin eta presaka alde egin behar izan zuten. Ordurako aita hila zen...

– Itxura batera, harrigarria dirudi arkeologo batek medikuntza arloko formula kimikorik aurkitu izana, ez da hala? –altzairuzko emakume hari malko lodi bat begitik behera lerratu eta bere kikararen ertzean lehertu zen.

Tentuz ibili beharra nuen, ez bainuen bere zaurian gehiegi sakondu nahi.

– Horren inguruko berri zehatzik ez daukat. Antzinako eskuizkribu batzuk edo aurkitu omen zituen indusketa batzuetan; lehen ere esan dizut: kasualitate hutsa.

Isilune motz eta trinkoa. Zerbitzariak Memphis Slim-en kanta zahar bat ipini zuen disko-jogailuan, motots tentedun eskola-neska bati keinua luzatzeaz bat. Kanpoan, egundoko haize bolada bortitzak amorruz kristala jo eta euriaz bustitzen zuen.

– Noiz izan zenuen honen guztiaren berri? –galdetu nion trago luzea eginez.

– Pablok deitu zidan, aurreko astean. Pablo Etxebarria aspaldiko laguna dut eta gure aitaren kolaboratzailea izan da hainbat urtetan. Bera izan zen aitaren heriotzaren berri eman zidana. Bihotzekoak jota hil zen. Aspaldidanik patal samar zebilen bihotzetik baina, egoskorra izan eta ez zion kasurik egiten. Hilzorian zegoela azken nahia adierazi omen zion Pablori: formula banatu eta hemen, Bilbon bertan, bat egitekoa, alegia.

– Zergatik formula banatu?

– Ez dakit ziur zein litekeen horren arrazoia, baina ez dut dudarik batere arrazoiren bat egon behar duela. Gure aita gizon praktikoa baitzen.

Gizon zahar zarpa-zikina sartu zen kafetegian aldizkari mordo batekin. Gure ondoan jarri eta, ezpainen tenkatze behartu batez, Juliari aldizkari zopatua luzatu zion. Lurrean ur putzua osatzen zen bere azpian. Zerbitzariak, gizon sartu berriari begirik kendu gabe, beltzuria agertzen zuen; neskatila motosdunari nazka keinua marraztu zitzaion. Azkenean zigarro pare bat emanda pozik aldendu zen. Mahai gainean, blaitutako aldizkaria utzi zuen ordain gisa.

Zutik jarri nintzen. Poltsikoa arakatu eta billete bat jaurti nuen destainaz hustutako edalontziaren ondora.

– Hara andereño, uste dut deskuidu ederrean zaudela. Zuk notarioa behar duzu, ez detektibea; gainera dexente merkeago aterako zaizu. Nahi baduzu baten bat aholka niezazuke, musu truk gainera, badakizu, lagun modura...

Neskak begiradaz alderik alde zulatu ninduen. Bera ere zutitu eta, parez pare ginela, ahal

bezain lasaiki, berriz esertzera gonbidatu ninduen. Berehala ulertu zuen, antza, nire jarreraren esanahia.

– Ondo da. Dakizkidan xehetasun guztiak kontatuko dizkizut, baina ez pentsa, gero, orain arte esandakoa baino askoz gehiago izango denik.

Keinu bat botaz zigarro bat luzatu nion egoera pittin bat samurtze aldera. Atxiki luzea jo zion eta pentsakor geratu zen; bazirudien pentsamenduak ketik zintzilik zituela. Bere atzean, aldizkariak saltzen zituen lehengo arlote zaharra sesiotan hasia zen *yuppie* trazako gizon txilibitu batekin.

Emakumeak berriro ere heldu zion kontakizunari.

– Afera honen inguruko zehaztasunak kontatu behar zizkidala eta, atzo Pablo eta biok biltzekoak ginen; hala ere enkontrua ez zen burutu.

– Zergatik ez?

– Atzo goiz-goizetik deitu zidan; zinez asaldatua zirudien. Adierazi zidanez, azken egunotan norbait jarraika ari zitzaiola sumatu zuen. Hasieran, bere irudipenak izango zirela pentsatu zuen,

baina herenegun gauean, etxera iritsi zenean, susmoak egiaztatu egin ziren: etxe guztia hankaz gora jarri omen zioten. Honenbestez eta kontua argitu arte hitzordua atzeratu egin genuen.

– Ongi da, orain ulertzen dut neuri deitu izana...

– Zainak ematen dit badagoela zerbait honetan guztian... ez dakit nola azaldu, zerbait zikina, kirasduna –mintzatzeko moduagatik barrena husten ari zela zirudien: nire eskua irmoki heldu-ta zeukan eta hitzok grinatsu ebakitzen zituen.

Metro batzuk aurrerago, gizon zarpailtsuaren eta exekutiboaren arteko zalaparta areagotu egiten zen. Zaharra, trajedun gizontxoaren gorbatari heldu, eta indar harrigarriaz astintzen ari zen. Zerbitzaria jauzi batez barraz bestaldera pasatu eta iskanbilan zeudenen aldera bizkor inguratu zen.

– Noiz elkartuko zarete? –galde egin nion inguruko zalapartaz batere axola gabe.

– Printzipioz etzirako jarri dugu hitzordua, mendian dudan etxean. Leku lasai eta zabala da, egokia nire ustez. Indusketako lan talde osoari

telegrama bana bidali zaie, ordua eta lekua zehaztuz. Nork bere lorea eramango du.

– Lorea?

– Bai, zera... zorioneko formula sei loreren bat egiteaz lortzen da. Hala ere, lore bakoitzak konplexutasun handiko elaborazioa behar du eraginkorra izateko. Nolabait esatearren, formula beste sei formularen bitartez lortzen da. Bat bakarra faltako balitz ezin gauzatuko litzateke...

Gizon txiroaren orro lazgarriek atera ninduten pentsuetatik; gizagaixoa gogotik astintzen ari ziren. Juliak erreguzko begirada bota zidan eta nik baiezkoa egin nion buruaz.

Hurbildu nintzenean ikuskizuna garratza zen. Kamareroak irmoki heltzen zion eskaleari atzetik, yuppie maskalak eta loredun gorbata nabarmena zuen boxeolari itxurako gizakote batek, elkar hartuta, gogara jipoitzen zuten bitartean. Neska gazteak, barraren gainean igota, *jo eta behingoz txikitzeko* eskatzen zuen ukabila astinduz; bitsetan zegoen guztiz. Tartean sartu nintzen agurea bakean uzteko aginduz. Banekien, haatik, ez zidatela jaramonik egingo.

Gizontxoaren ukabilkada erraz saihestu eta burukada gogor batez erantzun nion. Konorterik gabe jausi zen lurrera, sudurretatik odola borborka zeriola. Kamareroak eskalea askatu eta hau, patata zaku baten gisara, amildu zen. Ni kamareroaren eta gizontzarraren tartean nengoen, neskatila gaztea bere onetik irtenda zegoen eta barran zer ikusi hura botatzen zidan amorruz. Julia zutik zegoen, goibel eta xarmant, Jainkosa baten pare. Ukalondoaz kamareroari sabelean jo, gizon handitzarraren ukabilkadari itzuri eta erantzuteko prestatu nintzen. Hala ere, airetik etorri zen hautsontzi batek buruan kolpatu, eta istant llabur-llabur batez gerarazi egin ninduen. Nahikoa izan zen, ordea, gizontzarraren ukabilkada bete-betean irensteko. *Miura* bat buruaz oldartu izan balitzait bezala sentitu nintzen. Atzeraka erori nintzen. Kamareroak ostikoz jo ninduen; bigarrenean alboratzea lortu nuen. Ondoren bi irudi. Bi bristada baino ez. Lehena, Julia nigana korrika zetorrela; ondorengoa, gizakote astapotro hura, pitxer handi bat eskuan zuela. Brastakoan nire burmuinak lehertzen zirela sen-

titu nuen; ondoren, gorputza astun bihurtu, ikusmena lausotu eta iluntasuna nagusitu zitzaidan.

Nire onera etorri nintzenean kalean nengoen, lurrean etzanda. Juliak zapladak jotzen zizkidan masailean eta jendea begira zegoen gure inguruan. Zutitzera egin nuen agure baldresa ikusi nuenean. Lurrean zerraldo zegoen eta odol xirripa zerion kopetatik behera. Hurreratu eta astindu batzuk eman nizkion. Berehala begiak ireki eta zigarro bat eskatu zidan, *besteak busti egin zaizkidak eta!*

–3–

Hurrengo goizean jaiki nintzenean lur jota nengoen. Bazirudien metroa pare bat aldiz nire gainetik pasa zela eta gihar ttikiena ere mugitzerakoan mina hartzen nuen. Pabloren helbide berria irakurri nuen. Berak etxeko miaketaren ondoren Juliari konfidentzialki emandakoa *zer gerta ere.* Zuhur jokatzea gustuko zuen nonbait.

Rodriguez Arias kaleko hogeita laugarreneko atikoan zegoen Pabloren helbide berria. Sartu aurretik paper ximurtu bat poltsikotik atera eta datuak egiaztatu nituen. Euriak temoso jarraitzen zuen eta jendea azkar eta lerdoki zebilen kalean zehar aterkiaren babesean.

Etxea zaharra zen eta lizun usaina itsatsia zegoen horma hitsetan. Goraino iritsi arte zenbait musika mota –antigoalekoak gehienak– eta eztabaida bizi pare bat entzun ahal izan nituen. Txirrinak ez zuen funtzionatzen eta hatz koskoez jo nuen atea. Norbait sentitu nuen atearen bestaldean zelatan.

– Markos Gorriti nauk, Juliaren laguna. Hitz egin behar diagu.

Erantzunik ez.

– Hara Pablo, bazekiat hire etxeko miaketarena eta jarraika ibili zaizkiala. Nitaz fida haiteke.

Atea poliki zabaldu zen. Pablo hormaren kontra zegoen, erdi ilunpetan. Begi mesfidatiak ageri zituen eta eskuan labana handia zeukan.

– Lasai Pablo, detektibea nauk. Juliak kontratatu naik.

Nire aurrean jarri zen, artean ere irmo heltzen zion labanatzarrari. Mesfidantzak hartuta zeukan begirada eta egin aurretik hiltzen den irribarre horietako bat erakutsi zidan. Tentsio handi baten pean zegoen guztiz.

– Beheko tabernan itxaroidak. Beharbada trago batek on egingo zidak. Jantzi eta hamar minuturen bueltan bertan izango nauk –ia entzungaitza zen ahots meheaz mintzo zen.

Ostatuak irlandar pub baten traza zuen. Egurra nonahi zegoen eta zahar ziruditen hainbat apaindurak kutsu atsegina ematen zioten. Alde batean eta bata bestearen atzean mahai luzeak zeuden, aurrez aurre bina eserlekurekin. Erdian

pasillo luzea eta beste aldean barra. Zerbitzaria beltzarana zen eta, itxuraz bederen, egokiago zirudien pizzeria baterako.

Luze gabe agertu zen Pablo. Sartu baino lehen atzera begiratu zuen, gero mahai guztiak arretaz behatu zituen. Barruan musuka elkar irentsi beharrean zegoen bikote bat baino ez zegoen, nitaz gain, jakina.

Pitxer bana zerbeza eskatu eta zigarroa luzatu nion. Nekez eusten zion eskuaren dardarari.

– Nire zeregin bakarra biharko bilera ondo irtetea duk. Juliak horretarako ordainduko zidak. Beraz loreen kontu honek bost axola niri; hala ere zenbait gauza jakin behar ditiat.

– Agian horixe duk hoberena. Kontu honen gainean zenbat eta gutxiago jakin hobe...

– Nortzuk bilduko gara bihar?

– Lehendabizi Jokin... Oftalmologoa duk. Xaharraren aspaldiko lagun mina eta erabateko gizon prestua.

– *Xaharra?*

– Gure artean hala deitzen genioan Juliaren aitari. Basamortuko hilobi zahar hartan eskuizkribua topatu zuenean, berehala antzeman

zioan aparteko garrantzia izan zezakeela medikuntzan. Honen karietara Jokini hots egin zioan. Honek egiaztatu egin zian formularen garrantzia.

Oraingoan lasaiago hitz egiten zuen. Itxura batera behintzat heziera oneko gizona zirudien eta estutzen zuen izu-laborriarengatik izan ez balitz, mutil adeitsu eta atsegina zela pentsa nezakeen.

– Ikerlari gehiago ba al zegoen?

– Xaharra eta nitaz gain Amaia ere bazegoen. Berez ez zuan ikerlaria, ikaslea baizik. Zera... bekadun neska gaztea duk, unibertsitateak edo bidalitakoa tesia egite aldera. Egiatan neska azkarra baina idealistegia. Bai, horrexek galduko dik.

– Zer esan nahi duk horrekin?

– Feminista amorratua duk. Erradikalegia nire iritziz. Uste sendoak dituena, alegia; gainera muturreraino eramaten dituen horietakoa. Nire ustez gizasemeak gorrotatu egiten gaitik.

– Beste inor?

– Steve eta Louis, jakina. Steve tipo zaildua duk. Zakar samar baina erabat eraginkorra. Kanpamentuaren antolatzeaz arduratzen duk eskuarki. Louis bere laguntzaile eta adiskidea duk,

ahul eta uzkurra. Gezurra badirudi ere, aspaldiko lagun minak dituk eta zaila egingo litzaidakek banaka irudikatzea; beti elkarrekin ibiltzen baitira. Hain desberdinak izaki harrigarria zirudik honenbesterainoko loturarik egotea bien artean. Beti eztabaidan, beti elkarrekin.

Tabernaren barruan bero ustela egiten zuen. Sabaitik behera haizegailu handi bat astun eta nagiki biratzen zen. Beste pitxer bana eskatu eta zerbitzariak desgogara atera zizkigun; gero egunkaria hartu eta gurutzegrama egiteari ekin zion. Pablok kontakizunari berrekin behar zion une berean, arnasots nabarmena egin zuen atentzioa eman nahiz. Beroaz kexu zen eta solasa nahi zuen, aspertua zegoen nonbait.

Ez entzunarena eginez geureari lotu gintzaizkion.

– Presaka alde egin behar omen zenuten...

– Aurkikuntza Afganistango eskualde gatazkatsu batean egin genian; bertan borroka latzak gertatzen dituk. Alde batetik talibanak, lurralde osoa menderatu nahian, eta bestetik tadjikak, mendietako borrokari menderaezinak. Tadjikek, nola edo hala, formularen berri izan zitean; diru

iturria zitzaielakoan edo eraso egin zigutean. Doi-doi hanka egin geniean... Xaharrari esker.

– Xaharra ez al zen lehenago hil bihotzekoak jota?

Pablok burua makurtu eta urduritasunez eskuetako hatzak bihurritu zituen. Gero, damuz hezeturiko begiak emeki jaso zituen. Une hartan oroitzapenaren orratzek garuna ziztatu eta bisaia desitxuratu zioten.

– Xaharra gu salbatzeagatik hil zen!

Zain gelditu nintzaion. Pablok zurrutada luzea jo zion zerbezari, mihiaz ezpainak milikatu, eztarria doi bat garbitu eta solasari berrekin zion.

– Egoera arrunt larria zuan. Tadjikek eraso zigutean eta gure irtenbide bakarra kanpamentuaren atzean lerratzen ziren muinoak zituan. Hala ere, haiek lurraldea ongi ezagutzen zutela eta, bagenekien luze gabe harrapatuko gintuztela. Bi jeepetan banatu gintuan arrapataka; Stevek presaka oinarrizko hornidurak hartu eta abiatzeko prestatu gintuan. Lehenengo ibilgailuan Steve, Louis eta Amaia sartu zituan; abiatu eta berehala desagertu zituan mendixketan

barna. Orduan Jokinek eta biok Xaharrari hots egin genioan alde egiteko; hala ere, Xaharraren arrastorik ez zegoan inon.

Une hartan tabernako atea zabaldu eta tipo luzexka bat sartu zen. Urrats motelez hurreratu zen barraraino eta brandya eskatu zuen. Zerbitzariak hitz-aspertu bat egin zion etorri berriari eta berriro ere beroa aipatu zuen. Gizon segail hark, ordea, entzungor egin eta gure aldera jiratu zen. Gizon dotorea ematen zuen; markako nikia eta arraia markatuegia zuten galtzak jantzita zeuzkan. Zigarroa piztu eta ke-ahokada botatzeaz bat begia kixkurtu eta arretaz begiratu zigun.

Pablo berriz ere urduritzen hasi zen. Hankak ikaran zituen eta lotsagabeki guri begira zegoen morroi flakoxkarengan atentzio jar nezan keinu egin zidan buruaz. Eskua bere eskuaren gainean paratu nuen lasaitze aldera eta jarraitzeko eskatu nion. Pablok, mesfidati, ameto egin eta isilune labur baten ondoren, ahalegin nabarmena eginez, berriz lotu zitzaion kontakizunari.

– Hilobi zaharrean aurkitu genian. Bazter batean eserita zegoan, eskuizkribu zaharren tar-

tean. Erriflea zeukaan belaunen gainean, hamar milimetroko Winchester 308a, neuri zuzendurik. Gurekin etortzeko erregutu, arren eskatu eta agindu egin nioan; ondo alferrik ordea. Jainkoek emandako eginbehar sakratua zuela esan eta bere formula atala, bere *lorea,* luzatu zidaan Juliari eman niezaion.

– Bakarrik utzi al zenuten?

Pablori gainezka egiten zion urduritasunari barruko zama astuna ere erantsi zitzaion. Burua bi eskuez heldu eta bortizki astindu zuen, oroitzapenak uxatu nahian bezala. Lur jota zirudien.

– Ez zidaan beste aukerarik utzi. Bere onetik erabat irtena zegoan; bere hazpegiak... bere hazpegiak ez zituan pertsona zentzudun batenak!

– Gure Xaharra erotu zela esan nahi al duk?

– Berak bizia salbatu ziguan. Agian egoeraren larriak aldi bateko eromena eragingo zioan; hala ere, dagoen tokian dagoela, gure esker ona baizik ezin zioagu erakutsi.

Barrako tipo etorri berriak azken begirada bota zuen. Ondoren, urrats geldoz, kalerantz irten zen.

– Eta ondoren zer gertatu zen?

– Handik laster leku hura infernu bilakatu zuan. Doi-doi denbora izan nian jeepera iritsi eta alde egiteko, Jokin nire zain zegoan. Xaharrak tadjikei aurre egin ziean. Oihu eta irain latzak botatzen zizkian: Jainkoak aukeratutakoa zela, sinesgabeak akabatzeko goi-mandatua zuela eta horrelakoak. Lehen muinoak iraganda jeepa gelditu eta prismatikoez atzera begiratu nian. Han zegoan agurea, lurrean zerraldo. Kabroi haiek txiki-txiki egin zitean!

– Zergatik ez hion Juliari egia esan?

– Ez nian adorerik izan. Nik Julia asko... estimatzen diat eta bazekiat egundoko mina hartuko zuela. Nire ustez gauza mingarri hauek ez dituk telefonoz esatekoak. Aukera dudanean egia kontatuko zioat.

–4–

Momentuz nahikoa informazio banuela eta, tabernatik atera ginen. Kalean tanta potolo batzuk bota zituen sargoria pittin bat arinduz.

Eskerrak emanez eskua luzatu nionean, gure aurretik mantso-mantso igarotzen ari zen automobil bati erreparatu nion. BMW luzexka zen, urdin metalizatua. Kristal berezia zuen, zeinaren isla berdexkaz eragozten baitzuen barrukoei ongi antzematen. Begira-begira geratu nintzen. Bat-batean, tabernara sartutako tipo hura bertan ikustea iruditu zitzaidan; bere aurpegiaren profil hezurtsua nabarmenegia zen oharkabe pasatzeko.

Ezin zen denborarik galdu. Lehendabizi jendearen tartetik Pablo bilatu nuen. Atarian sartzekotan zegoen besotik heldu nionean. Ez nion azalpenik eman, baina bera agudo asko jabetu zen egoeraren larriaz. Bere bisaje desitxuratuak halaxe erakusten baitzuen. Lasterkari eman genion, kotxea zegoen lekutik bestaldera hain justu ere. Kotxekoak, ordea, berehala ohartu ziren

gure jokaeraz eta, maniobra zalapartatsua eginez, bira egin eta gure atzetik abiatu ziren habaila handiz.

Kale estu batetik sartu eta hiribide zabal batera irten ginen. Lasaitasuna nagusi zen. Hiri-autobusa geratuta zegoen gure aurrean; txoferra kirol kazeta irakurtzen ari zen ogitarteko bati ekiten zion bitartean. Ozta-ozta izan genuen arnasa hartzeko astirik. Aurreko kale-buru batetik, sekulako abiadan, BMWa ostera ere azaldu baitzen. Frenoek irrintzi ozena egin eta bortizki jiratzerakoan, tarte batez, lerratu egin zen kotxea.

Guk, berriz ere, korrikari eman genion kotxea atzetik jarraika genuela. Geratutako autobusetik metro gutxitara beste kale bat zegoen eta bertatik sartu ginen itsumustuka. Automobila zakarki biratu zen atzealdeaz autobusaren faro eta kolpe-leungailua joz. Kale hark kotxea zihoan kontrako norabidea zuen. Atzera begiratu eta ikusi nuen automobil malapartatua aurretik zetozkion ibilgailuak nola edo hala saihestuz, bozina eta irainen artean. Txapako zartakoak ere entzun ziren. Kalea bukaeran adarkatu egiten zen. Eskuinetara beste kale zabal bat zegoen lehena

bezain luzea; ezkerretan, berriz, kale-zuloa ikus zitekeen. Obretan ari ziren bertan. Kale-zuloko sarreran hesi metaliko batzuk zeuden pasabidea galaraziz, metro doi batera zanga luze bat. Pablori keinu egin eta bertatik sartu ginen. Berehala konturatu ginen hartutako etxartea kale-itsua zela, horma sendo batek alderik alde ixten baitzuen. Zementuzko sagu-tranpa batean harrapaturik geunden!

Aurki entzun genuen kotxearen balazta hotsa. Sarrerako hesietako bat jo eta pareta baten kontra bota zuen. Pablo eta biok zaborontzi handi batzuen atzean babestu ginen; hamaika kirats nardagarri gure sudur-eztarritan erantsita geratzen zitzaizkigun. Pistola atera nuen galtzarbetik eta tiro egiteko posturan jarri nintzen. Pablo lurrean zetzan, kuzkur-kuzkur eginda, burua bi besoekin bildurik; dardara nabarmenak egiten zituen. BMWko morroiak oinez inguratzen ari ziren kale-zuloan barna. Lau ziren. Paretaren kontra lerratzen ziren tentu handiz, pistola bana eskuan zutelarik. Denetan aurrena lehengo tipo mehea zihoan. Artean bere poker irribarre lerdoa muturrean marrazturik. Aurrera

egin ahala besteen traza begiztatu ahal izan nuen. Bazegoen tipo potoloa, trajez jantzitakoa, patilla luze eta zabalak zituena. Atzeko biak beste aldeko paretara igaro ziren jauzi batez. Bata gizon ttikia zen, kirol arropa zabala janzten zuena; zapata beltz dizdizari batzuek berregarri hausten zuten *konjuntoa.* Azken erasotzaileak musu-zapia estutzen zuen masailaren kontra eta herrenka inguratzen zen. Ez zegoen zalantzarik kotxearekin hartutako zanpatekoen parterik txarrena jaso zuela.

Trantze larri hartan aukera ttikiena ere ez genuela argi eta garbi zegoen. Banekien lehen pausoa ematea garrantzizkoa izan zitekeena eta, ez bat eta ez bi, jo eta pistolaren kargadore osoa hustu nien. Morroi argala eta txandalez jantzitako ttikia lurrera bota ziren; besteak hormaren kontra geratu ziren. Zalantzarik gabe ez zuten halako erantzunik espero. Behingoagatik, izua eta urduritasuna sumatzen zitzaien beren jokabidean. Jendea hasi zen leihoetara ateratzen. Lehendabizi emakume lodi bat irten zen; zigarroa zeukan ezpain ertzean erorita eta enplastu antzeko zerbait buruaren gainean. Jarraian krista-

lezko irudi uzkurrak agertu ziren kiriketan. Ikuskizunarekin gozatzen ari ziren nonbait. Bitartean, lau tipoak posizioa hartzen ari ziren eta erantzuna berehalakoa izango zen. Kotxean zartakoa hartu zuena hormaren irtenune baten arrimuan gelditu zen; tabernako meharra bertatik bertara zuen atari zahar batean sartu zen; gizon eskasak farola baten atzean hartu zuen babeslekua; potolo patilladuna, azkenik, lau gurpilak kendu eta beste hainbat adreilu piloren gainean kili-kolo zegoen kotxe baten alboan babestu zen. Beste kargadore bat atera nuen patrikatik eta zain geratu nintzen. Pablok kikilduta segitzen zuen, negarrez oraingoan. Luze gabe tiro zaparrada hasi zen. Atzeko horma zula-zula eginda gelditu zen, kristal puska batzuk gure gainera erori eta pare bat balak zakar-ontzia alderik alde zeharkatu zuten gugandik zentimetro gutxitara paseaz. Orduan burutazio bat izan nuen, baina horretarako nahi eta nahi ez amuari kosk egin behar zioten. Poltsikotik petaka atera eta whiskya isuri nuen zakar-ontziaren barrura. Azken tantak, ordea, neronek behar eta hartu egin nituen; ezpainak bustitzeko lain besterik ez bazen. Biga-

rren erasoaldia aurki jo zuten, lehena bezain bortitza. Deblauki min sarkorra sentitu nuen izterrean: kolpatu egin ninduten. Odola borborka hasi zitzaidan. Muki-zapia irmoki estutu nuen zauriaren kontra odol jarioari eutsi nahian. Itxaron behar nuen. Agian bizpahiru minutuko kontua zitekeen. Hala ere, hirugarren oldarraldiari ere aurre egin behar izan genion nola edo hala. Gero bai. Erantzun ezaz fidaturik, lehengo zuhurtzia baztertu eta beren ezkutalekuetatik ateratzen hasi ziren, tentuz eta poliki.

Pablori prest egoteko ohartarazi nion. Berak ez zuen ondo ulertzen zer egin nahi nuen baina baiezkoa egin zidan buruaz. Lurrean eseri nintzen eta, bizkarra zabor-ontzian bermaturik, zilarrezko zippoa atera nuen patrikatik. Piztu eta une labur batez su-lamari begira geratu nintzaion. Aurki atera nintzen oroitzapenen eremutik; ez zen hura malenkoniarako garaia.

Lepotik gora bota nuen metxeroa atzeraka. Bertako whiskya sutu eta di-da batean egundoko ke-mataza mardula altxatu zen zabor-ontzitik gora. Pablori keinu egin eta bion artean bultzatu genuen plastikozko sutzarra pistolarien aurka.

Zabor-ontzia, gurpil txikien bidez lerratuz, kalezuloaren erdi-erdian trabeska trabatu zen. Gure jukutriak nahastu egin zituen, antza. Oihu latz batzuk entzun ziren, tiro-hotsak ere bai tarteka. Ondoren isiltasuna.

Argi urdin iheskor batek ke lodia nekez zehartu zuen. Gu kuzkurturik geunden kale bazter batean, muki-zapia musuan ezarririk. Pablok sarri askotan eztul egiten zuen; eztul ttikia, urduria.

Argi urdinak ugaldu egin ziren. Pablo eta biok zutik jarri eta mantso-mantso etxarteko irteerarantz abiatu ginen. Ni mainguka nenbilen, atzetik odol arrastoa uzten nuela. Poliziak bertan zeuden, zoko-miran, nahasi antzean. Erasotzaileen aztarnarik ez zen inon ageri. Autobuseko txoferra polizia-burua zitekeenarekin sutsu eta espantuka ari zen hizketan. Gure presentziaz erreparatu bezain fite poliziaren arma guztiak guregana zuzendu eta lurrera etzateko agindu ziguten. Nik detektibe kredentzialak erakutsi nizkion txakurren arduraduna zirudien hari. Hark mesfidati begiratu zidan. Automatikoa kendu eta lurrean eserarazi ninduen anbulantzia etorri arte. Petaka atera eta mingainaren gainean as-

tindu nuen bortizki. Pare bat tanta baino ez ziren jausi. Pablok «Izugarria izan da! Izugarria izan da!» esaten zuen behin eta berriz. Nik neure artean baietz, izugarria; *Whyte & Mackay* botila erdia alferrik galtzea ere!

–5–

Arratsalde astuna izan zen, gogaikarria. Lehendabizi zauriaren sendaketa; itxura batera ezer seriorik ez. Balak garbiki zeharkatu omen zuen izterra, bidean txikizio handirik egin gabe, alegia. Bolada batean herrenka eta maldizioka ibiliko nintzen makuluen laguntzarekin. Mantxola komisarioarekin izan galdeketa ez zitzaidan askoz ere xamurragoa gertatu. Erasotzaileek hanka egitea lortu zutenez arrastoen beharrean zegoen eta, jakina, Pablo eta biok ginen argitasunik eman geniezaiokeen bakarrak. Lazki jaurtitzen zituen galderak, txistukatuz bezala. Berrogeita hamartsu urte zituen eta azal zailduaren azpitik mami zakarragoa erakutsi nahi zuen. Ongi identifikatzen lortu ez nuen objektua mastekatzen zuen etengabe, hitzak ere halatsu. Lodikotea zen eta zenbaitetan, nire isilunetan batez ere, muturra gorritu eta lepoko zaina handitu egiten zitzaion. Azalpenak eman nizkion eta ez zen konforme gelditu. Aske utzi baino lehen, oso gertutik jarraituko zidala esan zuen. Oraingo

honetan aurpegian sentitu nuen txistukada egiazkoa izan zen. Ez nuen dudarik mehatxua izan zela oharpena baino gehiago. Atearen alartzea zeharkatzeaz bat «aurki elkar ikusiko diagu» bota zuen handikiro, ilaje xuri urria atzeraka laztantzen zuen bitartean, profeta batek saihestezinezko halabeharra aldarrikatzen duen etsipenaz.

Pablo kanpoan zegoen, nire zain. Ez zuen adorerik komisaldegitik bakarrik aldentzeko, antza. Mantxolaren galdeketa *gozoari* aurre egin izanak erabat hondatu zuen eta ez zekien norengan ezarri konfiantza. Pepelerdo demonio baten traza hartu nion; burua sorbaldetan sarturik eta begirada lurrean eroria. Taxi bat deitu eta Pablori bertara sartzeko keinua egin ondoren, ostatu ezagun baten helbidea eman nion gidariari. Urruntzen ari zelarik, erregu begitarte xelebrea islatu zuen kristalaren beste aldetik baina, zorigaitzez, hasi berria zen zaparradak pittin bat lausotu egin zuen, harekiko lastima sentitzea, neurri batean bederen, eragotziz. Makuluak harturik, estropezuka eta minez *mekaguenka*, astiro alde egin nuen.

–6–

Ordu laurden inguru berandutu zen Julia telefonoz jarritako hitzorduan. Irekidura ondrosoa zuen gona estua zeraman jantzita, panti beltzak zerrenda loredun bana zutenak, brusa horizta fina eta gabardina zabarra gainean. Euria parraparra botatzen ari zuen tabernan sartu zenean.

Bilera dontsuaren bezpera zen eta nik zenbait puntu argitu nahi nuen nire ordaintzailearekin.

Hizketan hasi aurretik unetxo bat hartu nuen. Arnasa sakon hartu, zintzurra doi bat whiskyaz erre eta begira geratu nintzaion, sabelpean ziztada txorrotxa sentitu eta hutsunea etetea erabaki nuen arte.

– Gaur goizean Pablok eta biok alimaleko besta jo dugu elkarrekin; *mariachi* eta guzti.

– Ezer interesgarririk galdu al dut akaso? –erantzun zuen maleziatsu.

– Ezusteko festa batean izar suertatu gara antza. Tamalez behar baino lehenago bukatu da; urdina nagusitu orduko hain justu ere. Izan ere,

batzuek serio demonio hartzen dute *Mari Erraus-kine* ipuina eta gehien dibertitzen ari ginenean, aire! Azken finean sentimental hutsak ditun! Neuk gutxienez oroigarri polita atera dut berta-tik, ez nago kexatzeko posturan, ez horratio! Iz-terreko farfaila zeuri erakusteko amorratzen na-goela sinetsi behar didazu; hala ere okasio ego-kiago baten zain egon behar dugu, badakizu, duintasun profesionala. Bizilagunari bai, hari erakutsi diot etxera iritsi bezain laster. Laurogei-ta hamar urteko andre xahar xarmangarria da. Ba al dakizu zer esan duen izterreko zuloa ikusi duenean? Tokioko egunsentia bezalakoxea zela. Tokioko egunsentia! Gajoa! Bere bizitza guztian ia behin ere Santutxutik atera gabe eta orain hasi da munduaren berri izaten. Nola eta nire iz-terraren bitartez gainera!

– Geografiaz mintzatzeko deitu al nauzu?

– Badirudi afera hau etengabe korapilatzen ari dela. Bizimodu lasaiegia ez dut atsegin eta noizean behin parranda egin behar baldin bada, aurrera. Baina zertan ari naizen eta noren lurral-dean mugitzen ari naizen jakin behar izaten dut; hori baino ez dut eskatzen. Sari polita egokitu

zaio gure lagunari, baina zergatik Pablori eta ez besteei? Agian besteei ere bai? Formularen atzetik al doaz ala beste deus gehiago ba al dugu? Galdera mordo bat badut kolkoan, gehitxo akaso. Eta zure aurrean egoten naizenetan zerbait ezkutatzen didazunaren sentipen temosoa iltzatzen zait zilborrean eta ezin uxaturik ibiltzen naiz.

– Gainontzekoei biharko hitzorduaren berri eman zitzaien, beste deus ere ez dakit. Pablok deitu ninduen eta miaketaren kontua jakinarazi zidan. Neuk zuri kontatu nizun, kitto! Non arraio dago tranpa?

Irmo eta seguru hitz egin zuen. Begirik kliskatu ere egin gabe jaurtitzen zituen hitzak, parrastadan kasik. Berari entzun ondoren, edozein epaimahaik errugabetasuna aldarrikatuko zion zalantza izpirik gabe. Bere rolean ezin egokiago sarturik zegoen, egokiegi akaso. Bazuen zerbait bihotzik gogorrena urtzeko modukoa eta bazekien jakin horretaz baliatzen.

– Ez duzu pentsatu poliziari honen guztiaren berri ematerik? Zure kabuz jokatzen segituz gero arriskutsuegi gerta liteke...

– Gure aitaren nahia izan omen zen denok elkarrekin bildu eta zorioneko formula osatzekoa. Gainera nire esku utzi zuen kontuaren ardura. Bere azken desira albait ongien betetzen ahaleginduko naiz eta berak esan bezala egingo da... Nire omenalditxoa izango da; horrenbeste ere zor diot.

– Eta bihar agertuko ez banintz? –xuxurlatu nuen whiskyaren azken tragoaren ondorioak uste baino latzago urdailean sentituz.

Julia eserlekutik altxa eta musu eman zidan masailean. Aspaldi ez nintzen hain ahulik sentitzen.

– Bihar han egongo zara. Horixe da une honetan seguru dakidan gauza bakarra.

KINNAH

Kinnah: *Hosto iraunkorreko landarea, zurtoin zurruna; hostoek kolore hauskara hartzen dute, batzuetan xuri-horailera mudatzen dela. Fruitu estu eta zapalak ematen ditu. Herri askotan suspergarri bezala hartzen dute.*

–1–

Zilarrezkoa zirudien euri zaparradak kotxearen faroek argiturik. Eguerdia zen bilera egingo zen etxerako zementuzko pista hartu nuenean. Gorbeia mendiaren inguruan zegoen eta berez arriskutsua zen mendi kamioa, euriak are arriskutsuago bihurtzen zuen.

Bide-gurutze batera iritsirik, kamioa adarkatu egiten zen. Eskuinekoa hartu eta handik laster, zoruko zementua hartxintxar bilakatu zen. Tarte batez estu eta sigi-sagatsu jarraitzen zuen bidexkak, gora eta gora beti. Berehala zabalgune bat eta hiru kotxe aparkatuta. Eskuin aldean txalet ederra ageri zen, zeinak inguruarekin ia bat egiten zuen.

Julia ataripe luze-zabalean zegoen nire zain inguratu nintzenerako. Eskuan edalontzia zuen eta irribarretsu zegoen. Masusta zaporea zuen musu batez agurtu, besotik oratu eta barrura sarrarazi ninduen.

Lizun usaina zerion pasillo luze batetik barneratu ginen. Irmoki heltzen zidan besotik, ehizta-

riak botatako basurdeari helduko balio bezala. Korridorearen bukaeran erdi itxitako atea zegoen, bertatik ahots lodi bat entzun zitekeen. Juliak atea bultzatu eta gela zabal urdin argi bat zabaldu zitzaidan brastakoan.

– Hona hemen Markos Gorriti. Hitzarmena ezustekorik gabe sinatzen lagunduko digun adiskidea.

Egokia izan zen aurkezpena inondik ere. Labur eta zehatza. Beren aurpegi zurrunetan Pabloren *ezustekoaren* berri bazutela argi asko antzeman zekiekeen. Nire aurrean larru beltzez forratutako sofa luzexka batean neska beltzaran ttiki eta gazte bat zegoen; bere ondoan, ni ikusi ahala zutik jarri eta niregana adeitsu inguratu zitzaidan adineko gizon bat. Eskuinean, besaulki batean abaildurik, Pablo zegoen soraio. Begirada galduta zuen eta jadaneko berezko zirudien zurbiltasuna naro agertzen zuen.

Gizon adintsuak eskua luzatu eta txapaka egin zidan bizkarrean. Nire aurrean gazteago eman nahi zuen aguretzen hasitako gizon dotorea nuen. Hartutako lanak bere sariak izan zuen: atseginezko sentipena igorri zidan.

– Pablok eta Juliak hitaz esandakoa nahikoa diat esku onetan gaudela jakiteko –eskua jaiduraz astintzen zidan; berarengandik nire sudurrera emaro iritsi zitzaidan kolonia usaina, berari buruz hartutako lehenengo iritziaren arintasuna gogorarazi zidan–. Jokin nauk, espedizioan mediku eta laguntzaile ibilitakoa. Jakintzak edozertarako ere hire esanetara nagoela.

Jokinen adeitasun neurriz gainekoa are nabarmenago gertatzen zen Pabloren eta, batez ere, neska gaztearen axolagabetasunaren aldean. Juliak neskaren aurrean ezarri ninduen eta, ahots eztiz, hura aurkezteari ekin zion.

– Hauxe da Amaia Eskudero, gure ikasle bekadun argia eta Afganistango indusketan gogor aritutakoa –esan zuen eskua sorbaldatik behera leunkiro pasatzen zion bitartean; izotzaldia nola edo hala urtu nahi zuen antza. Izan ere, anfitrioi aparta zen Julia.

Amaiak, Juliaren ezkutuko erreguaz jabeturik nonbait, keinu bat –sumagaitza kasik– itxuratu eta eskua eman zidan.

– Steve eta Louis bakarrik falta dira. Aurki familia guztia bilduta egongo gara –esan zuen Juliak whisky bat prestatzen zidan bitartean.

Ezin esan zitekeen gonbidatuen artean giro aparta zegoenik; aitzitik, elkarren arteko mesfidantza eta errezeloak begi-bistakoak ziren.

Jokinek berriro ere hitza hartu zuen:

– Pablok erasoaren berri eman ziguk. Nahi baduk zauriari bistadizoa botatzea, esan besterik ez daukak.

– Estimatua dago baina axalekoa da oso –Juliak edalontzia eskuan ipini eta zurrutada luzea jo nuen–. Zenbait gauza, oso nabarmenak irudituagatik ere, ez dira hain larriak izaten; izan ere gizakiok gertakizunak handiesteko joera berezkoa omen dugu.

– Gauzak handiesteko joera? –galdetu zuen Pablok sumindurik–. Larrua ia-ia goitik behera zulatzeari *gizakion handiesteko joera* deritzok? Tentsio unea pittin bat gehiago tenkatzea erabaki nuen. Alde batetik interesgarri neritzon bertakoen barrena hustu eta sentimenduak askatzeari; bestetik, zirika primeran ari nintzen pasatzen.

– Horrelako gauzak gertatu egiten dituk, adiskide. Bizitza horrelakoa duk eta kitto. Alferalferrik duk negarrari ematea, ez haiz eta umemokoa!

Sofan eseri nintzen, Jokinen aldamenean eta Pabloren aurrean. Azken honen begietan munduko amorrazio guztia gainezka egitekotan zegoen. Arnasa era nabarian larritu eta lepoko zainak, hil edo biziko adarkada eman beharrean dagoen zezenaren pare, handituta zeuzkan. Juliari sumindutako begiradaz kargu hartzen zion bitartean honek, estreinako aldiz, bere senetik aterata zirudien. Jokinek eskuak goitik behera mugitzen zituen lasaitasuna eskatuz. Amaia zen –nitaz gain, jakina– esnetan zegoen bakarra. Ekindako lana ondo burutu nahiz, zigarroa piztu, atxiki sakona jo, eta kea suabeki Pablori jaurti nion aurpegira.

Pablo besaulkitik jaiki eta itsumustuka oldartu zitzaidan. Erdi zabaldutako ezpainek ia zartatzeraino ere hortzak nola estutzen zituen erakutsi zidaten gupidagabeki. Bai, guztiz amorrarazztea lortu nuen.

– Jo eta txiki-txiki egingo haut alproja alaena! –egin zuen marru niri paparretik heltzeaz bat.

Mugimendu bortitz batez bere atzaparretatik askatu eta, nire eskuin besoa lepoaren jiran estuturik, artean ere dardarka zuen esku bat bizkarraren kontra heldu nion erabat menderatuz.

– Beharbada ez haiz nik uste bezain odol-meheko. Hire amorru pizarrari atxikitzea komeni zaik auzi honetatik onik aterako bahaiz, txikito! –esan nion aurreraka bultzatuz.

Pablo astun eta trakets abaildu zen. Julia jauzi batez iritsi zen Pabloren ondora eta bere magalean bildu zuen; ondoren, ukabila mehatxuka erabiliz, gorrotoz zuzendu zitzaidan:

– Kabroi zikina! Guri laguntzeko kontratatu hindudan eta ez bazterrak nahasteko, aditu? Segi oraintxe bertan etxe honetatik urde mozkor arraioa, eta ez azaldu sekula santan gure begien aurrean!

Jokin, beti bezain neurriz, zutik zegoen niri begira; sumindura menderatzeko ahaleginak egiten zituen, burua alde batetik bestera jiratzen zuen bitartean. Maniki bizidun baten traza hartu nion osoro.

– Hara, behin bakarrik esango dizuet zuek denok ulertzeko moduan –esan nuen lasai antzean–. Kontu hau itsusia da oso. Baliteke gure artean hiltzailerik egotea, eta ziur egon bere helburua lortu arte zenbaterainokoa den ikusteko aukera izango dugula. Epelkeriatan ibiltzen bagara galduta gaude. Hauxe zen nire azken aholkua. Orain ate horretatik aterako naiz eta hor konpon. Munduko zorterik onena opa dizuet, zinez beharko duzue eta.

Urrats tinkoz atearen aldera jo nuen, zabaldu eta irten egin nintzen. Kotxean sartzea egin nuen Julia ataripean ikusi nuenean, Greziako jainkosa bat bezain zurrun eta zurbil zegoen. Buruaz baiezkoa egin eta ia lurrik ukitu gabe berriro ere etxean sartu zen.

Eskuak poltsikoak eta txistuka sartu nintzen egongelara. Tentsioa artean ere purpurika zegoen; begiradek, berriz, airea ere zulatzen zuten. Amaiak asperdura hasperena jaurti eta gelatik atera zen, lehengo tirabiratik gehiago espero zuen inondik ere. Jokin sofan jausia zegoen, burumakur eta uzkur. Juliak ez zidan begiratu ere egin eta bi eskuez buruari heltzen zion Pablori

zerbait xuxurlatzen zion belarri ertzera. Jokinengana inguratu nintzen.

– Badirudi orain aterixeago dagoela eta hitzaspertu bat egin nahi nuke zurekin kanpoan. Gainera, Pablok luze mintzatu beharko du gure anfitrioiarekin eta guk enbarazu besterik ez diegu egingo.

Pablok agudo asko hartu zuen ziplada. Zalantza eta nahasmena islatu zitzaizkion hazpegietan; begiek, artean ere, gorrotoa gordetzen zuten.

Jokinek imintzio arranditsu batez ameto egin zuen. Mantsoki jaiki, galtzak eskuez lisatu, jakatik doi bat tiratu eta nire atzetik abiatu zen kanpo aldera.

–2–

Haize setatsua jaisten zen menditik arbolen hostoak harrabotsez dantzaraziz. Jokin nekez ahalegintzen zen urdindutako bere ilajeari eusten eta ondo ulertu ez zitzaion hitz zakarren bat ere bota zuen. Gisa honetara etxeari bira eman genion, hitzik egin gabe. Atzealdean pinuz egindako eserleku trauskil luzexka zegoen hormari itsatsia. Bertan eseri ginen haizearen babesean.

– Zer dago formula dontsu honen atzean? –galdetu nion Jokini.

Itxuraz erabat ustekabean harrapatu zuen nire galderak. Beste ezer espero zuen... zerbait zehatzago agian.

– Deus ba al dakik Alexandro Handiari buruz?

– Enperadorea izan omen zela.

Jokinek nagusitasun aire batez jarraitu egin zuen.

– Enperadore garaiezina izan zuan; hala ere pertsiarrekin eta beraien errege Dariorekin bere neurriko zapata harrapatu zian. Ez zian zer eginik pertsiar gudaroste ahaltsuaren kontra; hala

eta guztiz ere, menderatu egin zitian. Historiak Alexandro Handiaren balentria hau haren adore eta antolaketa militar bikainari egotzi ziean...

– Eta? –jaulki nuen halako erretolikarekin aspertzen hasia.

– Ez zela gertatu historia liburuek esaten diguten bezalaxe, ulertzen?

– Hau zorigaitza!

Jokinek begi zorrotzez eta gupidaz –destainaz akaso– begiratu zidan. Iraingarri zeritzon hain garrantzizkotzat jotzen zituen kontu haietaz nik barre egiteari. Gogoeta egin, eta hasperen luze baten ondoren kontaketari ekin zion berriz.

– Afganistango eremu mortu hartan egundoko aurkikuntza egin genian: Ptolomeoren hilobia. Ptolomeo Alexandroren laguntzaile eta aholkularia izan zuan; baina, ororen gain, gizon hura garai hartako aztirik handiena izan zuan. Egiaren giltza bertan zegoan.

Jokinek grinaz, bihotza ahoan zuela hitz egiten zuen. Nik zigarro bat utzi nuen erortzen ezpain ertzetik eta, asperduraz, piztu egin nuen. Bafada luzearen keaz borobil samarrak ziren figurak marraztu nituen airean, Jokinen eta bion

tartean. Hurrena, arretaz erreparatu nien; harik eta haize bolada batek guztiz deuseztatu zituen arte.

– Eta bertan formula dontsua topatu zenuten, bapo! Historiako klasea gaurkoz bukatua. Badugu pasillora atera eta zigarroa erretzea. Hala ere, ez dut ulertzen zein zen oftalmologiarako sekulako abantailak omen dituen formulak Dariorekin zeukan zerikusia.

Jokin irri-karkaraz lehertu zen. Ito beharrean egin zuen barre, aurpegia gorritu eta begiak erabat busti arte. Ziur nengoen une hartan arras errukarri nintzaiola. Pixka bat lasaitu zenean, poltsikotik ondo tolestutako muki-zapia atera, goiko bi izkinetatik txukunki heldu, astindu bortitz batez zabaldu eta malkoak xukatzeari ekin zion trakeski.

– Ez al duk ulertzen oraindik? *Gure* formula izan zuan hain justu Darioren Armada menderaezina jo eta birrindu zuena!

Jokin eserlekutik altxa, ilea atzeraka lisatu eta nagusitasun keinu harroputza luzatu zidan.

– Ezagun duk formularen beste aldearen berri ez duala. Behar bezala aplikatuz gero erre-

tinarentzat onuragarria bada ere, gaixoak aldi baterako itsualdia jasan beharko dik ezinbestez.

– Horrenbestez, Darioren armada osoa itsu gelditu zen... –xuxurlatu nuen nire kolkorako.

Jokinek txalo batez areagotu zuen baieztatzeko burumakurtzea.

– Hara, Markos, historiako lehen arma biologikoaz ari nauk. Haizearen norabideari kontu egin, leku estrategikoetatik behar adina hauts zabaldu eta kitto! Ezin errazagorik, ezin merkeagorik...

Formularen egiazko balioa ezagutu izanak ez ninduen lasaitu batere. Arma merke eta eraginkorra; konbinazio arriskutsuegia. Jende asko egongo zen dirutza polita ordaintzeko prest formula malapartatu horrengatik. Zenbat eta gehiago jakin formularen inguruan, orduan eta irristakorrago iruditzen zitzaidan zapaltzen nuen lurzorua.

–3–

Etxerainoko itzulia isilik egin genuen. Egongelan Pablo leihotik begira zegoen. Bere aurpegiaren zurrunak bat egiten zuen Juliaren begi bustiekin. Juliak bere aitari buruzko egia jakin behar zuen, horrenbeste zor zitzaion noski. Hala ere, egoera horretan ikusteak urdaila ziztatu egiten zidan.

Bat-batean bozina hotsa entzun zen kanpoan. Lur orotako ibilgailu zurixka zegoen atariaren ondoan; bertatik bi gizon jaisten ari ziren. Haietako bat gizon kankailu potoloa zen. Guri leihoan erreparatu bezain laster eskuaz agur militarra egin zigun harropuzkeriaz. Atzetik tipo eskas eta txatxarra irristatzen zen, bi maletatzar arrastaka eta burutik behera hainbat poltsa nekez zeramatzala.

Jokinek eta Pablok elkarri begiratu zioten bekozko ilun eta larritasunez. Juliak eskuaz eusten zion buruari bere uzkurrean; itxura batera, bere baitatik kanpo gerta zitekeen ezerk axola gutxi zion une hartan.

Gizon handikoteak gela bete zuen bere presentziarekin. Jokini eskutik heldu eta bortizki astindu zuen bizkarrean zapladak jotzen zizkion bitartean.

– Zer moduz *dok*? Basamortuko piztia kabroi haiek ez zitean gu akabatzeko adina potrorik izan, ezta?

Hurrena Pablorengana jiratu eta inguratu egin zen. Bere masaila gizen ikaratiek apenas uzten zioten tokirik irribarre xume bati.

– Hara, gure playboya ere hemen diagu! –arretaz erreparatu zion Pabloren aurpegiera herabetiari–. Baina zargaldua ikusten haut guztiz. Hainbesterainoko zartada jo dik basamortuak ala... beste andereñoren baten erasoa jasaten ari haiz? –artean ere burumakur eta bizkar emanik zegoen Juliari zeharka begiratu zion, irribarre oker ozpin batez masaila aldea guztiz desitxuratu zitzaion arte.

Pablok entzungor egin zuen eta Jokinek, gogoz kontra, aurkezle lanak bere gain hartu zituen.

– Hona hemen Julia, Xaharraren alaba. Julia, Steve. Kanpamentuko antolaketa arduraduna.

Juliak buruari eragin zion. Stevek begi lizunez neskaren gorputza korritu zuen, sorbaldetatik belaunetara. Ondoren, burua goitik behera mugitu zuen onespenez. Juliak begia kixkurtu eta mespretxuz itzuli zion begirada.

Ni sofan eserita nengoen; nire txanda iritsi bitartean xehetasun ttipiena ere nireganatu nahian.

Jokinek, eskua niregana luzatzearekin bat, ahoskera monotonoz egin zuen nire aurkezpena.

– Markos Gorriti detektibea duk. Sinatzea behar bezala gauza dadin bermatzeko Juliak kontratatutakoa –hitzok abisu traza handiagoa zuten aurkezpen soilarena baino.

Nire aurrean jarri zen eskuak poltsikoetan eta burua doi bat okerturik; larderiazko planta erakutsi zuen nabarmenkiro; nork agintzen zuen argi utzi nahi zuen antza.

– Ez nekien orain detektibeok notarioei konpetentzia egiten zenietenik; izan ere, zuek bezalako narrastiek edozeri egiten ziotek kosk!

Nire begiak bereetan iltzatu eta zigarroa piztu nuen. Keak, une labur batez bederen, bere talo aurpegia lausotu zidan.

– Ba al dakik? Gaur San Mamesera joatekoa ninduan. Kategoriako futbol partida zuan eta horren beharrean nengoan behazuna pittin bat lasaitzeko. Asko pentsatu ondoren hona etorri eta, egia esan, ez nauk damu batere. Hi bezalako apareju bati eskua eransteko aukera izanik, bihoaz pikutara partida guztiak. Bai, aukera ederra egin diat inondik ere!

Stevek, beste behin ere, irribarre ozpina egin zuen; ezpain txoko guztiak okertu zitzaizkion ni hatz erakusleaz seinalatzen ninduen bitartean.

– Habil erne, txikito. Neu ere betekada baten premian nagok eta.

Une hartan, zurrumurru bat bezain xumea zen ahotsa entzun genuen:

– Barkatu, non utz nezake ekipajea?

Maleta eta poltsa mordoaren erdian apenas nabari zitekeen lehengo gizon ttikittoa zen. Bere ahots apalari erregu kutsua zerion eta birigarro lumatu baten traza errukarria ageri zuen osoro.

Jokin eta Pablo gizontxoarengana hurbildu eta bero hartu zuten. Jokinek besarkada eman eta eskua gogotik astindu zion; Pablo, estreinako

aldiz, irribarrez ikusi nuen. Gizon ttikiak lotsatuta zirudien.

– Hator, Markos, Louis aurkeztu behar diat eta! –esan zuen Jokinek Louis sorbaldatik maitekiro heltzen zuela.

Zutitu eta inguratu egin nintzen. Sala zeharkatzerakoan Steveri erreparatu nion, zerbait xuxurlatu zion Juliari belarrira. Julia, haserre antzean, aurpegia tenkatu eta besteengana joan zen urrats azkarrez. Stevek, bitartean, ez zion begirik gainetik kentzen neskari.

Louisek, ezker eskuaz zigarroa atera patrikatik eta ezpainetan paratu zuen; Jokinek su eman zion.

Julia eta biok aurkeztu eta gero, maletak uztera lagundu genuen. Den-denok eskertu genuen une batez behintzat Steve bistatik galdu izana; Louis, bestalde, maitagarria zen.

– Luze mintzatu behar diagu, lagun zaharra –bota zuen grinatsu Jokinek, Louisen bizkar ahulari zaplada gogorregiak joz–. Irrikatan nagok itzulerako gorabeherak entzuteko; baina horretarako geroago ere parada izango diagu, noski.

Louisek burumakurtze batez baiezkoa adierazi zion, esku dardartiz zigarroari zupada luzea jotzeaz bat.

Berriz ere egongelara bueltatu ginenean Amaia eta Steve aurrez aurre zeuden. Amaiaren oinetan lore sorta zetzan. Lore gorri eta horixkek kontraste nabarmenegia egiten zuten Amaiaren portzelanazko aurpegiarekin; izan ere, portzelana pitzatuzko azala agertzen baitzuen Amaiak Steveren aurrean.

Tentsio egoera zinez nabarmenegia zen. Juliak hormaren kontra bizkarra bermatu eta sakon hartu zuen arnasa begirada gorantz tinkatuz. Inguratu nintzaionean, basoan galdutako bildots gaixo baten traza osoa bereganatua zuen eta mahukatik irmoki heldu zidan laguntza eske.

Egoera zaila zen. Oinarrizko harmonia berreskuratu beharra zegoen; horretarako denbora ezinbestekoa zen.

– Nire ustez –egin nuen aldarri albait ozenkien– gaur nekatuegi gaude denok paper gris korapilatsuetan murgiltzeko eta hobe dugu bihar goizean ekitea partiketari.

Hau esanik onespena bilatu nuen anfitrioiaren begietan. Juliak, konbentzimendu handirik gabe, ameto eman zuen buruari eraginez. Bazekien eta, luzamendu honek arazoa konpondu barik atzeratu egingo zuela. Gainontzekoek, Stevek izan ezik, ezaxolakeriaz hartu zuten erabakia.

Steve, izan ere, oldartu egin zitzaidan.

– Ez gaituk hona etorri denbora galtzera, pottoko! Zer uste duk ba hik? Beste zereginik ez dugula, hemen eseri eta izadiaz gozatzea baino? –hutsune labur baten ondoan, artean ere bere onera etorri gabe zegoen Amaiari begiratu eta irribarre markatuegi batek aurpegi osoa hartu zion–. Tira, ondo pentsatuta... elkarrekin ondo konpontzea komeni zaigu, agian gaurko gauak luze jo lezake eta, ez da hala Amaia?

Amaiak gorrotoz begiak kizkurtu eta ukabilak itxi zituen. Supituki odola borborka bueltatu zitzaion musura. Stevek berriz ere edalontzia whiskyz bete eta sofan zabal-zabal jesarri zen.

–4–

Afalaurretik Pablo bilatu nuen. Urdin kolorea nagusi zuen gela bateko balkoi zabalean zegoen, baranda gaineko beso gurutzatuetan kokotsa sarturik. Begirada gogoetatsu baina, batez ere, abaildua zuen. Ni atzetik hurbildu eta besoa lepoaren jiran ezarri nion adiskidetsu. Pablok ez zuen zirkinik ere egin.

– Bazekiat zakarregi jokatu dudala hirekin baina hire hobe beharrez...

– Aski duk! –oihu egin zuen gorputza dardarka zuela–, kokoteraino nagok hirekin, Steverekin eta kontu madarikatu honekin, aditu? Lehenbailehen bukatu eta ospa, ez diat besterik gogoan. Bost axola zaizkidak dirua, partiketa eta lore malapartatu hauen balizko erabilpen terapeutikoa. Bakean bizi nahi diat, besterik ez.

– Orduan zergatik hago oraindik hemen?

– Egiatan uste al duk heuk bakarrik lagun diezaiokeala Juliari?

Erantzunak ez ninduen, noski, ustekabean harrapatu; haatik, neure barne-barneko harrota-

sun puntu ezagunen bati eragin zion. Bi oilar gehiegi omen oilategi bakarrerako.

Gure arteko tentsioa baretze aldera, gaiaz aldatzea erabaki nuen:

– Zer gertatu zen kanpamentua utzi zenutenean? Erraz lortu zenuten Afganistandik alde egitea?

Pablok buruari eragin zion adostasuna erakutsiz. Joko aldaketa onartu egin zuen. Zigarro bat hortzen tartean ipini eta beste bat luzatu egin zidan, piztu, ahokada ke barneratu eta sakon hausnar egin zuen erantzun aurretik.

– Xaharra hil zutenean albait azkarren abiatu gintuan leku madarikatu hartatik. Jokin eta biok motelegia zen jeepean gindoazaan, noraezean. Bagenuen errekina egun baterako edo; hala ere, gasolioa ahitu baino lehenago jeepa matxuratu egin zitzaiguan. Erradiadorea (beroaren ondorioz ziur asko) hondatu egin zuan. Ura eta oinarrizko elikagaiak hartu eta oinez jarraitu genian infernu hartan zehar. Oinazpiak zartatu eta belaunak ahuldu egin zituan. Ikusmena lausotu eta mihia laztu eta handitu egin zitzaiguan. Nola edo hala aurrera jarraitu genian. Harik eta Jokin, ahulezia-

ren ahuleziaz, zorabiatu eta zerraldo jausi zen arte.

Isilune bat egin zuen. Garbi zegoen gertakizunaren irudi latzak bizitzen ari zela eta, nahi gabe, oinazea marrazten zitzaion hazpegietan. Zigarroari atxiki luzea jotzeaz bat, burua astindu zuen, irudiok uxatu nahi izan balitu bezala.

– Jokin ez zegoan ibiltzeko moduan eta behin eta berriz han bertan hiltzen uzteko eskatzen zidaan. Une latzak izan zituan zinez. Ura eskasten ari zuan eta inguruan ez zegoan laguntza non eskaturik. Maldizioka jardun zian luze nire kontra izugarriak esaka, ni haserrarazi eta bera bertan utzita alde egin nezan. Neu, berriz, ezetzean tematu nintzaioan. Gure ordua iritsia zela eta bakarrik abiatuta ere ez nuela aukerarik ttikiena ere. Hobe nuela kontzientzia garbiarekin hiltzea eta hori, behinik behin, ezin galaraziko zidala...

Beste isilune bat egin zuen, lehena baino luzexeagoa agian. Malko bat begi ertzetik behera lerratu zitzaion. Pare bat aldiz ahalegindu zen kontaera mingarri hura jarraitzen eta hitzari hitza lotu ezinik geratu zen. Hirugarrenean kontakizunari heltzea lortu zuen.

– Gure Jokin... Ikusi behar huen hilzorian zegoela nola, geratzen zitzaizkion indar apurrak bilduta, amorruz oldartu zitzaidaan behingoz bere ondotik hanka egin nezan. Etsipenaren etsipenez eta hitzak ahiturik, aurpegira txistua botatzen ere ahalegintzen zuan; ondo alferrik ordea: ordurako txistua ere ahitua baitzitzaion. Nik irmoki besarkatu eta halaxe geratu gintuan, negarrez, herio noiz etorriko zain...

Hau esanik jiratu egin zen. Zigarrokina balkoitik behera jaurti, azken ke bafada askatu eta kean barrena begira gelditu zen. Gero, bizkarra eta ukondoak balkoiko barandan bermatu eta sorbaldei goraka eragin zien keinu adierazkorra botaz.

– Herioren partez Nekrasoven gizonak etorri zituan. Eta lurralde hartan biak sinonimoak badira ere, guk zortea izan genian...

– Nekrasov?

– Afganistango gizon boteretsuenetariko bat duk gaur egun. Kabulen ez zagok deus ere egiterik bere oniritzik gabe. Berak ia Afganistan osoko azpi-ekonomia kontrolatzen dik: arma trafikoa, droga salerosketa, jokoa... Lurralde hartan ge-

rran dauden alde guztiek bere laguntza ekonomikoa behar ditek ezinbestez; bai talibanek, bai tadjikek eta baita borrokan dirauten jauntxoek ere.

– Tipo azkarra, alegia.

– Azkarra eta bitxia benetan. Errusiarrek Afganistan inbaditu zutenean Nekrasov Errusiako Armadako jeneralik ospetsuena omen zuan. Lurraldea eta bertako jendea ondo asko ezagutzen zizkian; guduan garaipen handiak lortu eta, ondorioz, Kremlinek mugagabeko baliabideak eskuratu zizkioan. Nekrasov jaunak, noski, bere probetxurako erabili zizkian eta horrela, pixkanaka-pixkanaka, egundoko azpiegitura ehundu zian Afganistan osoan zehar. Gerra amaiturik Errusiako Armadak erretiratzeko agindua jaso zuenean, Nekrasovek beren armategi garrantzitsuenak hustu eta bere armada propioa osatu zian. Era honetan, Errusiako Armadako jeneralik loriatsuena terrorista eta traidore bihurtu zuan.

– Halako ale ederraren morroiak zuetaz gupidatu zirela sinetsarazi nahi al didak?

– Bazuten arrazoi sendoa horretarako. Nekrasov arkeologia zale amorratua zen aldetik, ordu

luzez egoten zuan Xaharrarekin tertulian Kabulen. Gezurra badirudi ere lagun minak zituan. Gaizkile haiek bazekiten gu bertan garbitzea oso arriskutsu izango zitzaiela; izan ere, inoiz Nekrasovek horren aditzea izan balu, arratoiak balira bezala larrutuko zitian. Hortaz, ez zitean beste aukerarik. Hala ere, gainean generamatzan sosak, urrezko domina eta erlojuak eman behar izan genizkiean *bidesari* modura.

–5–

Afaria begirada urduri eta mesfidatiz josita egon zen. Steve mahaiburu jarri zen, gainontzeko guztiok mahai luzexkaren bi aldeetan lerrokatzen ginela. Amaiak apenas hartu zuen mokadurik eta esku urduriz ogi koskorra papurtzen ari zen. Jokin medikuntzako kontuez mintzatzen zitzaion Pablori. Honek, berriz, ez zion Juliari begirik kentzen. Julia eta biok aurrez aurre ginen. Hari zuzentzen nintzaion aldioro desgogara antzean erantzuten zidan, gogoa urruti izango balu bezala. Zoragarria zegoen! Zetazko soineko beltzak soina kurba leunez marraztu eta bular alde oparoa estu-estu markatzen zion. Urrezko belarritakoek adatsaren kixkurrekin bat egiten zuten eta ilargi erdi itxurako lepoko bat bularren arteko erretenean murgildurik, arnasarekin bat jostari mugitzen zitzaion. Louisek ez zuen hitz erditxo bat ere esan otordu guztian, eta behin eta berriz oinaze imintzioak egiten zituen. Zuri-zuria zegoen eta izerdi tantak emaro irristatzen zitzaizkion bekokitik behera. Steve, azkenik, adurra zeriola

zegoen. Bere talaiatik ziri eta zirto aritu baitzen etengabean, gure ezaxola eta entzungor plantei, itxuraz bederen, garrantzirik eman gabe jo eta su.

Afaldu bezain laster gehienak lotara joan ziren. Pablo eta Julia, gau giro ederra zegoela eta, osteratxo bat egitera. Egongelan Steve geratu zen, aulki batean zangalatraba eserita. Eskuetan edalontzia zuen eta doinu astun bat ahopeka kantatzen ari zen. Louis ere bertan zegoen. Ez zen mugitu mahaitik eta lehen bezalaxe jarraitzen zuen: uzkur-uzkur eginik.

Ni Steveren aurrean jarri nintzen. Aulkian eseri eta zigarroa piztu nuen. Kea sakon hartu eta bota egin nuen. Bera nik uste baino lehenago hasi zitzaidan hizketan:

– Kanta irlandarrak gogoko ditiat. Gehienak tristeak dituk, bazekiat, baina gauak malenkoniatsu jarri ohi naik... jendeak nire ondotik hanka egiten duenean batik bat.

– Denek ez ditek alde egin –esan nion buru keinu batez Louis seinalatuz.

– Louis, noski! –bere ahots erlats eta zakarrean alkoholaren eragina nabarmenago zitzaion–. Beti geratuko zaiguk Paris, e Louis!

– Izan ere, jendetasuna ez duk hire dohain handienetako bat txikito –jaurti nion brastakoan.

Ez zidan berehalakoan erantzun. Une batez pentsakor gelditu zen; gero edalontzia trago batez hustu, ezpainak miazkatu eta berriz ere bete zuen edalontzia. Bigarren txurruta jo arte isilik geratu zen.

– Ni ez nauk itxurakeriatan ibiltzen eta jendeak egia gordinak ez dizkik maite. Horixe duk neure arazoa.

Steveren arazoa kortesia falta baino haratago zihoala begi-bistakoa zen. Hartz nabar izugarria begitandu zitzaidan; ardiek maite ez zutela eta, kexu zen hartz tantaia. Gainera zergatik eta noizbehinka –gose izaten zen guztietan hain justu ere– jo eta atzaparka baten batzuk txikitxiki egiten zituelako.

– Kontu hau gaizki hasi eta itsusi ziak. Ez, ez dik batere traza onik zorioneko afera honek. Agian hik lagunduko bahu, xamurrago gertatuko lukek denontzat. Badakik, tramitea bete, sinatu

eta dirua kobratu, kitto. Hartara nire lana eta zuen ezinikusiak bukatuko lituzkek... denok irabazten aterako gaituk, alegia.

Basoa ezpainetan zuela karkaila ozena egin zuen berriro ere Stevek. Whiskya bortizki ahotik atera eta bere galtzak blaitu egin zituen. Eztul eta barre aldi berean egiten zuen, eta arnasari buelta emateko ere egiazko ahalegina egin behar izan zuen. Banekien, bera zegoen egoeran ez nuela atarramentu onik aterako. Hala ere, ez nuen amore eman nahi.

– Kanpamentua utzi zenutenean Louis, Amaia eta heu jeep berean zindoazen. Nolako bidaia egin zenuten?

– Hara adiskide! Ez zekiat nor haizen ezta hemen zer egiten duan ere. Bost axola detektibea, *giggolo* edo mutur luzea haizen; baina besteren kontutan hire muturra sartu behar hori ez diat atsegin.

– Galdera egin diat, zain naukak.

– Hoa popatik hartzera, entzun?

Bere onetik irtena zegoen erabat. Ez bat eta ez bi, botila mahaitik hartu eta, amorruz, nire kontra bota zuen. Nik doi-doi izkin egin eta hor-

maren kontra lehertu zen. Ondoren, atzeratu eta ia osorik gelditu zen muturraren pusketa hartu nuen lurretik; berehala, jauzi batez, bere aurrean jarri nintzen, ahalik eta jarrera mehatxagarriena itxuratuz. Berak, ordea, ez zirudien batere asaldatua nire erreakzioarekin, aitzitik, lasai eta esperoan zirudien: noraino iritsiko ote nintzen esperoan. Nik gauzak argitu nahi nituen behingoz eta zirt edo zart jokatu nuen. Bere aulkiaren hankari ostikoz jo, lurrera eraitsi, eta botila pusketa lepoaren kontra indarrez ezarri nion. Stevek ez zuen hitz erditxo bat ere esan, baina arnasa nabarmenkiro larritu zitzaion. Odol xirripa mehe bat hasi zitzaion kristala zegoen tokitik behera jarioan.

– Ez diat galdera errepikatuko.

Eskuaz ados zegoelako keinu egin eta lepoa laxatu egin nion. Guztiz zurbil zegoen eta puska batez burua hanken artean makurtuta eduki zuen; ondoren, itxuraz egundoko ahalegina eginez, jaiki egin zen. Burumakur jarraitzen zuen. Mahaira gerturatu eta erdizka beterik zegoen baso bat hartu eta tragoan zakuratu zuen. Ondoren mahaiari bizkar emanez jesarri zen. Louisek

mahaiaren beste aldean eserita jarraitzen zuen, afarian egondako toki berean, alegia. Isilik eta zurrun zirauen ikuskizunaren aurrean: eskuak bata bestearen gainean paraturik, jarrera arranditsuaz eta zirkinik egin gabe.

Steve hizketan hasi zen.

– Ez duk kontu luzerik. Amaia, Louis eta hirurok abiatu gintuan lur mortu madarikatu hartan barna. Mairu zarrastrajo haiek atzetik zebilzkigula egunbete edo egin genian, ihesean beti. Ez zituan mutur beltz haiek amore ematen errazak eta egunsentia argitu orduko orpoz orpo genizkian. Beste erremediorik ez zegoela eta, aurre egin geniean.

Urduritasun puntua igartzen zitzaion mintzoan. Bekain biak ia bat eginik zituen eta kopeta zimurturik. Estreinako aldiz nolabaiteko onberatasun arrastorik zerion, eta edonork, Steve aldez aurretik ezagutu ezean bederen, akaso pentsa zezakeen pertsona ahul eta errukigarri baten aurrean zegoela. Ez zuen, haatik, bere ustezko aldaketak luze iraun. Azkar asko, bisaia aldatu eta ukabilaz indarrez mahaia joz, altxatu egin zen.

Eskuaz lepoko odol jarioa garbitu eta amorrazioz begiratu zidan.

– Bai, beltzaran zarpailtsu haiei merezitakoa eman geniean. Hortzak erakutsi, pare bat tiro bota eta kitto! Orro eta espantu asko baina gero kaka egiten ditek zorrizto kirasdun haiek. Horrelakoxe kasta eskasekoak baitira. Tiroka uxatu eta oraindik ere korrika ariko dituk, nor baino nor lehenago iritsi haien piztia-zulora. Egun hartan ehizaldi ederra egin genian, bai horixe! Ez da hala Louis?

Louisek bere baitan are sartuago zirudien eta begietan izan ezik ez zuen beste inon bizitasunik ageri.

–6–

Hurrengo goizean Julia paper mordo batekin sartu zen salara. Ni, aspaldi jaikita eta ordurako bizpahiru kafe hartuta nengoen. Kristalaren beste aldean langarra ari zuen eta lurrean, hanhemenka sakabanaturik, putzuak eta jausitako hostoak ikus zitezkeen.

Barruan, bezperan ez bezalako giro lasaia nagusitzen zen. Kikaren hotsa eta aldizkako irribarreak tartekatzen ziren jendearen arteko hitz-aspertuetan. Neu ere irribarre egiten ahalegindu nintzen pare bat aldiz; hala ere, urdaileko ziztada temosoak indar berrituaz erasotzen zidan.

Jokin inguratu zitzaidanean pozak zoratzen ematen zuen eta *azkenean etorri den egunaren handiaz* edo hitz egin zidan, nik begiradaz Julia bilatu eta aurkitzen nuen bitartean. Brusa zuri eta laukidun minigona eskoziarra zeramatzan jantzita, ilea motots batez bilduta eta lepotik behera, berriz, fular nabarra luzatzen zitzaion gerriaren pareraino kasik.

Juliak hamar bat minutu eman zituen paperak txukuntzen eta gainbegiratzen kaobazko mahai luzexkaren gainean. Gero, aurki hasiko ginela eta esertzeko esan zigun beste kikara bat kafe prestatzen zuen bitartean. Paperen aurrez aurre eseri, bi eskuetako hatz puntak bildu eta kokospean ezarri zituen. Berehala, bekozkoa ilundu eta urduritasun imintzioa marraztu zitzaion hazpegietan. Neu ere berehala konturatu nintzen: Steve falta zen.

Juliarengana hurbildu eta neroni joango nintzela haren bila esan nion ahapeka. Juliak, zalantzan egon ondoren, ezetz, bera joango zela abisatzera esan eta atera egin zen salatik. Argi zegoen anfitrioia zen aldetik eginkizun hori bere gain hartu nahi zuela. Ez nion oztoporik jarri; bere anfitrioi eta izar eginkizuna zapuztu nahi izana ez baitzidan, inondik ere, onartuko.

Bost bat minuturen bueltan azaldu zen Julia. Alartzean geratu zen eta beste urrats bat aurrera egiten saiatu zen alferrik. Aurpegia guztiz zurbila zuen eta lehengo neska koloretsu eta pinpirinak herioren beraren irudia ematen zuen. Bere gorputzak balantza egin zuen eta atearen kontra

bermatu zuen bizkarra. Berehala eta guri erreakzionatzeko astirik eman gabe, begiak itxi, zapuztua gelditu zen oihu bat egiteko ahoa zabaldu, hankak malgutu eta zerraldo abaildu zen lurrera.

DURAIF

Duraif: *Hogei zentimetro inguruko landarea. Zurtoin zurkara oinarrian eta hagitz adarkatua. Hosto luzexkak, osoak eta izurtsuak; kolore arredunak. Loreak urdinxkak ditu, hiru bat zentimetrokoak; bost hamar aleko sailetan aurki ohi dira. Sendatzeko aplikazio ugari badu ere, oro har, gehiegizko izerdi-jarioaren kontra eta edoskitzea murrizteko erabil ohi dira.*

–1–

Steveren gorpua aztertzeari ekin genion Jokinek eta biok. Hilotza ohearen barruan zetzan, saiheska jarrita, lepoa mozturik. Mesanotxea iraulita zegoen eta hainbat gauza zeuden, han-hemenka, kristal apurtu ugariren artean. Gorpuak erakusten zuen traza, zinez ikaragarria zen: begiak ia erabat jiraturik zeuzkan, Steveren niniaren arrasto berdexka ikusezin bihurtzeraino kasik. Behinola harro eta menderaezina zirudien mihia, berriz, orain ahoari zerion piltzar more lerdetsua baino ez zen. Odola lepotik behera zerion emaro, bularretik irristatu eta, tantaka, lurrera iristen zen putzu zabala osatuz. Armairuko ate eta tiraderak irekita zeuden eta Steveren objektu pertsonalak nonahi barreiaturik. Odolez zikindutako daga bat zegoen lurrean botata.

Zirudienez Steve, lehen momentuan behintzat, erasotzaileari aurre egiten ahalegindu zen. Hala ondoriozta zitekeen mesanotxe irauliari eta kristal apurtuei erreparatuz gero. Hala ere, apenas izan zuen erantzuteko astirik, ohean sarturik

baitzegoen. Hilketaren xedeaz –eta besterik baztertu gabe–, formula atal edo lorearen lapurreta izan zenik ezin uka zitekeen. Hala frogatzen baitzuten miaketa egin izanaren arrasto garbiak ziren hango nahasmenak eta anabasak.

Jokinek gorpua aztertu ahala oharrak idazten zituen koaderno txiki batean. Niri, bitartean, ohearen ondoan zeuden kristal ttikiek atentzio eman zidaten zeren eta, itxuraz bederen, ez baitzegoen argi zeren pusketak izan zitezkeen. Alferrik arakatu nuen inguru guztia; kristal ñimiño haien jatorria ez baitzen inon ere ageri.

Konturatu orduko Jokin nire aurrean jarrita zegoen, koadernotxoa eskuan eta zain. Nik begiratzeaz bat hasi zitzaidan azalpenak ematen. Lehentxeago idatzi oharrak irakurtzeari ekin zion era profesional eta monotonoegiaz.

– Bere heriotzaren kausak ez dik misterio handirik: jugularra moztuta hil duk gure gizona –klase teoriko-praktikoa emanez egongo balitz bezala, lepoko zauri izugarria erakutsi zidan hatz erakusleaz–. Bitxiena zera duk, ebakia bera; edo beste modu batera esanda, ebaki sakon hori egiteko era: hiltzaileak behin eta berriz pasa baitio

marraza zintzurretik. Zauria, beraz, ez duk garbia izan; ebaki askoren bitartez egindakoa baizik.

– Horrenbestez, ankerkeriaz eta amorruz egindako hilketa baten aurrean gaude... –ondorioztatu nuen nik.

– Ez diat uste. Ebaki ugari hauek amorruak ez baina ezintasunak eragindakoak direla esango nikek nik.

Gero, pipa atera zuen patrikatik, tabakoa sartu eta kalkatu egin zuen gogoetatsu. Isilune baten ondoren, lehen ke-ahokada botatzeaz bat lehengo hitzak zehazteari ekin zion:

– Ebakia oso modu bitxian zagok eginda zeren eta daga (honezkero konprobatuko huenez) guztiz zorrotza duk eta, ondorioz, ez duk indar handirik behar zauri hilgarria eragiteko. Beste datu deigarri bat honako hau lukek: ebaki guztiak ezkerretatik eskuinetara egindakoak dituk. Hala ere, dagaren gako-formari eta ebakiei erreparatzen badiegu, azioa ezkerti batek eginda behar dik izan eta agian azken honek balezakek loturarik urratuen arintasunarekin. Hauexek lituzkek azaleko arrastoak –koadernoa

itxi eta, irribarre lerdoa marraztua zuela, zain geratu zen.

– Taldean ezkertirik ba al da?

– Nik dakidala ez, behintzat.

– Orduan, ba al du zentzurik ezkerti plantak egiteak?

– Nire ustez alderantziz izan duk –esan zuen zauriari begiratuz–, zera... ezker batek eskuin plantak egin nahi zituela, alegia.

Harriduraz begiratu nion medikuari. Jokinek sorbaldak goratu eta zain jarraitu zuen. Poltsikotik mukizapia atera eta haren bidez daga hartu nuen lurretik. Zilarrezkoa zirudien, arabiar tankera gakotua eta hizki batzuk zituen kirtenean.

– Arabieraz irakurtzen ba al daki inork?

– Oker ez banago –lokiei hatz erakusleaz zirkularki eragiten hasi zen oso berezkoa zuen postura hantustean–, Amaiak Arabiar Filologia ikasi zian. Pertsona aproposena berau dagako inskripzioa itzultzeko, zalantzarik gabe.

Bitsetan zirudien nire asmoa igarri zidalako, eta ume ttiki bat begitandu zitzaidan lipar batez.

Gelatik atera egin ginen. Jokin besteekin bildu zen salan. Nik, bitartean, Poliziari deitu

nion. Mantxolaren irribarre lerdetsua akain temoso baten legez likatu zitzaidan garunetan.

Salan sartu nintzen. Louisek izan ezik, gainontzeko guztiek ez ziruditen bereziki penaturik gertatutakoaz. Kezka zen, batik bat, aurpegi serio eta kopeta ilun haiek islatzen zutena; hurrengorik izan zitekeelako kezka mingarria. Louisek hondoa jota ematen zuen.

Gertaeraren zertzelada nagusienak bildutakoei azaldu ondoren, Amaiarengana jo eta laguntzeko eskatu nion. Zeharo txundituta begiratu zidan eta, pixka batean zalantzan egon ondoren, zutitu eta nire atzetik atera zen salatik. Steveren gelarako bidean Jokinekin topatu ginen. Honek, besotik Amaiari heldu eta ahapeka «hobe gelara ez sartzea» iradoki zion.

Amaia gelatik kanpo zain geratu zen. Odolez zikindutako daga erakutsi nionean, higuinezko keinada marraztu zuen; berehala, ordea, harridura zen bere begiek kanporatzen zuten gauza bakarra.

– Hauxe da hiltzaileak erabilitako arma. Eskutokian arabierazko inskripzioa du –esan nion daga luzatuz.

Dagak, itxuraz, erabateko lilura sorrarazi zion neskari. Patrikatik betaurrekoak atera eta jantzi egin zituen; goitik behera antzaldatua zirudien. Lehengo neska probokatzailearen xarma ahitu eta liburutegiko *aulki-bero* baten traza hartu zuen osoro. Amaiak bi hatz erakuslez ertzetatik dagari heldu eta arretaz begiratu ziolarik, hitzik esan gabe bere gelara joan zen. Daga mesanotxean ipini, argi urdinxka egiten zuen lanpara txikia piztu eta, tiradera batetik paper bat aterata, idazteari ekin zion.

– Bitxi ederra, bai horixe! Ederregia inor hiltzeko; nahiz eta Steve bezalako urdea izan.

– Zer dio inskripzioak?

Amaia nigana jiratu eta betaurrekoak kopetan jarri zituen; lehengo enkantu guztia deblauki itzuli zitzaion.

– Esaldi motza da, Koranetik hartutakoa seguruenera. Korana ehun eta hamalau atal edo *suraz* osaturik dago; kapitulu bakoitzean, berriz, *aiah* izeneko berset motzak daude. Haietako bat izango da inondik ere.

– Hau dena oso ongi dago, baina urteetan aurrera noa eta nire burua dagoeneko pitzatu

xamar dagoela uste dut. Estimatua dago baina honezkero zail ikusten dut islamismoan paradisua edo nire burua aurkitzea. Esango al zenidake behingoz zer jartzen duen inskripzio malapartatu horretan, mesedez?

Nire zakarkeriak Amaia erretxindu egin zuen:

– Herorrek irakurtzak horretarako gauza baldin bahaiz! Nik martxa diat hemendik.

Hau esanik, destainaz papera zimurtu eta lurrera bota zuen. Ondoren, mespretxuzko keinu batez eta urrats irmoz, urrundu egin zen gelatik.

Jakin-minez papera lurretik hartu eta mahai gainean eskuaz lisatu nuen. Argi margula ingurratu eta irakurtzeari ekin nion:

engainatzen gaituen hura ez da inoiz gutarra izanen

Freno kirrinka ozen batek atera ninduen supituki gogoetatik. Daga hartu eta presaka Steveren gelan paratu nuen berriro, lehen zegoen toki berberean. Logelatik ateratzea egin nuen, ahots ezagun zakar batek etxe barrenean durundi egin

zuenean. Mantxola komisarioa jadanik bertan zegoen.

–2–

Sandwich ziztrin bat baino ez nuen jan azken sei orduetan eta artean ere komisaldegian jarraitzen nuen. Zigarroa piztu eta kea irensterakoan urdaileko zulotik ihes egingo zidala bururatu zitzaidan. Mantxola zutik zegoen, paretari begira. Egurrezko aulki batean zangalatraba eserita tipo argal bat zegoen, komisarioaren laguntzailea edo. Mantxola poliki-poliki nireganantz jiratu eta, sudur-hegalak puztuz sakon hartu zuen arnasa. Gorbataren korapiloa guztiz laxatua zuen eta izerdiak diz-diz egiten zion bizar-punttak hazten hasitako aurpegi gorriztan.

– Simaurtegietan atzaparka egiteko abileziarik ez diat ukatuko eta horrek bost axola niri, entzun? Hire moduko makina bat arlote badabil han-hemenka lardaskan, burdina galtzarbean duela, harropuzkeriatan, galtzetan sartu ezinik. Azken finean eulitzarrak zarete, kaka non zeuek han. Banaezinak zarete; askotan kosta egiten duk asmatzea zerk zer erakartzen duen. Ongi.

Ba jakin ezak kaka-jan hau bukatu zaiala eta bahoake beste gorotz mordo baten bila.

– Izan ere, ezagun duk poliziak nolako gutiziak dituen gustuko. Ziur asko hemen gu biok asetzeko adina kaka pila egongo duk eta itsusia duk lagunarekin ez banatzea, ez al zaik iruditzen komisario jauna?

Eserita zegoen poliziak Mantxolari so egin eta irribarre zakarra osatu arte ezpainak desitxuratu zituen. Erantzunaren zain irrikatan zegoen.

Mantxolak hitzak jaurti aurretik mastekatu egin zituela iruditu zitzaidan, puska batez deus esan gabe eta ezpainak mugituz aritu baitzen. Bi besoak mahaian bermatu eta bere muturjea nire aurpegitik gertu, gertuegi ipini zuen. – Entzuidak asko jakin usteko babalasto horrek! Denen deklarazioak bilduta zeuzkaat dagoeneko eta beste zertxobait gehiago ere bai: Amaiaren eta hire hatz marka polit askoak hilketaren arman ezarrita. Hanka-gorri alaena! Zakil-larrua izan behar gero zorioneko daga hura eskuetan ibiltzeko. Ez diat berriz esango. Nahikoa arrazoi bazagok hi eta moñoña hura zuloan sartzeko kontua argitu arte. Aitortzen diat hi bezalako

jende zarrastrajoa barrura sartzea ezkutuko bizioa dudala, badakik txikito, neu ere humanoa bainaiz.

Brastakoan zutitu nintzen. Eserita zegoen zakurra tximista bezala altxatu eta eskuaz sorbaldatik eraginez bortizki eserarazi ninduen. Hortzak erakutsi zituen; hortz horizta pitzatuak. Bere ile koipetsuak lagundu egin zidan arratoi baten irudia osatzen nire buru kargatuan.

Bafada amorruz bota eta ilea atzeraka laztandu nuen. Mantxolaren ahoberokeriak buruko min astuna eragiten bazidan ere, bere morroiak sorrarazten zidan higuina zen une hartan sentitzen nuen goragalearen motibo bakarra. Hala ere, zenbait gauza argitu beharra neukan; nahiz eta ia ziur horretarako barrurako bidaia-txartela eskuratu.

– Dagoeneko nire etxepeko tabernan egon behar nian, zurrutada hartzen eta bertako tabernari Patxiri nire penak kontatzen aholku eske. Hori baino ez. Ez diat besterik eskatzen, erraza duk, ezta? Baina hemen nagok. Zulo lizun nazkagarri honetan, dinosauro tripandi batek korrokada egiten duen aldiro handitara hordago nola jo-

tzen duen entzuten; nahiz eta jakin txikitako kartak baizik ez dituela bere atzaparretan. Etsigarria zinez. Barrura sartu behar nauala, tira ba, hemen baino jende interesgarriagoa baietz topatu. Astebete egingo nikek, asko jota. Etxe hartan egon zirenek nire bertsioa egiaztatu arte hain justu ere. Nire hatz markak! Neu ez nauk horregatik besteak baino susmagarriagoa eta azkenean zer? Putza, horixe besterik ez daukak eskuartean oraintxe. Beste aldetik, kasuan jarraitu ala ez neure kontua duk. Nik dakidala behintzat hori eragozten didan legerik ez zagok, azken finean muturra sartzea nire lana duk; horretarako ordaintzen zidatek, zeuei bezalaxe. Orain, ipurdi handi hori mugitu eta egin behar duana egintzak! Aske utzi behar banauk lehenbailehen izan dadila, hire morroiaren hats nardagarriak erabat zorabiatu baino lehen bederen. Barrura joan behar badut, agian afalordura iritsiko nindukek. Horrenbestez, utzi hire erretolika merkeak alde batera eta zirt edo zart egintzak behingoz!

Egia esan, harrituta geratu nintzen komisarioak nire hitz parrastada guztia botatzen utzi zidalako. Niri begira zegoen, zirkinik ere egin gabe

goiko ezpaina doi bat altxatuta, hortzak agerian uzteko hainbat. Nire aldameneko poliziak buruaz ezezkoa egiten zuen bitartean, Mantxola, motel eta astun, niregana inguratu zen. Bere begietan begirada tinkatzeko betarik ere ez zidan eman; supituki jo eta egundoko matrailekoa eman baitzidan. Bai, guztiz ustekabean harrapatu ninduen. Aulki eta guzti atzeraka erori nintzen. Nire buruak lurra jo zuenean zartada, latza izanagatik ere, matrailekoa baino arinago izan zen. Morroi zargaldua aulkitik jaiki eta Mantxolari eutsi zion, tentu handiz eutsi ere. Belarri ertzera zerbait murmurikatu eta haren purrustadak gora-behera, bere sumina pittin bat lasaitzea lortu zuen antza. Hurrena, niri lurretik altxatzen lagundu eta beste gela batera eraman ninduen. Tisiko itxurako tipo hark ondo asko bete zuen *polizia onaren* papera. Azken buruan beti zalantza geratzen zaizu, hori dena ez ote den aldez aurretik adostutako gidoi mingots baten errepika bat gehiago besterik. Baina horrek berdin zion. Ingurumari guztia jira-biraka ari zitzaidan; gainera, ahoa zabaltzen saiatzen nintzen bakoitzean, se-

kulako min zorrotza kokotsetik hasi eta garondoraino kasik zabaltzen zitzaidan.

Zartakoak eragindako zorabioa erabat pasa gabe neukan atzera Mantxola azaldu zenean. Niregana makurtu eta bere atzapar eskergaz lepoaren jira heldu zidan oso-osorik. Nire min imintzio lazgarriak ez zion, haatik, irribarrea batere zapuztu. Gero ahapeka mintzatu zitzaidan:

– Kasua neurea duk, entzun? Hire mutur zikin hori afera honetan sartzen baduk, hilda hago, konforme?

Hau esanik, masailean musu eman eta, zorion-bitsetan legez, aldendu egin zen.

–3–

Hurrengo egunean eskailerak nagiz jaitsi eta Erribera kalean taxia hartu nuen. Mantxolaren ukabilkadaren ondorioz hartutako zartakoa uste baino handiagoa izan zen eta bizkarra apenas zuzen nezakeen. Hamaika eratara saiatu nintzen bizkarra eserlekura moldatzen taxistaren begirada ikusnahi eta mesfidatiaren pean beti ere. Derioko kanposantuaren aurrealdean jaitsi nintzenean, lasaitasun ukitua marraztu zitzaion aurpegian eta ziztu bizian desagertu zen begien bistatik.

Gogotik astindutako alfonbra zahar baten pare sentitzen nintzen hilerriko ate nagusian barna narraski abiatu nintzenean. Giro hitsa zegoen eta okasiorako apropos etorriak ziruditen laino grisek tanta bakan batzuk boteak zituzten ordurako.

Nire aurretik bi atso zihoazen besotik heldu-ta. Hilobi baten parean geratu eta niregan finkatu zuten begirada. Konplizitatezko begiz elkarri begiratu ondoren, eta egundoko azioa bailitzan,

lore-sorta hilobi baten gainetik hartu eta, pittin bat arinago, bideari jarraitu zioten. Urrats batzuk emanik, lore lapurrak burua jiratu eta samurkiro begiratu zidan, errukia aurrena eta onespena ondoren bilatu nahian edo. Nik baiezkoa egin nion buruaz eta berak, erantzunez, sorbaldei goraka eragin zien, errua berea ez baina halabeharrarena izan balitz bezala. Betidanik lelokeria iruditu zait hildakoei loreak jartzeko ohitura. Are, usadio absurdu honi atxikitzeko oinarrizko giza araudia haustea; hala ere bi andre *xahar* haiek bazuten xarmarik beren baitan edo hala begitandu zitzaidan niri behintzat. Ziur nengoen auzoko katutxoei jaten emateko banketxe bat lapurtzeko gauza zirela inongo zalantzarik gabe.

Luze gabe ehorzketa lekura iritsi nintzen. Bide nagusitik berrogeita hamarren bat metrora ari ziren ehorzten, aldi baterako bakarrik izaten diren hilobi merke haietako batean. Ez nintzen gehiegi inguratu. Altzifre baten kontra bizkarra jarri eta zigarroa piztu nuen apaiz potolo eta burusoilak halakoetan ohikoak diren otoitz eta hitz ederrak botatzen zituen bitartean. Itxura batera denak zeuden; baita Mantxola komisarioa ere.

Bera ikusteaz bat eskua masailera eraman eta kokotsa leporaino jaitsiz min imintzioa egin nuen. Julia Pabloren ondoan zegoen, larruzko beroki beltz batez jantzita; biak pega-pega eginda. Louis, muki-zapia eskuan, negar zotinka ari zen. Erabat lur jota zirudien koitaduak. Ondoan Jokin. Erabateko lutozko trajeak dotorezia areagotu egiten zion, eta honi tatxarik gabeko bere planta gaineratzen badiogu, *lord* ingeles baten traza bereganatua zuela esan genezake. Amaia atzean zegoen. Kolore bizietako brusa eta minigona probokatzaile batez jantzita. Behin eta berriz erlojua begiratzen zuen eta bere hazpegi ederretan asperdura ez ezik nazka ere islatzen zitzaizkion. Haiez gain ez zegoen jende asko. Bizpahiru andre *xahar* eta kuxkuxean inguratutako arlote gilbor handi bat. Bazterrean, gehiegi nabarmendu gabe, pisu astunetan txapeldun berria den Mantxola *ukabil latza*, noski.

Nik zigarroa lurrera botatzeaz bat lehen hondar parrastada bota zuten zulora. Bertan alferrik nengoela –hiletak ez ditut sekula gustuko izan, are gutxiago Mantxola aurrez aurre dudala– eta Patxiren tabernara tragoa hartzera joatea eraba-

ki nuen une berean gertatu zen. Amorruz esandako purrustada izan zen, ahots lazgarriaz jaurtikitakoa.

– Behin betirako ustelduko ahal haiz infernuan, kabroi zikina!

Amaiaren ahotsa izan zen. Deblauki atzera jiratu eta ikusi nuen Louis nola oldartzen zitzaion neskari. Bere onetik guztiz aterata zegoen.

– Emaziringa alaena! Horretarako etorri al haiz? Hildakoak ere ezin al ditun bakean utzi?

Louisek sekulako zaplatekoa eman zion neskari eta honek, berriz, paparretik heldu eta Louisen gorputz eskasa bortizki astinduz erantzun zion.

Pablo eta Julia tartean sartu eta biak bereizten saiatu ziren alferrik. Louis bere onetik aterata zegoen, eta kanaberatik zintzilik dagoen amuarrainaren gisa mugitzen zen neskari jarkiz behin eta berriz. Mantxola inguratu zen eta gerritik heldu zion gizontxoari behingoz geratzeko aginduz.

– Lasai motel –esan zion neskak, egoera kontrolpean zegoela ikusita–, laster bilatuko duk beste norbait hi zapaltzen jarraitzeko edo, beste-

la, trenaren azpira botazak hire burua, horrela betirako egongo haiz hire lagun kuttunaren ondoan!

Ustekabean, Louisen gorputz irristakorrak Mantxolari eskuetatik alde egin eta berriz ere jo zuen Juliarengana. Aurpegia gorri-gorri eginda zeukan eta arnas larria zuen. Ihesi zihoan neskari atzetik brusatik heldu eta goitik behera tarratatu zion. Biak lurrera jausi eta borrokari berrekin zioten. Mantxolaren atzapartzarrek Louis lurretik altxa eta sekulako bultzakada eginez, hilobiaren ertzeraino bidali zuen. Ez nuen ondo ikusi une hartan estropezu izan zen ala nahita salto egin zuen hilobiaren barrura; baina bere irudia, hilkutxa besarkatuz negar-zotinka, ez zait berehalakoan ahantziko.

Louis zulotik atera eta lasaitzen ahalegindu nintzen. Amaia handik joan izanak nire lantegian biziki lagundu zidan, egia esan. Ondoren eta ehorzketa burutu arte ez zen aparteko ezer gertatu. Louis belauniko eta burumakur egon zen denbora guztian eta Mantxolak, nire aurretik pasatzean, oso keinu esanguratsua luzatu zidan.

Aspaldi zain neukan tragoa hartzeko tenorea iritsia zela erabaki nuen. Lauzpabost pauso emanak nituen norbaitek bizkarrean txapaka egin zidanean. Julia zen.

– Egoera ederki gaiztotu zaigu! –esan zuen tristeziaz.

Mantxola eta Jokinen artean zegoen Pablo. Mantxolak bere erretolikan harrapatua zeukan; hala ere, behin eta berriz atzera begiratzen zuen, Julia eta biok geunden aldera, alegia. Bere begietan sumindura eta amorrua borborka.

Hilobien artean eskuinetara lerratzen zen bide estu bat hartu genuen eta puska batez paseoan ibili ginen ezer esan gabe. Halako batean, besotik heldu eta, aldapa bat jaitsita, kanpo santuaren alderdi zaharrera eraman ninduen. Bidea, pixka bat zabalduta, panteoi erraldoien artetik galtzen zen; batzuk marmol zurizko etxetxo ikusgarriak ziren, beste batzuk berriz, eta urteen poderioz higatu samarrak egon arren, lehengo xarma bere horretan gordetzen zuten apainduraz lar kargatutako eraikin zahar sendoak.

– Steve hil zuten gauean zarata entzun nuen –esan zuen begiak lurretik altxa gabe–. Ordu

biak inguru izango ziren. Hala ere, ez nion aparteko garrantzirik eman. Badakizu, zurrutero porrokatua zen eta bere *bestaren* jarraipentzat hartu nuen.

Kapera itxura zuen panteoi baten aurrean geratu zen eta bertan, zizelaturik ageri ziren izendeiturak arretaz irakurri ondoren, belauniko jarri eta aitaren egin zuen modu zeremoniatsuan.

– Senitartekorik edo?

– Ez. Hala ere, txikitan frankotan etortzen nintzen hona otoitz egitera. Agian panteoiaren handitasunak erakarrita. Familia honi buruz ikerketak ere egin nituen. Ba al dakizu lurperaturik dagoen familiarteko zaharrena buruzagi karlista izan zela? Fusilatu egin omen zuten. Batzuen arabera, Bilboko setioan desertatu eta etsaietara iritsi nahian harrapatu zuten; beste bertsio batzuek diote liberalen alderdian zegoen bere andrearengana joan nahi zuela. Bukaera tragikoa izan arren, istorioa polita zitekeen: maitasuna gorrotoaren gain jarriz bizia galtzea. Tamalez, azken bertsio hau ez da oso sinesgarria eta ziur asko harrapatutakoan berak asmatutako aitzakia baino ez zen izan.

Grinaz mintzatzen zen, barren-barrenetik atera bezala. Egia esan behar badut horrenbeste hunkitzen zuten kontu haiek bost axola zitzaizkidan niri. Hala ere, atseginez begiratzen nion belauniko zegoela bere ipurdiak hartzen zuen forma biribil lizunari. Panteoi baten eskaileran eseri eta zigarroa piztu nuen; keak Juliaren gorputza une batez lausotu eta gero, berriro ere agertu zen bere ederrean.

Hatzaz ukitu zituen marmolean grabatutako izenak banan-banan. Azkenekoan geratu zen. *Izaskun Baltzategi. 1961-1985.* Ondoan erretratu obalatu ttiki bat haren aurpegiarekin. Ilea argi eta kixkurra zuen eta gehiegizko xalotasuna iradokitzen zuen.

– Izaskunek ere bukaera tragikoa izan zuen –jarraitu zuen, eskua erretratuaren gainetik maitekiro pasatzen zuen bitartean–. Oiz mendiko hegazkin istripuan hil zen. Londresen lanean zihardu en bere senarra, hainbat emakumerekin harremanak zituela eta, akabatu eta bueltan zetorrela gertatu zen ezbeharra. Zoriontsu hil zen eta inbidia ematen dit.

Hitzok eta batez ere bere malkoek hunkitu eta, orobat, erne jarri ninduten. Bere jarrerak harritu egin ninduen zeren eta, hitzak hitz, Julia, zirudienez bestera, ez zen neska txolin sentimentala. Txistua irentsi, zigarroari zurrupada luzea jo eta zain geratu nintzaion.

– Neure helburu bakarra horixe da: eginkizuna beteta bakean hiltzea. Bizitzari ez diot besterik eskatzen eta horretan zure laguntza behar dut, Markos.

Nire adinean emakume eder baten jukutriaz zertxobait gutxienez jakin behar nuen. Jadanik ez nintzen kaka-umea eta zenbait gauza nabarmenegi geratu behar zitzaidan. Juliak, haatik, egiazko jaieraz hitz egiten zidan atzean, antzoki gisa, panteoi handiosa zuela; Akropolitik jauzi egindako kariatidea zirudien.

– Hara panpoxa –eten nion zigarroa airetik bota eta panteoi baten aurrean otoitzean ageri zen aingeru baten irudia bete-betean joz–, dagoeneko tiroketa bat, pare bat astinaldi eta hilketa akusazio bat izan ditut zorioneko kasu hau dela eta. Zainak ematen dit gainera, aurrera jarraituz gero etorkizuna ez dela askoz ere gozoagoa

izango. Diru premia dut baina ez hainbesterainokoa. Han-hemenka badabiltza makina bat detektibe gazte estreinako aukeraren zain. Badakizu, abenturazale inozoak dira, eskarmenturik gabeak, baina arriskua maite dutenak. Lan hau begiak itxita hartuko lukete. Agendan begiratu eta bihar bertan deituko dizut pare bat helbide emateko, konforme?

Julia irribarre batez urrundu zitzaidan. Bazuen neska hark zerbait ni babalorea bezala sentiarazten ninduena eta tamalez berak bazekien, ondotxo jakin ere. Bere kulunka berezi horrekin aldendu zen, alferrikako hitzik bota gabe beste garaipen bat lortu zuelako uste osoan. Begira geratu nintzaion. Julia hilobien paretik pasa ahala hildako bat baino gehiago aztoratuko zela egin nuen neure artean.

–4–

Aspaldiko partez whiskyari aurkitzen ez nion gustu mingotsa ahogozatzen ari nintzen Patxiren tabernan. Telebistan Athleticen futbol partida negargarria zegoen, Real Madriden aurka jokatzen eta huts eta hiru galtzen ari ziren. Athleticeko *lehoiek* baleteko dantzariak ziruditen eta baloia ganoraz ibili beharrean urteko ikuskizun koreografikorik penagarriena eskaintzen ari ziren. Patxi edalontziak garbitzen ari zen hitzik esan gabe. Horrela egiten baitzuen Athletic galtzen ari zenean. Tik baten antzekoa zen; mania xelebrea. Lehendabizi edalontzi zikinak garbitzen zituen eta, denak garbitu ondoren, berriro ere ekiten zion garbitzeari. Lantegi honek partida bukatu arte irauten zuen eta zenbat eta gol gehiago sartu Athletici, orduan eta seta handiagoz garbitzen zuen ontziteria. Bizpahiru minutu faltako ziren partida bukatzeko patrikako telefonoak jo zuenean.

– Bota!

– Amaia naiz. Zurekin hitz egin behar dut lehenbailehen.

Ez zegoen dudarik erabakitzeko tenorea iritsi zitzaidala. Erantzunak garbi askoa izan behar zuen. «Barkatu baina dagoeneko ez nago kasuan sarturik. Sinatze baterako kontratatu ninduten eta hortik aurrerakoa ez da nire kontua. Zorterik handiena opa dizut hala ere».

Taberna hutsa zegoen kasik. Jubilatu batzuek bakarrik zirauten eserita, baina jadanik apenas jartzen zioten arretarik partidari eta kartak partitzen ari ziren. Patxik jo eta ke jarraitzen zuen bere mortifikazio partikularrarekin eta denbora, inoiz baino astunago, txintxeta batez paretatik zintzilik zegoen.

– Ongi da. Helbidea eman eta oraintxe bertan abiatuko naiz.

Oinez abiatu nintzen, presarik gabe. Euri langar setatia etxeen grisari atxiki ostean beheraka irristatzen zen usteldura erauzi ezinik. Kale baten erdian gelditu eta gorantz begiratu nuen burua bustia sentitu arte. Euria gero eta gehiago ari zuen. Ehunka euri tanta lehertzen ziren nire aurpegiaren kontra eta, lehertu ahala, beste

hainbatek hartzen zuten txanda. Leku hura, grisa inoiz baino grisago zegoen huraxe, hain justu ere, aproposena zitekeen bizitzari buruz pentsatzeko; burutazio xelebreren bat botatzeko agian. Euripean. Euri garbitzailearen azpian. Irribarre lerdo batez bisaia desitxuraturik. Ederra panorama!

Helbidera iritsi arte ez nintzen behin ere euritik babestu. Nire gorputza zementuzko geruza batez estalia sumatzen nuen, nire inguruko etxeak bezalaxe. Zementu arre latza, lohiaren paradigma neure baitan bertan. Une llaburregi batez ongixko sentitu nintzen. Ondoren patuaz eta halabeharraz ere hausnarketa egin nuelakoan nago; hala ere, azken kontu hau ez da hain segurua.

Amaiaren kalera heldu nintzenean hutsa zegoen kasik. Obretan zeuden, asfaltatze lanak egiten ari baitziren, baina ez zen langilerik ikusten inguruan. Ziur aski, atertu arte bukatutzat emango zuten zeregina eta ordurako tabernazulotan sartuta egongo ziren, *sol y sombra* bana dastatuz sosak txanpon-makinetan xahutzen.

Lokatzetan plisti-plasta hurbildu nintzen ataririaino. Tipo bat atera zen ataripe batetik eta nire ondotik igaro. Apenas ikusi nion bisaia, gabardinaren hegalarekin estaltzen baitzuen ia osorik; baina bere ibilera pausatuegia zen oharkabe pasatzeko.

Atea jo eta Amaiak berehala zabaldu zidan. Buru-makurtua egin zidan agur gisa edo, eta besotik helduta sala bateraino eraman ninduen pasillo estu batetik barrena. Atalasean geratu ginen biok, hitzik esan gabe, hango nahaspila begiratuz. Ondoren eta nire besoa behin ere askatu gabe, barrura sartu ginen.

Gela guztia hankaz gora zegoen. Hamaika objektu ikusten ziren han-hemenka barreiaturik. Amaiak, amorruz, besoaz bota zituen sofaren gainean zeuden gauza guztiak eta lurrean zegoen botila berdexka hartu zuen; ondoren eta pixka batean lurra miatu eta gero, bi edalontzi ttiki jaso eta bete egin zituen. Sofan eseri ginen biok, edalontziak eskuetan eta isilean. Amaiak hankak sofaren gainera jaso, bi besoez oratu eta, beraietan babesturik, gorputza uzkurtu egin

zuen. Nahasmen izugarri hartan xarma berezia zuen zalantzarik gabe.

– Nazkatuta nago oraintxe, Markos. Neurri batean anabasa honek lasaitu egiten nau, orain bai baitaukate nahi zutena eta behingoz bakean utziko ahal naute!

– Nola gertatu da?

– Bart arratsean lagun batzuen etxera joan nintzen afaltzera. Lo ere bertan egin nuen. Gaur etorri naizenean etxea hankaz gora topatu dut. Formula lapurtu egin dute.

Niki beltz motxa zeraman soinean, zilborra agerian uzten zuena. Mila marradun galtza estuek ondo zaindutako figura areagotzen zioten.

Kokotsetik helduz leunkiro altxatu nion burua begi gorriak eta korritutako rimela azaldu ziren arte. Neure besoetan hartzekotan ere egon nintzen, ilea laztandu eta musuka malkoak zukatu. Ez nintzen ausartu.

– Zainak ematen dit honen guztiaren azpian lapurreta hutsa baino zerbait gehiago badagoela. Hor dago Steverena. Ez dakit zergatik baina uste dut zuek denok zerbait gordetzen duzuela. Zuen larriuneetan kontsolatu eta *maitte maitte*

esaten dizuen tonto pardela besterik ez naizela zuentzat. Oso oker ari al naiz?

– Hara, pare bat gauza esango dizut –deblauki malkoak isurtzeari utzi eta aurpegia zurrundu egin zitzaion–. Ni ez naiz inorekin fio, zurekin ere gehiegi ez. Ez duzu oso azkarra izan behar gure artean gorroto eta tirabirak badaudela asmatzeko, landa etxean tentsioa airean baitzegoen. Juliak halako ondorioak atzeratzeko ordaintzen baldin badizu, negozio ederra egin du horratik!

Leihora hurreratu eta bistadizoa bota nuen kanpo aldera. Kaleak estuagoa zirudien goitik. Burua erruloz josirik zuen emakume lodia parez pare nuen txabusina estanpatu nabarmen batez jantzita; besoak balkoiaren barandan bermatuak zituen eta zigarroa erretzen ari zen. Niri erreparatu bezain laster, bafada bat ke jaurti eta keinu egin zidan; algara egiteari ekin zion. Han, behean, lehengo gizon meharra zegoen kale kantoian, hara eta hona ibilera urdurian zebilela.

Berriz ere sofan jesarri eta puska batez hausnarrean egon eta berehala galdera bota nion:

– Steve hiltzeko arrazoi bat?

Amaiak begiak kliskatu zituen nahasturik bezala. Botilatik bertatik beste zurrutada bat likore hartu zuen.

– Bat bakarra? Biharko egunsentira arte egon ninteke arrazoiak emanez eta ziur asko mordo bat esan gabe geratuko lirateke.

– Momentuz bakar batekin konformatuko naiz.

– Steve matxista amorratua zen. Emakumeok piltzarrak bagina bezala tratatzen gintuen. Neskazale sona zuen eta horretaz harro zegoen putakume hura. Hainbat aldiz denuntziarik jasotakoa zen aldiko neskalaguna gupidagabe jipoitzeagatik... horretaz ere harrotu egiten zen.

– Taldeko inork ba al zuen Steve hiltzeko egiazko motiborik?

– Gauza bat esango dizut, Markos. Steveren hilketa dela eta erabat mindurik daukat barrena, neronek ez nuelako behar hainbat ausardiarik kabroi hura lehenago akabatzeko. Mindurik nago bere heriotzan ez zuelako behar adina sufritu. Mindurik nago dagoeneko bere begietan damua ez diodalako ikusiko...

– Erantzungo al didazu behingoz ala nahiago duzu zure sufrikario partikularrarekin bakarrik geratu? –bota nion nazka-nazka eginda.

– Jokinek, adibidez, arrazoi polita badu; halarik ere ez da bakarra, noski.

– Akaso hona etorri izana ez da erabat alferrikakoa izango. Zain naukazu.

Amaiak berriro ere botila hartu, leihoko argitara eraman, pixka bat astindu eta barruan zuen xirripa beste edalontzi batera isuri zuen. Tragoan hustu eta bigarrenez basoa lurraren kontra apurtzekotan zegoela, eskumuturretik heldu eta kendu egin nion. Bere kapritxoa zapuztu izana ez zitzaion, antza, gehiegi gustatu.

– Trantze larri honetan lagun bat behar nuen ondoan; kontsolatu eta hitz gozoez zer egin nezakeen belarrira xuxurlatuko zidana, eta nor etorri zait ordea? Txakur bat, txakur kuxkuxero madarikatu bat!

– Ongi da. Ahal dudan neurrian lagunduko dizut eta beharbada poema xamurren bat errezitatu ere egingo dizut. Azken finean horrenbesterainokoa ere ez da eta neuk ere badut nire alde

erromantikoa. Baina aurrena Jokini buruzko kontutxo hori entzun nahi nuke.

Amaia zutitu eta urrats batzuk eman zituen. Bere begiek distira berezia ageri zuten. Beronen jatorriari buruz apenas nuen zalantzarik: irentsitako alkohola bere lana egiten ari zen nonbait.

– Ez da kontu segurua, badakizu, jendeak hitz egiten du eta xurrumurruak zabaldu egiten dira. Basamortuan jendeak hitz egin beharra dauka, beroa eta bakardade latza uxatzearren hitz egin...

– Ongi da, nahikoa zuritu duzu jende guztia. Baina jendeak mingaina dantzatzeko zuen arrazoia bost axola zait une honetan. Akaso beste batean basamortuaren latzaz eta lehorraz luze mintzatuko gara eta orduan baliteke poema hura ere errezitatzea, ados? Orain erantzuidazu: zer egin zion Stevek Jokini?

– Andrea kendu zion.

– Jarraitu!

– Stevek aspaldi ezagutu zuen Jokinen andrea eta erromantze sutsua izan omen zuten. Ondoren betikoa. Andreak Steverekin ezkonduko zelakoan dibortzioa eskatu zion Jokini, baita

honek onartu ere. Kontu honek sei bat hilabete iraun zuen. Stevek Bilbon jiran zegoen Kubako baleteko mulata gaztea ezagutu zuen arte, hain justu ere. Bertan bukatu ziren Jokinen andrearekikoak. Gero emakumea desagertu egin zen inongo arrastorik utzi gabe eta harrezkero ez omen da bere berririk izan. Inork ez daki bizirik ala hilda dagoen...

– Jokinek nola hartu zuen?

– Badakizu Jokin nolako lasaikotea den. Ez omen zuen sesiorik egin; hori ez baita bere estiloa. Gertatutakoa irentsi eta, ziur asko, sabelean usteldu egingo zitzaion; baina gizalegeari eta orekari tinko atxikiko zien, noski. Egiazko *gentleman* batek bezala jokatuko zuen orduan ere.

Atea zabaldu eta kanpora atera behar nuen une bertsuan Amaiak dei egin zidan. Bere ahotsa etsigarria zen, zulo beltzean sartu eta atera ezinik dagoen batena. Burua poliki jiratu nuen atzeraka.

– Atera nazazu hemendik!

– Hortaz, jukutriarik ez.

Buruaz ezezkoa esan eta mamu baten gisara jaiki zen. Lauzpabost segundoz zutik egon ondoren, balantzaka hasi eta ziplo erori zen lurrera.

Bere onera etorri zenean antsiaz besarkatu ninduen. Sukaldera nire sorbaldan helduta eraman eta kafeontzian zegoen kafe apurra zerbitzatu nion. Neska, eskuaz ileari atzeraka eusten zion bitartean, kafea hurrupaka edanez hasi zen. Handik laster, neurri batean bederen, berpiztu egin zen.

Sukaldeko balkoira atera eta bistadizoa bota nuen.

– Nor da beheko morroi ñañarro hori?

Amaiak sorbaldak goratu eta ez jakinarena egin zuen.

– Joko garbia, gogoratzen?

Neskak hatz erakuslearen punta pare bat aldiz pasa zuen kikararen ertzetik pentsakor. Adatsa supituan askatu eta burua astindu egin zuen. Itxura batera pixkanaka-pixkanaka bere buruarekiko konfiantza hartzen ari zen.

– Azken egun hauetan gizontxo hori nire itzal bilakatu da. Bere presentzia ditxosozko formularekin lotu dut hasieratik. Baina orain ez dut for-

mularik, ez du zentzurik bertan jarraitzeak. Zer nahi ote du niregandik? Zer egin nezake orain?

– Ederki. Lehendabizi taxi bati deituko diogu; etortzen denean neu jaitsiko naiz aurrena, ondoren zu korrika jaitsi eta lehenbailehen taxian sartu.

Telefonoa hartu eta markatu egin nuen. Bitartean, paper puska batean helbidea idatzi eta Amaiari luzatu nion.

– Ostatu honetan lasai egongo zara. Bihar hots egingo dizut.

Luze gabe taxia iritsi eta, esan bezala, aurrena izan nintzen jaisten. Atalondotik irten bezain laster gizon ttikittoak nigan tinkatu zituen begiak; urduritasunez zerbait murtxikatzen zuen, ahoa nabarmenki ireki eta itxiz. Kale ertzeraino iritsi eta esperoan gelditu nintzen, eskuak poltsikoan morroiari begirik kendu gabe. Honek urduritasuna areagotu zion, antza. Hara eta hona hasi baitzen ibiltzen taxiaren ingurutik, taxistari eta niri mesfidantzaz begiratuz behin eta berriz.

Orduan, ziztu bizian, Amaia ataritik irten eta itsumustuka sartu zen taxian. Gizontxoak korrikari eman zion eta atalondotik gertu aparkatua

zegoen Fiat urdin batean sartu zen. Mantso, presarik gabe inguratu nintzaion. Artean ere ateratzeko maniobrak egiten ari zelarik, eskuaz irmoki heldu nion bolanteari. Une horretan taxia kaletik atera, eskuinetara hartu eta bistatik galdu zen.

– Eguraldi zoragarri honekin inora joateko asmorik bai, txikito? Nik hire tokian banengo pentsatu egingo nikek.

Gizonak atzeraka bultzatu eta maniobrak egiteari berrekin zion. Tipo heldua zen, beren eskasagatik diren baino gazteago diruditen haietako bat. Sudur-hegalak amorruz astintzen zituen eta lokiko zainak lehertzear zituen. Bolanteari zakarki eragiten zion albait arinen kotxea atera nahian. Berriro ere hurreratu eta paparretik heldu nion alde batetik bestera bortizki astinduz. Tipoa zeharo atera zen bere onetik. Ahal bezala berriz ere bolanteari oratu eta, azeleragailuari itsumustuka eraginez, aurreko kotxeari egundoko zartada jo eta intermitentea txiki-txiki eginez, lortu zuen kamiora ateratzea. Ni, paparretik askatu gabe, korrika hasi nintzen bere paretik ko-

txearen kontrola galaraz nahian. Une hartan automobila moteldu eta geratu egin zuen.

– Ederki motel. Orain hitz-aspertu bat egingo diagu guk biok aurrez aurre –bota nion, lortutako garaipenak eman zidan poza gorde ezinean.

Ñañarroak ez zuen hitz erditxorik ere esan eta burumakur egon zen lipar batez. Segidan, burua poliki-poliki jiratu zuen niregana. Orduan, mugimendu azkar batez, zamarrako patrikatik pistola atera eta kokospean ezarri zidan indarrez. Ondoren, leihoko kristala itxi zuen, nire burua lepoaren paretik kotxearen barruan harrapatuz. Beste behin ere irribarre egin zuen. Kotxea martxan jarri eta gogotik kalkatu zion azeleragailuari. Hasieran, ahal bezala, korrika egin nuen; baina kotxearen abiadura handiegia izan eta, arrastaka eraman ninduen kalean zehar. Kalea bukatzear zegoela, egundoko muturrekoa jo, leihoa zabaldu eta askatu egin ninduen. Astun jausi nintzen lurrera. Odola borborka isurtzen nuen sudurretik eta sekulako kaskarrekoa hartuta neukan. Berehala nola edo hala zutik jarri eta pauso baldar batzuk eman nituen erdi

balantzaka. Gero ikusmena lausotu eta konorte-
rik gabe blaust jausi nintzen.

–5–

Ospitaleko larrialdietatik atera nintzenean ez nintzen etxera joan. Bilboko zentrotik irten eta ezker aldera abiatu nintzen mantsoki, kasuaz eta batez ere nire buruaz hausnartu nahian. Behelaino trinkoak bazter guztiak mende harturik zeuzkan. Sudurra hautsita nuen eta mina lasaigarriei esker kontrolpean bazegoen ere, banekien hauen efektua pasa bezain pronto berriro ere jasangaitza bilakatuko zela. Begitartea bisonte baten apatxak zapalduta legez sentitzen nuen, eta hezurretako mina urrats bakoitzeko areagotu egiten zen. Mina onartu egiten nuen. Penitentzia gisara onesten nuen, ondo merezitako zigor bezala: neure ergeltasuna zela eta ez bainuen besterik merezi.

Hirigunetik atera ahala, lantegi zaharren hezurdura behe-lainoan zirriborratzen hasi zen, egiazko mamu ikaragarria bailitzan. Han, urrutian, artean ere martxan zeuden lantegi bakanek sortzen zuten zarata lazgarria soinu egokiena zen nire begi aurrean zabaltzen zen film beldur-

garrirako. Neu ere lainotan sarturik, beste hezurdura bat gehiago sentitzen nintzen, agian denetatik patetikoena.

Kasuan sartu nintzenetik batere atarramentu onik ez nuen izan, eta okerrena zen afera lehen baino askoz ere nahaspilatuago zegoela. Ez nuen aurrerapausorik egin batere. Gainera, Polizia lanean ari zen eta, akaso, ordurako ikerketak aurreratu samartuta edukiko zituen, munduko mozoloena nintzentxo hau edonork egurtu eta zanpatu egiten zuen bitartean.

Oihukatu nahi nuen, eztarria guztiz urratu arte orro egin. Itzala baizik ez nintzen eta argiitzalen eremu mortua zen niri zegokidana. Bertan geratu behar nuen betirako alderrai.

Garrasia entzun nuen laino tartetik. Txundituirik tentuz inguratu nintzen, bi besoak luzatuta. Bai, norbait zegoen nire aurrean. Bihotza taupadaka nuen lehertu beharrean, korrika hasi nintzen aurreraka. Gorputz guztia langarraz blaituirik neukan eta itsumustuka urratzen nuen behelainoa. Supituki zerbaitekin jo eta atzeraka erori nintzen lurrean eserita geratuz. Jo eta ma geldi-tu nintzen. Astoa zen hor, laino tartean, ni usna-

ka ari zena. Barrez hasi nintzen lehertu beharrean; pare bat segundoko kontua baino ez zen izan: lasaigarrien efektua pasatzen hasia zen eta aurpegiaren erdi-erdian aizkora sartuta baneuka bezala erasan zidan minak.

–6–

Gau hartan, ordu txikitan, telefonoak esnatu ninduen. Gorputza lurrari atxikia sentitzen nuen eta pare bat aldiz behaztopatu eta erortzekotan egon nintzen telefonoa zegoen tokira iritsi arte. Telefonoaren beste aldean Juliaren ahots urduria entzun nuenean, apur bat suspertu egin nintzen.

Mezua motza eta zehatza izan zen. Pablo mozkor-mozkor eginda harrapatu zuten autopistan eta laguntzeko eskatzen zidan. «Komisaldegira joan eta lagundu. Zuk ondo ezagutzen dituzu komisaldegietako saltsak eta katramilak eta jakingo duzu zer egin. Mesede pertsonal gisa eskatzen dizut. Fidantzarik edo ordaindu beharko balitz nire kontu; baina ez dezala jakin neuk ordainduko dudala, ez bailuke onartuko. Badakit ez didazula huts egingo...».

Kafe bero baten aurrean eseri nintzen. Ez nuen inongo gogorik komisaldegira joateko, gainera zertarako eta mozkor baten kargu egiteko. Agian Mantxola ere ez zen urruti ibiliko eta une hartan nengoen egoeran, ez nintzen gai izango

bere sesio haietako bat jasateko. Bestalde, ez nekien Pablok nola hartuko ninduen; ez baitzitzaion gustatuko kanposantuan Juliak eta biok elkarrekin alde egin izana. Logelara itzuli eta jantzi egin nintzen. Iratzargailuak goizeko laurak eta laurden markatzen zituen.

Bostak inguru ziren komisaldegira iritsi nintzenean. Zaindariaren aurrean identifikatu eta barrura sartu nintzen. Aurrera egin ahala kafe eta tabako usaina gero eta nabarmenagoa zen, hormak, berriz, inoiz baino grisagoak iruditu zitzaizkidan. Harreran ile zuri eta kartoi zimurtuzko aurpegia zuen poliziak tibetar monje baten pazientziaz entzun zidan; ondoren pixka bat itxaroteko esan eta bulego batera sartu zen. Atera zenean lasai esertzeko esan zidan, komisarioa laster egongo zela nirekin.

Aulkian eseri, bizkarra atzealdearen kontra jarri eta loak hartu ninduen.

Oihu batzuek atera ninduten lozorrotik. Gizon ttiki potolo bat builaka eta espantuka ari zen, trajez jantzitako tipo mehar luzexka ondoan zuela.

– Hiltzaile kabroi horrek bizitza guztirako kartzela merezi du, ez besterik. Baina zuekin ikusita dago, zuek bezalako poliziekin jai dugu!

Polizia luzexkak besoa lepoaren jiran paratu eta ateraino lagundu zuen, belarrira zerbait xuxurlatuz lasaitzen ahalegintzen zen bitartean.

Orduan beste ate bat zabaldu eta Pablo irten zen. Hasiera batean ez nuen ezagutu ere egin. Bi egunetako bizarra zeukan eta begi-zulo ikaragarriak; alkandora galtzetatik kanpoan eta erabat zikin eta urratua. Burumakur eta herrenka zebilen. Nire ondotik pasa arren ez zuen nigan erreparatu, ardo usain sarkorra zerion. Potoloak atera behar zuen unean Pablo ikusi eta, bere onetik aterata, oldartu egin zitzaion:

– Putakume alua! Potro-ustel madarikatua besterik ez haizen hori! Jo eta akabatu egingo haut betirako!

Bere pisuari ez zegokion zalutasunez, jauzi batean Pabloren aurrean jarri eta egundoko ukabilkada jo zion sabelean. Pablori belaunak malgutu eta emeki abaildu zen, ia-ia buruarekin lurra jo arte. Bere ondoan zegoen tipoak paparretik eutsi erasotzaileari eta, bultzaka, bulego

batean sartu zuen. Nik Pablori lagundu nion altxatzen. Zinez traza narrasa zuen. Aulki batean eserarazi eta zaplada batzuk eman nizkion bizkarrean animatu nahian. Pablo burumakur eta eztulka ari zen eta une batez goragalea etorri zitzaion. Gero buruari bi eskuez eutsi eta pittin bat bederen lasaitu egin zen. Handik laster tipo segaila berriz atera eta berarekin joateko keinu egin zidan.

– Muro komisarioa naiz. Bere laguna omen zara...

– Bai, ezaguna dut. Komisaldegian zegoela jakin eta laguntzera etorri natzaio. Azken aldi honetan trantze larria pasatzen ari da, familia kontuak eta... badakizu, tentsio handiak.

Komisarioak jakin-minez begiratzen zidan, bigarrenez ahalegindu zen aurpegiaren zurruna leuntzen, alferrik. Garbi zegoen ez zidala ezertxo ere sinesten, baina nik ezin nuen besterik egin.

– Zerk bultzatu duen total eginda gidatzera bost axola niri. Batzuek edaten dute atsekabeak ahantzi nahian eta beste batzuek denbora pasan edo Athleticek irabazi duela ospatzeko. Niri ez didate ordaintzen jendeaz urrikaltzeko edo arra-

zoiak ulertzeko. Ez naiz psikiatra, polizia baizik; alproja horrengatik izan ez balitz aspaldi etxean lo egongo zen polizia arrunta ez besterik. Salaketa jarrita dago. Epaiketa egingo diote eta gidatzeko baimena ostera ere eskuratzen duenerako, kotxe bat zer den ere ahaztuta edukiko du.

– Ongi da. Berarekin bukatu baduzue etxera eraman nahi nuke kasu hauetan ohikoa dena egin dezan: kafe kargatu bat edan, dutxa hotza hartu eta bihar arte lo egin. Bihar ez du egun gozorik izango.

Komisarioak erlojuari begiratu eta baiezkoa egin zidan buruaz. Argi zegoen lehenbailehen etxera joateko gogoa zuela.

– Kuriositate bat –esan nion bulegotik ateratzear nengoela–, nor zen oldartu zaion tipo hura?

– A-8 autopistatik inor kontrako bidetik etortzen bazaizu, mozkortuta eta argirik gabe, eta saihesteko maniobra desesperatuan zure automobil erosi berrian ezponda batera amiltzen bazara, normala da bertsotan egiteko moduan ez egotea, ez al duzu uste?

Komisaldegitik atera eta ikusi genuen lehenengo taberna irekian sartu ginen. Barruan lan-

gile batzuk zeuden kafea eta kopa hartzen. Paretari erantsita zegoen telebista handi batean film pornografikoa eskaintzen ari ziren. Barraren kontra zeuden gehienek noizbehinka bakarrik –plazerezko txilioak areagotzen zirenean– begiratzen zuten zeharka telebistara; beste bi, berriz, aurre aurrean zeuden eserita begira, barre antzean.

Kafe huts bana eskatu eta eseri egin ginen. Pablok, burua altxatu gabe, kafea hurrupaka edateari ekin zion

– Zergatik egin duk Pablo?

– Hil nahi nian behingoz, denarekin bukatu. Une hartan ez zitzaidaan era hoberik bururatu. Agian ez zuan nik uste bezain eraginkorra gertatu. Huts galanta inondik ere.

– Urduri egotea normala duk, motel. Denok antzera gabiltzak. Hala ere ez zaiguk bururatzen holakorik egitea.

– Hoa popatik hartzera!

Ez ninduen ustekabean harrapatu Pabloren erantzunak; espero nuen holakorik. Seinale ona ere bazen: bere onera itzultzen ari zen seinale.

Gero alde egiteko asmoz altxatu zen; baina lauzpabost urrats eginik balantzaka hasi eta ba-

rrari heldu izan behar zion. Ni inguratu, besotik eutsi eta berriz ere esertzen lagundu nion.

– Pittin bat lagunduko bahit sikiera dena erra-zago izango lukek.

– Nik martxa diat hemendik, aditu? Ez zeu-kaat hire aholku eder horien beharrik.

– Hara Pablo, nazkatu nauk oraintxe! Goizeko ordu txikitan jaiki beharra ez duk gozoa izaten, eta mozkor bati laguntzeagatik baldin bada go-ragalea ematen zidak, eta mozkor babalasto ho-rrek zakarkeriaz jokatzen badu, orduan adiskide, nire onetik ateratzeko arriskua zagok!

– Hoa popatik har...

Ez zuen bukatzeko astirik izan. Paparretik heldu eta astindu bortitzak eman ondoren ukabi-la sudurraren kontra paratu nion.

– Begira motel, ez nagok hemen denbora al-ferrik galtzeko kaka pila batekin. Izen bat. Izen bat behar diat eta taxia hartuta etxean utziko haut. Bestela jai daukak.

Pablok eskuez igurtzi zuen aurpegia. Ondo-ren buruari eragin zion baiezkoa adierazi nahian; amore eman zuen antza.

– Amaia.

– Amaia?

– Neska horrek sekretu gehiegi gordetzen dizkik, ez duk dirudiena, hortaz seguru nagok.

Paketea atera eta zigarroa luzatu nion, berak esku dardartiz hartu eta baldarki ipini zuen ezpainetan.

– Zein dira sekretu horiek, Pablo?

– Tira, ez duk ezer segurua... badakik, susmoak baino ez. Deus gutxi...

– Zain naukak.

Pablok burua makurtu eta ahapeka bezala hizketan jarraitu zuen.

– Amaia ikasle modura joan zuan kanpamentura, baina beti diru mordoa eramaten zian aldean. Nola liteke bekadun ikasle batek hainbeste diru edukitzea?

Dudarik gabe oso datu interesgarria zitekeen. Hala ere ez nekien nola lotu kasuarekin.

– Ongi. *Sekretu* gehiago entzuteko irrikan nagok.

– Hik bilatu duan arrazoia emango diat orain-txe. Gure Steve Amaia bortxatzen ahalegindu zuan.

Jo eta ma gelditu nintzen!

Belarrira inguratu eta ahots zakarrez, ahapeka kasik, jarraitu egin zuen:

– Udaberrian izan zuan. Bertakoek udaberriaren etorrera handikiro ospatzeko ohitura ditek. Kanpamentuko laguntzaile afganiarrek festarako baimena eskatu eta baita gure Xaharrak eman ere. Izugarria izan zuan! Konturatu orduko hango ardoaz burua galdu eta dantzan gintuan hangoekin batera. Lehendabizi Amaia erretiratu zuan. Hainbeste edan izanak buruko mina eragin eta lotara zihoala barrakoira. Stevek atzetik jarraituko zioan, baina inortxo ere ez zuan konturatu. Gu denok musika ozenaren pean dantzarekin bat eginik baikeunden erabateko estasian sarturik. Handik ordu laurden batera edo Amaia azaldu zitzaiguan. Bere egoera zinez tamalgarria zuan. Alkandora zirtzildua zian eta hainbat kolpe nabari aurpegian. Bere onetik aterata zegoan. Hitzik egiteko gauza ez zela, bost bat minutuz negar batean egon ondoan, Steve bortxatzen saiatu zela esan zian.

– Orduan Steve agertu zuan. Ez diat behin ere orduko bere itxura ahantziko! Mamu baten gisara hurbildu zuan guregana: hankak astun

irristatzen lur gainetik, balantzaka kasik. Aurpegia amorruz desitxuratua zuen eta odol arrasto nabarmena zuen kopetatik behera. Orduan, besoa luzatu eta hatzaz neska gajoa seinalatuz, bera probokatu izana leporatu zioan. Haren amarrua besterik ez zela izan jende guztiaren aurrean lotsagarri uzteko, haren amodiozko proposamenei muzin egin zielako jukutria, mendeku zikina baizik ez zela izan. Harrezkero Amaiaren jarrera gureganako erabat aldatu zuan. Uzkur eta goibel ibiltzen zuan eta bere begiek gorrotoa besterik ez zitean adierazten. Ordu luzez bakarrik ibiltzen zuan eta gauez bere negar eutsi ezina zinez erdiragarri gertatzen zitzaiguan.

Keinu egin nion. Aulkitik jaiki eta beste kafe pare bat eskatzera joan nintzen. Kontatzen ari zen guztia ezin nuen aise mamitu, denbora behar nuen; hala ere kontaketa bat zetorren Amaiaren barne egoerarekin, horretaz ez zegoen zalantzarik. Kafeak barraren gainean zeudela Pablori begiratu nion. Nire zain zegoen. Barrena hustea erabaki zuen eta ez zen lasaituko zikinkeria guztia bota arte. Nik banekien gehiago bazegoela

Lehenengo aldiz nire presentziak sosegu pittin bat eman ziola iruditu zitzaidan. Begiak itxi eta alkandorako poltsikoa miatuta zigarro zimurtu bat eskuratu eta ahoan paratu zuen. Metxeroaren bila hasi zenean, aurreratu eta zigarroa piztu egin nion.

– Gehiago ere bazagok! –esan zuen botatako ke bafadan babestu legez.

– Ez esan?

– Berak saldu egin gintian!

– Saldu?

– Zera, berak esan ziela tadjikei guri erasotzeko; berak eman ziela gure berri alegia, edo formularena...

– Jende horrekin tratu egin zuela esan nahi duk?

– Bortxaketa saiaketa gertatu ondoren maiz ibiltzen zuan bakarrik, bere kasa. Kabulera ere joan-etorri ugari egiten zitian. Talibanen aurkako zenbait jenderekin biltzen zuan. Gerora ulertu nian zertan ari zen, beranduegi ordea...

– Nola izan huen kontaktu horien berri?

– Kanpamentuko afganistandar laguntzaileek esanda. Xaharra ere jakinaren gainean jarri nian

baina ez zioan garrantzirik eman kontu honi; zera, jasandako inpresio latzari egotzi zioan bere jarrera susmagarria.

– Mendekua beraz?

– Nire ustez bortxaketa saiaketaren konplizetzat hartu gintian eta gu denok garbitzeko tratua egin zian basati haiekin.

– Badu logikarik! Bere planak huts egitean jasandako laidoaren erantzule nagusia hil egiten dik. Kanposantuan erakutsitako jarrerak hipotesia baieztatu egingo likek...

– Hala ere, oraindik gauza asko ilun zeudek. Adibidez, zer agindu zien tadjikei zuek denak hiltzearen truke? Egiaz hura al zen bere benetakoa asmoa?

–7–

Egun hartan berandu jaiki nintzen. Bezperan Patxiren tabernan egon nintzen goizeko ordu txikiak arte hizketan. Eztabaidagaia zein izan zen ere ez dut orain gogoan. Sekulako burukominarekin jaiki nintzela bai; mihia legarra baino lehorragoa nuela ere bai.

Jaiki bezain laster hozkailua zabaldu eta letxuga hosto zimel batzuk eta arrautza bakarra zeuden. Arrautza frijitzen jarri eta bitartean burua dutxako txorrotapean sartu nuen. Bazirudien ur hotzak burmuinak erdibitu behar zizkidala baina minutu erdi batez gogor eutsi nuen dutxapean.

Ilea tantaka nuela berriz sukaldean sartu, irratia piztu eta arrautza ziztrin haren gainetik olioa botatzeari ekin nion. Ogi zahar pusketa hartu eta esertzea egin nuen ahots lodi eta astuneko lokutorea eguneko berriei errepaso ematen hasi zenean.

Ez zen aurreneko berria izan. Hiru edo laugarren esango zuen sor eta lor utzi ninduen hura.

Baiki, erabat ustekabean harrapatu ninduen. Tenedorea lurrera erori eta mastekatzeari utzi nion. Gorputz eta burua inoiz baino sorgortuago sentitzen nituen. Goragale eta zorabioaren arteko sentsazio zehaztugabe batez etxeko eskailerak binaka jaitsi eta kotxea hartu nuen. Martxan zegoela bi aldiz pentsatu nuen abiatzea, komisaldegian zer izango nuen zain bai bainekien ederki asko; hala ere, eta itxurazko arrazoirik aurkitu gabe, nire eginbeharra horixe zela erabaki eta abiatu egin nintzen.

Komisaldegira bidean artean mamitu gabe nuen berriak zentzu arrastoren bat ba ote zuen pentsatzen aritu nintzen. Azken finean kasuak berak logikarik bazuenetz duda egiten nuen. Ustezko lorratza aurkitu eta teoriaren bat ondorioztatzen nuen bakoitzean, dena hankaz gora jartzen zuen zerbait gertatzen baitzen.

Komisaldegira iritsi nintzenean eguzki laru batek nekez argitzen zuen laino lodikoteen artetik. Konturatu nintzenerako harrerako poliziarekin hizketan nengoen, Mantxolaz galdezka. Poliziak, ohi bezala, esertzeko esan zidan. Gela baz-

terreko aulki luze batean eseri eta begiak itxi egin nituen.

Ez dakit zenbat denbora pasa zen berriz ere begiak ireki nituenerako; baina Mantxola komisarioa bertan zegoen. Ni han egongo ez banintz bezala jokatzen zuen; erabat lanpetuta zirudien eta, etengabean, sartu eta atera egiten zen folio mordo bat eskuan; gorbataren korapiloa guztiz zabalduta zeukan eta mahuka hutsik zebilen.

Luze gabe, Mantxola harrera-lekura berriro ere atera zen batean, harrerako poliziari zerbait xuxurlatu eta komisarioa beste behin ere amaigabeko korridoreen labirintoan galdu zen. Handik hamar bat minutura harrerako polizia niregana inguratu eta errenkada infinitua osatzen zuten ate gris haietako batera eraman ninduen. Mantxola nire zain zegoen.

Harrigarria bazen ere ez zirudien haserreturik, alderantziz, ni sartu bezain laster, edukazio handiz, esertzeko eskatu zidan. Ondoren, galaniatsu desenkusatu eta mahai gaineko folioak artxibategi batean gorde zituen. Berriz eseri, hatzak mahai gainetik pasa eta bekozko nabarmena ipini zuen.

– Hik esango duk, motel –esan zidan bestela bezala.

– Jokinen egoeraren berri jakitera etorri naiz.

– Zer dela eta eman behar diat hiri informaziorik?

– Gertakarien berri izateko eskubidea dut. Jokin laguna dut; baita Louis ere...

– Komunikabideek emandako informazioarekin konformatu beharko duk oraingoz, txikito. Jokinek Louis akabatu dik; ihesean zihoala gure patruila batek harrapatu zian, in fraganti kasik. Steveren hilketa ere berak burutu ote zuen ikertzen ari gaituk, kitto. Txitxarro ederra harrapatu diagu!

– Frogarik ba al duzue?

– Jokinek Louisi tiro bota zionean polizi patruilak tiro hotsa entzun eta istant batean bertaratu zen. Beldurrak kakalarri zebilen doktorearekin sostean egin zuten topo. Denbora kontua duk.

– Inork ikusi al zuen tiro egiten?

– Eta zer axola du horrek? Leku bakartia zuan, Bilboko aldirietan. Leku haietan gaizkileak eta jendilajea baino ez dituk ibiltzen; zer pentsatu behar diat, biak kasualitatez topatu eta absti-

nentzia sindromepean zegoen drogadikto batek Louis atrakatu eta garbitu egin zuela? Lehenago sinetsiko nikek txano gorritxorekin!

– Arrazoiren bat egon behar du, agian hau guztia amarrua baino ez da. Zer esan du berak?

– Ebidentzia ukatzen tematu duk. Bere bertsioa kontraesanez josita zagok eta epaiketa batean ez likek bost minutu ere iraungo. Potroetatik helduta zeukaagu eta ez zioagu hanka egiten utziko. Hori berak ere badaki!

Itxura batera lehengo poza berriro ere bereganatu egin zuen. Bi eskuak garondoan ipini eta bere gorputz mardula atzeraka bota zuen era traketsean; ezpain ertzak pittin bat luzaturik niri begira geratu zen, basurde bota berria oinpean duela erretratuan ateratzen den ehiztariaren traza ahaltsu eta harroxko berberaz.

– Kontraesanez jositako bertsio hura jakin nahi nuke.

– Aizak, hirekin dagoeneko nazkatzen hasia nauk. Jokin laguna duan aldetik haren berri jakin nahi huen. Ondo zagok! Garbi asko erantzun diat: goitik behera kakaztua zagok. Orain mutil

zintzoa izan eta utzi iezaiok legearen zerbitzari umil honi lasai lan egiten, konforme?

Mantxola zutitu eta bi zutaberen pare ziren beso gihartsuez bermatu zen mahaiaren gainean; edozein unetan jauzi egin behar zuen basapiztia baten traza hartu zuen guztiz.

Poliki zutitu eta bulegoko atea zabaldu nuen. Bere behakoa garunetan iltzatuta sentitzen nuen uneoro. Irten aurretik azken aholkua luzatu zidan:

– Kasua bukatua zagok. Hiltzailea harrapatu diagu eta azken xehetasunak argitzea baino ez zaiguk falta. Bazekiat zintzo ahalegindu haizela eta estimatzen diat, zinez. Nik batzuetan zakar jokatzen diat; tamalez dagoeneko zaharregia nauk akatsak zuzentzeko. Desenkusatzea ere alferrik izango duk, baina azalpen bat zor nian. Lasai, lan faltarik ez duk izango, beti izango dituk eta senar desleialak.

Paternaltasun eta sarkasmoaren arteko hitz horiek bere probokazio jokoan sartzen ziren dudarik gabe. Ez nuen atzera begiratu behar satisfazioak gozatutako bere aurpegi irribarretsua ikusteko. Irteera aldera jo nuen pauso azkarrez,

leku hura, unean baino unean, itogarriago gertatzen baitzitzaidan.

Harrera-lekuan traje ilun batez gizon bat zegoen zain. Bibote mardul zurixka bat zetorren bere bekain usuekin. Goitik behera tatxarik gabe jantzita zegoen: gorbata urrezko orratzarekin eutsita, trajeko poltsikoan sudurzapia hiru puntaz apailatua, mahuka-bikiak –urrezkoak hauek ere– eta italiar diseinuko galtzak. Lurrean, bere ondoan, larru beltzezko maletina zuen. Irteerako atearen alartzean nengoela, Mantxola berriro ere azaldu eta berarengan batere ohikoa ez zen gizabiderik handienaz trajedun gizonari eskua eman eta, bizkarrean zapladak ematen zizkion bitartean, bere bulego aldera eraman zuen.

Behin kalean pentsakor geratu nintzen. Komisaldegiko eskailerak jaistea egin nuen izen bat ezpainetara etorri zitzaidanean: Imanol Rekalde!

KUTEHARI

Kutehari: *Zuhamuxka ttikia (hamabost zentimetrotik hogeira bitartekoa). Adaska malgu, leun eta gorantz zutituak. Sor berriko hostoek kolore nabarra dute puntetan, denboraren poderioz ilunduko dena. Lore ttipi eta bisexualak, ohiki berdexkak izaten direlarik. Neurrizko dositan, behazun jariorako erabil litezke.*

–1–

Biharamun goizean Louisen hiletetan ez zen deus aipagarririk gertatu; akaso, zenbait lagunen ez egote nabarmena zatekeen azpimarratzeko moduko kontu bakarra. Izan ere, bertan ez zeuden ez Amaia –honek hagitz justifikatua zukeen azaldu ez izana, Louisekiko azken liskarra kontuan harturik–, ez Jokin –begi-bistakoak ziren arrazoiengatik–, ezta gure komisario jauna ere –buru-belarri ariko baitzen Jokini sinesgarritasun izpirik izango zuen aitorpena aterarazteko ahaleginetan–.

Hileta xume eta sentituak izan ziren; Louis nolakoa zen jakinda, ezin baitzitekeen bestela izan: barnean nekez eutsitako hunkipen mingotsa; kanpoan, berriz, malko eta bisaia desitxuratu ugari. Amorrua eta harridura airean zeuden.

Pablok eguzkitako antiojo beltzak jantzita zeuzkan eta irmoki heltzen zion Juliari besotik; burua aurreraka eroria zuen eta etsiak harturik zirudien erabat. Juliak planta hobea zuen inondik ere; burua tente eta begia zorrotz. Soineko beltz

batek estu-estuan tailatzen zizkion bere gorputzaren forma sentsual haiek guztiak. Ederra atsoa, bai horixe!

Juliarengana hurbildu nintzenean Pablok bere soinaren kontra estutu zuen pittin bat, neuk antzemateko hainbat. Pablok, bere abailduran tinko eman nahian edo, burua harrotu egin zuen. Efektua erabat kontrakoa izan zen ordea: bere aurpegiko akidura arrasto nabarmenak agerian uzteko baino ez baitzion balio izan. Hirurak kanposantuko bidezidor bihurrituan barna abiatu ginen irteerako aterantz. Bide gehiena isilik egin genuen, begirada lurrean tinkaturik genuela, hitzik xumeena ere soberan bailitzan.

Bat-batean Julia geratu eta, hatz erakuslea nire aurpegiaren pare –jotzeraino kasik– astinduz, lehertu egin zen. Bere baitan gordetako saminak gainezka egin zion eta altzairuzko geruza garrazki zartatu zitzaion. Hitzak malkoekin bat jalkitzen zitzaizkion eutsi ezinezko jarioan:

– Sasikumeren bat ederki ari da jolasten gurekin! Ez al zara konturatzen? Gu txotxongiloak baino ez gara; kabroi hori aldez aurretik idatzita-

ko antzezlan makabroa gu antzezaraziz hortxe dabil, ederki gozatuz, harietatik tira eta tira!

Pablok guztiz bereganatu zuen neska eta eskuaz gerritik heltzen zion bitartean, besteaz ilea xamurkiro laztantzeari ekin zion, entzuten ez nituen hitzak belarrira murmurikatuz.

– Berandu baino lehen hutsen bat egingo du, bere ustezko segurantzian irrist ñimiño bat baino ez akaso. Nahikoa izango da hori... –jaurti nuen Julia lasaitu nahian, hitz bat bera ere entzuten zidanetz oso seguru ez nengoen arren.

– Kontu hau urrunegi iritsi da –esan zuen Pablok ia entzungaitza zen ahotsez–. Hobe genuke denok formula malapartatu hura poliziaren esku jartzea eta kitto! Nahi dutena egin dezatela berarekin. Hartara gure burua bederen salbatu egingo genuke agian...

– Agian –azpimarratu nuen nik.

– Eta zer egin behar diagu? Besoak gurutzaturik gure txandaren zain egon? –Pablok urduri antzean.

– Jokinek ez du Louis hil, ezinezkoa da! –ebatzi zuen Juliak.

– Itxura batera, zeu zara ideiak garbi dituen bakarra –esan nion bestela bezala–. Horregatik bidali diozu Bilboko abokaturik ospetsu eta garestiena?

Baieztapenak, nonbait, arras nahastu zuen neska; begiak kliskatu eta desafiozko behakoa luzatu zidan. Ondoren, eta arnasaldi baten tarte laburraz bere buruaren jabe eginik berriro, irribarre lasai nabarmena eskaini zidan.

– Neure esku dauden bitartekoak oro baliatuko ditut afera honekin behar bezala bukatzeko. Fideltasuna jokoan dago. Gure aita zenarekiko fideltasuna aurrena, nire buruarekikoa hurrena. Ba al dakizu horretaz ezer Markos jauna?

Pablok artean ere irmoki estutzen zion Juliari gerritik baina bere gorputzak lasaituago zirudien, lehengo zurruntasunetik hagitz urrundua; bekozko zimurtua ageri zuen, sakon hausnarrean egoten denaren trazak erakutsiz.

Kanposantutik irten eta taxi geltokian geratu ginen. Hutsa zegoen. Bertan Juliak behin bakarrik begiratu zidan begietara, baina nahikoa izan zen berak adierazi nahi zuena nireganatzeko. Horixe zuen berezi neska hark. Betikara batek

baino gehiago iraungo ez zuen begirada iheskor bat aski zuen bere barrena husteko, irmotasunez jantziriko azala zulatu eta inork eutsiko ez liokeen itxura ahul, goxo eta errukarria agerian uzteko. Beste behin ere bere helburua lorturik zuen.

Taxi bat ikusi zen urrun samar, hilerri aldera zetorren baina geratzeko intentzio handirik gabe. Pablo, jauzi bizkor batez, errepidearen erdian paratu eta besoak nabarmenki astindu zituen taxistaren arreta bereganatzeko asmoz. Nik aukera aprobetxatu nuen Juliari hitz batzuk xuxurlatzeko:

– Mesede bat eskatu behar dizut Julia!

Emakumea harrituta zegoen; haatik, berehala buruaz baiezkoa egin zidan. Masail banatan ordu arte behin ere ikusi ez nizkion bi zulotxok azken ukitua ematen zioten aurpegi irriberari.

– Kasuarekin jarraitzeko ezinbestekoa dut Louisen hilketaren inguruko ahalik eta daturik gehien jakitea...

– Eta polizi iturriak arrunt itxiak izango dituzu, jakina. Baina ez dut ulertzen neuk zertan lagun zintzakedan.

– Zuk kontratatutako abokatuaz ari naiz, badakizu, Imanol Rekaldez.

Juliak buru mugimendu azkar batez baietza eman zidan. Pablo berriz ere guregana inguratu zen. Taxia geratu ez zela eta, amorrarazia zirudien. Ahapeka kexu jarioan hasi berria zegoela, begi keinuz agurtu eta oinez urrundu nintzen. Etxera baino lehen Patxiren tabernatik pasako nintzen: ilunabar hartan bederen whiskyak adoretuko ahal ninduen!

–2–

Hurrengo goizean burmuinak milaka orratzez zulaturik sentitu nituen. Ohe ertzean eseri eta aurpegia eskuez igurtzi nuen suspertzeko asmoz; ondo alferrik ordea. Kulunka eta ibilera traketsean sukalderaino iritsi, bezperako kafea katilura bota, eta trago batez edan egin nuen. Ondoren, harraskako txorrotapean burua sartu eta amaigabeko une labur latz batez horrela egon nintzen. Berealdiko min zorrotzak bide egin zuen muin sorgortuetan barna begitartean tinkatu arte. Kanila itxi eta ilea tantaka nuela, leiho ertzera gerturatu nintzen. Kanpoan eguraldia orokorrean gris eta hotz samarra zen, eta argitasunari erreparatuta eguerdi aldea izan behar zuela ondorioztatu nuen.

Lanari ekiteko egun polita zitekeela eta, ez bat eta ez bi telefonoa hartu eta Amaia ostatuz zegoen etxeko jabe eta lagun minari deitu nion. Aspaldi ezagutzen genuen elkar Andoni Martiarenak eta biok. Ez dut zehatz gogoratzen noiztik garen lagunak, baina sekula ez dugu behin ere

gure harremana eten. Badira lagun batzuk beti mesede noiz egingo irrikatan egoten direnak eta, zalantzarik gabe, horietako bat zen Andoni.

Ostatura iritsi nintzenean bi edalontzi bete patxaran zeuden mahaiaren gainean. Andoni bertan zegoen, larru beltzezko sofa luze batean eserita lo kuluxka eginez. Itxuraz lodikotea zen, berrogei urte ingurukoa, bibote luzea zuen eta burugaina soiltzen hasia. Gorputza eskuinetara alderatua zuen eta, etengabeko putz eta zurrungak gora-behera, pelutxezko hartz baten goxotasuna zerion. Ni sartzeaz bat deblauki esnatu eta hitzik egiteko astirik eman gabe, lepotik heldu, mahaiaren aurrean eserarazi eta, konturatu orduko, edalontzia eskuan neukan. Patxarana berak egindakoa zen eta *aditu* baten iritzia nahi omen zuen. Bina basokada edan genituen honetaz eta hartaz, aspaldiko eta orduko kontuez hitz-aspertu bat egiten genuen bitartean. Hirugarrena ere bota behar zuen, ordurako pittin bat beroturik, eserlekutik altxa eta keinu egin nuenean. Hura nahikoa izan zen Andoniren aurpegiera erabat larritzeko. Ezpainak eskugainaz gar-

bitu eta misterio handiz –belarrira eta ahapeka– jakin nahi nuena adierazi zidan:

– Hamarrak aldera irten duk. Goizero paseo luzea egiten dik eta bazkalordura arte ez duk etorriko.

Ostatuko harrera-lekuan zegoen mostradore txiki batera joan eta atzeko paretan zegoen giltza bat luzatu zidan.

– Lehenengo solairuan zagok, korridorearen bukaeran.

Giltza eskuan estutu eta korrika ttikian abiatu nintzen. Hamar bat maila igota, korridore ilunean zehar barneratu nintzen. Alde bakoitzean bospasei ate lerratzen ziren; aurrez aurre, pasilloa bukatzen zen lekuan hain justu ere, ate bakarra. Azken honen sarrailan giltza sartu eta, jiratzerakoan, hots metalikoa entzun zen. Gero, ateari emeki bultzatu eta –une batez horman haztamuka aritu eta gero– etengailuari eragiteaz bat Amaiaren gela neure begien aurrean azaldu zen.

Gela berez guztiz arrunta zen. Arruntegia esango nuke nik. Edozein errepide-ostatuko gela irudiztatu eta halakoxea zen nire aurrean zegoe-

na. Ohe bikoitza, modaz pasatako koltxa gorriztaz estalia; eskuin aldean mesanotxe txikia, gainean lanpara eta iratzargailu bat zituena; oheburuaren gainean paisaia idiliko bezain irreala ageri zuen koadroa, sitsak jotako marko batez hornitua; ezker aldean armairu xume eta trinkoa; atearen ondoan mahai luzexka zurezko aulki batekin eta pixka bat atzerago, hormatik zintzilik, ertzak belztutako ispilu meharra. Sabaian, berriz, eta dena era ahulean argituz, kontsumo txikiko bonbilla horietako bat.

Ez nekien ziur zer aurkitu nahi nuen. Zokomiran hasi nintzen kaxoi barrenetan, mesanotxean, perfume eta makillaje ontzien artean, armairuan, naftalina usain sarkorrari nekez eutsiz. Bitxiontzi batean barruan, argazki bat ikusi nuen. Itxura batera argazki arrunta zen. Bertan Amaia hazpegi arabiar nabarmenak zituen neska baten ondoan ageri zen; biak besarkaturik eta irribarrez. Beraien atzean ikusten zen paisaia erabat lehor eta mortua zenez, Afganistanen ateratakoa izan zela ondorioztatu nuen. Ordura arte inork ez zuen aipatu Amaiak Afganistanen lagun kuttunik zuenik. Ba ote zuen horrek zeriku-

sirik Amaia tadjikekin harremanetan jarri izanarekin? Agian erretratu horrek mendeku hutsaren hipotesia alda zezakeen. Edozein gisatara, eta zenbaterainoko garrantzia ote zuen ikuskizun egon arren, aurkikuntza oso interesgarritzat jo nuen.

Apal batean zeuden liburu batzuk ere begiztatu nituen. Gehienak, gutxi-asko, hari berekoak ziren: mugimendu feminista eta emakumeen askapen borrokaren ingurukoak. Liburuok hizkuntza ugaritan zeuden idatzita; gehienak ingelesez, baina baita gazteleraz, alemanez, frantsesez eta grezieraz ere.

Haien artean bazen bat modu berezi batez atentzioa eman zidana. Liburu lodikotea zen, larruz koadernatua; zinez izugarri ederra zen. Bertan, historian zehar emakumeek jasandako zapalkuntzaren kontaera sakona egiten zen. Orriak parrastan pasa nituen gainbegiratu bat egiten nien bitartean. Aurreko orrialdeetara iritsi nintzenean, eskuz idatzitako zerbait ikusi nuen izkina batean. Izenburuaren gainean zegoen eskaintza zen; baina ez edonolako eskaintza: amodiozko hitzak ziren haiek. Seko maiteminduta dago-

en norbaiten sentimendu amultsuak biziki ageri ziren. Sinadura bat ere bai: Peter.

Bigarren aurkikuntza honek kasuarekin lotura zuzena ote zuen duda egin nuen. Agian unibertsitateko laguna zen, edo aspaldiko maitaleren bat. Amaia hain neska erakargarria izanik ez zen, seguruenera, bakarra izango.

Ate aldera inguratu eta irten aurretik azken bistadizoa bota nion gelari. Ezin nuen burutik kendu, halako txukuntasuna ikusita, zerbait orbandu izanaren sentsazio likitsa. Atea zabaldu eta argia itzali behar nuen une berean, mesanotxeko lanpararen azpitik zerbait ageri zela ohartu nintzen. Bertara inguratu, lanpara baztertu eta kartazala aurkitu nuen. Igorlearen izenik ez zen agertzen, baina Venezuelatik bidalitakoa izan zen. Kartazala dagoeneko irekia zegoen. Barrua hatz herabetiz miatuz, ondo tolestutako papera atera nuen: txekea zen. Bi mila dolarreko txeke hartan igorlearen izena argi asko jartzen zuen: Antonio Rico.

Nire baitan erabat barneraturik atera nintzen Amaiaren gelatik. Beste patxaran trago bat hartzeko Andonik luzatutako gonbitari nola edo hala

ezezkoa eman eta, kortesia handirik gabe agurturik, kalera irten nintzen.

Eguraldia zozo antzean zegoen; eguzkia nekez gailentzen zitzaien hodei gris potoloei. Jende asko zebilen kalean batera eta bestera. Kiosko batean egunkaria erosi eta begirada bota nion: deus interesgarririk ez. Ingurura begiratu eta taberna ikusi nuen gertu samar. Harantz abiatu nintzen.

Taberna aurrez aurre nuelarik, zerbait bitxia sentitu nuen garondotik behera. Sentsazio arraroa zen, kilimaren antzekoa, bizkarrezurretik behera etengabe irristatzen zitzaidana.

Tabernara sartu behar nuen une berean, norabidea aldatu eta kalean barrena jarraitu nuen. Lehengo kili-kiliak bere horretan zirauen. Betertzetik atzera begiratu eta nire susmoa baieztatu egin zitzaidan: norbait jarraika nuen.

Metroko sarrera ikusi nuen nigandik metro gutxitara eta, korrika ttikian sartu egin nintzen. Jendea eurrez zebilen eta bertara sartzen eta nire jarraitzaileari ihes egiten ahalegindu nintzen.

Ondo alferrik ordea!

Batera edo bestera jokatu beharra neukan. Taktikaz aldatu eta jazarlea identifikatzea erabaki nuen. Metroko hormaren kontra bizkarra bermatu eta egunkariaren atzean gorde nuen aurpegia, disimuluz jendearen emana arretaz aztertzen nuen bitartean. Ez nuen mugimendu susmagarririk igarri.

Sentsazio xelebre horren balizko fidagarritasunaz nire buruari galdezka ari nintzaiolarik metroa, girringa hots metaliko batez, nire parean geratu zen. Jendetzak eramana barrura sartu eta, berehala, jendearen buru amaigabeen tartetik artean kanpoan zeudenei begiratzeari ekin nion. Gehienak negozio gizonak, jubilatuak eta ikasle itxurako gazte arruntak ziren. Lasaitu egin nintzen. Eskua lepoaren jiratik pasa eta izerdi patsetan nengoela konturatu nintzen.

Trena leunkiro abiatu zen aurrerantz. Jende gehienak, ohi bezala, kristalaz bestaldeko iluntasunean galtzen zen begirada unatua ageri zuen. Nire bihotzaren taupadak normaltasunez aletzen hasterako, nire inguruko jende anonimo haren nondik norakoaz galdetu nion neure buruari; eta hurrengo geldiunea egin genuelarik, trenaren

barrunbeetara sartzen zirenen axolagabetasun handienaz barneko arropa erakusten zuen iragarki bateko neska ederrari erreparatu nion.

Ateak automatikoki itxi ziren. Orduantxe, une llabur batez, bristada iheskor baten gisara, irudi ezaguna islatu zen ateko kristalean. Berriro ere iluntasunean murgildu aurretik gizon txiki harroputz haren figura gogoan marraztuta neukan. Bai, ez zegoen duda izpirik ere: Amaiaren itzala zen gizontxo hura zen nire atzetik zebilena.

Ez naiz ongi gogoratzen hurrengo geltokia zein izan zen. Santutxu edo Alde Zaharrekoa agian. Jende mordo bat jaitsi zela, bai. Jende horren tartean inoiz baino lasaiago jaitsi nintzela ere bai. Orduan bizkarrezurreko azkurarik ez nuen sentitu, baina zentzumen guzti-guztiak erne nituen. Jendeak uholdeka jo zuen irteerarantz, itolarrian egon eta ezinbestez, oxigenoaren beharrez, etsi-etsian bere baitan bihurritzen den animalia gris eta geldo baten erara. Eskaileretara iritsi eta, mugimendu azkarrez, axuleiu urdinez estalitako zutabe erraldoi baten atzean gorde nintzen. Bizkarra zutabearen kontra ezarrita neukala, trenbide aldera begiratu nuen. Le-

hengo iragarki berdina nire parean zegoen. Bertako neskak irribarre egiten zidan beste behin ere, baina orduan bere begietan nola edo halako jakin-min eta konplizitatea antzeman nizkion.

Zutabearen jiran irristatu eta geltokiaren aldera begiratu nuen: hutsa zegoen. Handik laster urrats astunak entzun nituen. Bizar urdineko agurea zen jaisten ari zena. Gabardina maiztu batez jantzita zegoen eta modu nabarian herren egiten zuen. Buruan artilezko txanoa zuen eta gerri jiran paratutako sokak erdi eroritako galtzei apenas eusten zien. Galtzarbean, egunkari paperaz bilduta, paketetxoa zeraman. Arlotea inguru-minguru ibili zen geltokian noraezean bezala, gero lurrean eseri eta, paketetxoa zabaldurik, egundoko ogitartekoa atera eta altxa egin zuen sekulako trofeoa bailitzan.

Bizpahiru minutu pasa ziren pauso arin batzuk entzun ziren arte. Urratsak inguratu ahala ni atzeratu egiten nintzen zutabearen jiratik beti ere. Nire gordelekutik morroi ñañarro hura nire aurrean ikusi nuen. Trenbidearen aurrez aurre zegoen eta, urduri antzean, batera eta bestera begiratzen zuen etengabe. Orduan nik, usteka-

bean, gainera jauzi egin nion. Lurrera erori ginen. Piztia amorratu baten modura egiten zuen borrokan. Lurretik hainbat bira egin ondoren, trenbidera jausi ginen biok. Nire erasoak hasieran batean guztiz ezustean harrapatu bazuen ere nik uste baino azkarrago erreakzionatu zuen. Hala ere, nik nahi nuen posturan zegoen: bekoz beko biok eta hanka egiteko aukerarik gabe. Paparretik heldu eta hormaren kontra indarrez ezarriz, sabelean egundoko ukaldia jo nion. Horrek arnasestuka jarri zuen gizon ttikia, bere larritasuna handiagotuz. Azkenik zenbait gauza argitzeko tenorea iritsia zen. Egoera ustez kontrolpean nuen; deskuidu ederrean nengoen ordea: supituki, astindu bortitz batez, gatibu zuten neure eskuei itzuri egin eta nik erreakzionatzeko betarik eman gabe, lasterka tunelaren iluntasunean galdu zen. Ni atzetik jarraiki nintzaion tentu handiz. Isiltasun lodi hark bularra estutzen zidan eta sabelean sentsazio desatsegina nuen. Urrats gutxi batzuk aurrera. Bizkarra paretaren kontra beti ere eta oin-puntetan kasik aurreraka. Batbatean tiro hotsa entzun zen kanoikada baten pare. Arnasari eutsi eta, tiroa sutu zen tokirantz

abiatu nintzen itsumustuka. Bigarren tiro hotsa min zorrotz batez heldu zitzaidan. Saihetsean mina nuen, gori-gori jarritako burdinak alderik alde zeharkatu balit bezalakoxea. Ez nuen, ordea, atzera egin. Eskua saihetsean nuela bigarren tiro hau atera zen tokira zuzen-zuzenean joan nintzen, bere baitan bihurritzen zen itzalari hirugarren ahalegina egiteko aukerarik eman gabe. Bortizki bultzatu eta lastoz betetako zaku bat bezala ziplo jausi zen lurrera; pistola ere eskutik erori zitzaion, hots metaliko batez ilunpetan galduz. Ez nuen errukirik izan. Lepotik heldu eta burua trenbidearen gainean ezarri nion, behin eta berriz joz, bere odolaren epelak nire eskua guztiz hartu zuen arte.

– Urde zikin arraioa! –orro egin nion gupidagabe astintzen nuen bitartean–. Hustu ezak barrena hire burmuinak hementxe utzi nahi ez badituk!

– Hoa popatik hartzera!

– Zertan ari haizen kontatu ezean hireak egin dik, entzun?

Burua, lepoa eta bizkarra trenbidearen gainean astintzeari utzi gabe bota nituen hitzok.

Saihetseko mina gero eta handiagoa zen. Banekien ez nuela horrela luzaro iraungo.

– Hurrengoan, ez ezak zalantzarik izan, ez diat hutsik egingo; hire burua puxika bezala lehertuko diat –hitzak nabarmenki tartekatuz mintzatzen zen; kordeari apenas euts ziezaiokeen seinale.

– Uste diat ez duala egoera ulertu –egin nuen oihu–, ez baita hurrengorik izango.

Azken hitz hauen oihartzuna ez zen guztiz ahitu marruma antzeko zerbait sentitu zenean. Hasieran trenbideko bibrazio xumea baino ez zen izan, baina segundo gutxi batzuen buruan, areagotu hainbestean, bere jatorriaren nondik norakoaz ez genuen zalantzarik izan batere.

– Aska nazak behingoz ero madarikatua! Biok hiltzea nahi duk ala?

Haren hitz desesperatuei jaramonik egiteke, hortzak estutu eta lepoa trenbidearen kontra gogor estutu nion; lehengo dardara burrunba bilakatua zen dagoeneko.

– Ez, heu bakarrik joango haiz infernura. Trena metro batera iristen denean jauzi batez

atzera egitea nahikoa diat; erreflexu kontua duk, txikito, besterik ez. Orain heuk erabaki.

Asotsa ikaragarria zen. Argi mehe batek iluntasuna urratu zuen, gizontxoaren aurpegi zurbil desitxuratua ikusteko adina urratu ere. Konturatu orduko lurra ikaran jarri eta argiak deblauki itsutu ninduen; lehen baino irmokiago heldu nion morroiari.

Gizon ttikiak bere indar apurrak bildu eta askatzeko beste ahalegin bortitz bat egin zuen etsita; baina oraingoan ez ninduen ustekabean harrapatu.

– Aski duk! Dena kontatuko diat!

Trena jadanik gainean genuen. Une horretan, gizontxoaren gorputzak indar egiteari utzi eta erabat apaldu zen: konortea galdu zuen. Orduan arropatik helduta, egundoko tirada eginez, trenbidetik baztertu eta biok pirritan joan ginen tuneleko bazterra jo genuen arte.

Gizona bere onera itzuli zenean bortizki ikaratu zen; bekoz beko nindukala sentitu zuenean, berriz, behea jo zuen erabat. Itxura batera, hitz egiteko moduan zegoen.

– Gizon garrantzitsu batek diru mordoa ordaindu zidaan Amaiari jarrai niezaion. Maitasun kontu arrunta duk azken finean.

Nik eskuaz apenas eusten nion saihetseko odol jarioari eta, minaren minez, gorputz guztia uzkurtuta neukan. Ezin nuen denbora asko galdu. Mugimendu azkar batez bere kontra oldartu eta ukabila sudurraren parean paratu nion.

– Ongi duk –bi eskuak altxatu zituen mintzatzeko prest zegoela adierazi nahian–. Peter Rico izeneko gazteak kontratatu nindian. Amaia aspaldi berarekin ibili omen zuan baina, agi denez, egun batean deus ere esan gabe desagertu zuan. Mutilak kosta ahala kosta bere printzesaren berri izan nahi zian eta dirua barra-barra agindu zidaan. Diru erraza, badakik. Ni neure lana betetzen ari nauk, heu bezalaxe. Orain txostena idatzi, gazte inozo horri bidali eta dirua kobratzeaz bat honetaz guztiaz ahaztea baino ez diat nahi.

– Eta zer jarriko duk txosten polit horretan zehatz-mehatz? Zergatik habil armaturik eta kirioak airean? Neu ere inozo naizelakoan ala?

Gizonttoak lurrean eserita bizkarra hormaren kontra jarri eta luze bota zuen hatsa. Ondoren, kopeta zimurturik, baiezkoa egin zidan buruaz.

– Antonio Rico izenak ezer esaten al dik? Venezuelako mafioso handienetako bat duk; Caracaseko negozio zikin gehienak berak kontrolatzen dizkik, baita hein handi batean polizia eta bertako politika bera ere. Peterrek, bere semeak, bere azukre koxkorra bilatzeko esan zidanean, egundoko pagotxa iruditu zitzaidaan. Hala ere, kasuan barneratu ahala, bere aitaren itzal luzea gero eta nabarmenago agertzen zuan nonahi. Bai, bere aitak neska hura urrundu zitean Peterrengandik; beste asmo batzuk omen zizkian prestaturik semearentzat. Ziur asko Caracasko goi-mailako panpinatxoren bat eta ez, noski, neska ikasle erdi hippy bat. Kontua duk mutil gizagaixoak uste duela beste tiporen bat dagoela tartean eta nola edo hala egiaztatu behar omen dik behingoz lasaituko bada. Babalasto alaena! Ustekabe ederra hartu behar dik egia osoa jakiten duenean.

– Egia osoa?

– Zera... badakik, Amaiaren gustuei buruz ari nauk. Bazekiat orain dena libre dela eta niri bost axola bere ezkutuko zaletasunak baina Peterrek... ziur asko ez dik ondo hartuko. Jende hura ez duk gu bezalakoa, oso heziketa tradizionala hartzen ditek txikitandik; eskola garestiak, oso kontrol zorrotzak...

– Zer esan nahi duk horrekin?

– Amaiak neskak dizkik nahiago, tira, hobeto esanda, neskak bakarrik dizkik gustuko. Hor konpon bakoitza bere joerekin; baina Peter sentibera duk oso. Ez dik ulertuko.

– Baina arazoa ez duk Peter, ezta? –galdetu nion saihets alde osoa erabat odolez bustirik nuela.

– Neuk agindutako lana egin diat eta kitto!

– Estuasun ederrean sartu haiz txikito! Orain ulertzen diat hire urduritasuna eta, dudarik gabe, ez duk gutxiagotarako.

– Hoa pikutara!

– Heu joango haiz pikutara behar baino lehenago. Aitak kakatan ere kontrolatzen duen mutil koxkor baten lana hartu duk, oso ondo. Badakik egia osoa esaten badiok hau aitaren kontra ol-

dartuko dela, hark egindako jukutria agerian utziz. Hori, jakina, ez zaiok asko gustatuko gure mafioso jaunari eta bere erantzuna azkarra bezain eraginkorra izango duk. Beste aukera izango lukek xehetasun batzuk isiltzea, bere aitaren parte hartzeari dagozkionak hain justu ere. Hala ere, Amaiaren amodiozko kontuen berri emanez gero mutila minduta geratuko lukek eta, agian, aitak susmoren bat har lezakek. Azken finean nahi duan istorioa asma dezakek, baina hire dirua kobratu nahi duk, noski; horrek ere, semearekiko kontrola hain estua dela kontuan hartuta, aita jakinaren gainean jarriko dik. Ez duk batere xamurra pottoko!

Gure arnasaren larria baino ez zen nagusitzen une hartan. Egoerari absurdu iritzi nion: minutu batzuk lehenago elkar hiltzen ahalegindutako bi lagun ilunpean, elkarren aurpegia ikusi ere ez genuelarik egiten hizketan. Jakin gabe, agian, gure patua bertan margotua zegoela; gure ahots akitua lerratzen zen ilunpe itsu hartan edo, ikusi barik, epel eta lodi sentitzen nuen odol jario etengabe hartan.

Mantsoki eta isilik abiatu ginen argiaren aldera. Gizon txikitxoak unean baino unean astunagoa zen nire gorputzari apenas eusten zion, nire besapean jarrita soinetik helduz, makulu gisara. Tuneletik atera ginenean, une batez geltokiko argiek itsutu egin ninduten. Ondoren, eta ikusmena lausotu samartuta eduki arren, hamaika aurpegi ikusi nituen neure aurrean, neure inguruan... Den-denetan harridurak pintzel berberaz margoturikoa zirudien. Gure itxura jadanik ikusterik ez nuen arren, nire gogoan irudika nezakeen: aurpegi desitxuratuak, arropa belztu zarrastatua, odol arrastoa lurretik... Guztiz patetikoa. Seguruenera jendearen artean ahapekako xurrumurrua hedatuko zen, baina ordurako nire zentzumen sorgortuek isiltasun lodia baino ez zuten aditzen. Edo agian ez, zeren eta isiltasun larri hartan txalo ozen batzuk entzun bainituen; eta orduan lehengo eskale bizar urdin hura ikusi nuen berriro, txaloka erotu beharrean eta niri bizkarrean txapaka eginez, animatu nahian. Ez dut ondo gogoratzen, baina nire baitarik indar apurrak bildu eta irribarre xaloa eskaini niola uste dut. Ez dut sekula ahantziko agure txiro ho-

rren imintzio eta espantuetan zetzan goxotasu-
na.

–3–

Zorionez bala ez zen saihetsean gelditu; sartu eta atera egin zen haragia zulatuz. Eta zauriak itxuraz larria bazirudien ere (batik bat botatako odol pilarengatik), garbia eta arin samarra omen zen. Lau egun eman nituen konfiantzako sendagile baten etxean, zauria ondo itxi zela ziurtatu arte. Gure artean geratu zen kontua. Hobeto horrela. Ospitaleko txostenik gabe eta txakurrek muturrik sartu gabe.

Nire etxera iritsi bezain laster, sentsazio gazigozoak hartu zidan gogoa. Zigarroa piztu eta, leihora inguraturik, nire gogoetei haizearekin bat haizatzen utzi nien; banan-banan hausnartu eta zain geratu nintzen, aspaldi etorri gabeko argiprintzarik ttikienaren zain. Bertan ikusi nituen kasuari buruz nituen aieru guztiak ke mataza baten itxura harturik, beren baitan nola kiribiltzen ziren eta, emeki-emeki lurrinduz, ezinbestez desegin eta desagertzen zirela leihoaz bestaldera. Une hartan, nire barneko gazia zein aise

gailentzen zitzaion gozoari egiaztatu nuen etsirik.

Egongelara itzuli eta telefonoa hartu nuen mezurik ba ote zegoen.

Juliaren ahotsa entzuteaz bat azken egunotako unerik atseginena bizitu nuen. Juliaren ahotsa bereziki ezti eta sentsuala iruditu zitzaidan eta bere ezpainen irudia begitandu zitzaidan bere gordinean. Mezua soila zen oso, telegrafikoa kasik. Imanol Rekalde abokatuak bere bulegoan hartuko ninduela esaten zen; ez zegoen zalantzarik Juliak bere lana ederki bete zuela.

Imanol Rekaldek Sabino Arana kaleko eraikin dotore batean zuen bulegoa. Sarreran, aurpegi gogaitua eta eskote zabalegia zituen neska gazteak harrera egin zidan. Nire asmoa azaldu niolarik, telefonoz hots egin zuen eta Rekaldek berehala hartuko ninduela esanez, ondoko gela batean itxaroteko eskatu zidan era hotz eta artifizialegi batez. Itxaron gelara sartu aurretik atzera begiratu nuen neskari azken bistadizoa botatzeko asmoz; baina, tamalez, saihetseko zauriaren ziztada mingarriak nahia erabat zapuztu zidan.

Itxarongela atsegina zen; larruzko besaulkiak, liburuz betetako arasak eta Muranoko beirazko mahai ederra. Arroxakeriaz jositako aldizkaria hartu eta oso famatua omen zen emakume aktore baten ustezko haurdunaldia zela eta, argazki ederrez eta testu ziztrin batez osatutako artikuluari heldu behar nion une berean, lehengo idazkari eder goibela alartzean agertu eta, lanikastaroren batean ikasitako ahots artifizialki atseginaz, Imanol Rekalde jauna zain nuela jakinarazi zidan.

Rekalderen bulegoa nik espero bezain anpulosoa zen. Haritzezko mahai mardul baten gainean zeuzkan eskuak pausatuta; bizkarra, berriz, diseinuzko besaulki eder batean modu erosoan bermatua. Itxura batean, arrakastaren arrakastaz gizartearen maila goreneraino etorritako gizon ahalguztidun baten aurrean nengoen. Bere tronutik azaltzen zuen jarrera ia akatsik gabea zen.

– Markos Gorriti detektibea, ezta?

Eskua luzatu zidan esertzeko eskatuz, karpeta ireki eta, folio batzuk aterata, beraietan tinkatu zituen begiak.

– Jokinen berri jakin nahi...

– Jakina, jakina, Jokin Urrutiaren kasua –eten egin zidan zakarki–. Zinez oso kasu... nola esango nuke? Berezia.

Hitzok behin ere begirada niregana zuzendu gabe jaurti zituen; ez zegoen, antza, konfiantza izpirik ere emateko prest.

– Berezia?

– Komisario Mantxola honezkero tripak jaten ariko da inondik ere, frogek ez baitiote bere bertsio perfektua berretsi... gizagaixo demonioa! Hala ere, ez dago zalantzarik ere kasu hau korapilatsua dela, bai... interesgarria oso.

Abokatuak eskuak zeremoniatsu elkarren artean bildu eta begirada luze eta sakona bota zidan, bere denbora preziatuaren tarterik ttikiena ere merezi ote nuen erabakitzen egongo balitz bezala.

– Badirudi froga guztiek suizidioaren hipotesia baieztatzen dutela; pistolaren posizioa gorpuarekiko, bolbora arrastoak hatzetan, hatzmarkak... Hala ere bere buruaz beste egiteko balizko arrazoiak ez daude, ordea, hain garbi –bekainak altxatu eta ezpain ertza doi bat luzatu

zuen–. Jokinen askatzea denbora kontua baino ez da.

– Baina orduan zergatik egin zuen hitzordua Jokinekin bere buruaz beste egin behar bazuen? Ez da oso zentzuzkoa lagun batekin gelditu eta zain dagoela tiro botatzea bere buruari; suizidioa ondo hausnartutako erabakia izaten da gehienetan, eta ez bat-batean bururatzen den kontua...

– Kasuaren xehetasun guztiak ez ditut ezagutzen, zertzelada gutxi batzuk baino ez; hala eta guztiz, zenbait informazio... nola esango nuke?... pribilegiatu edo, eskuratzeko parada izan dut.

– Informazio pribilegiatua?

– Tira, esan dezagun iturri oneko zenbait datu eskuratu dudala; hala ere, ni kontratatu ninduenak zu Jokinen egoera dela eta jakinaren gainean jartzeko erregutu zidan. Nire ustez ederki asko bete dut hartutako konpromisoa, hortik aurrerakoa bost axola niri. Nire partez, behintzat, ez dut besterik esateko.

– Agian zure informazioa baliagarri gerta lekidake eta zinez eskertuko nizuke...

– Hara, Gorriti jauna! –bekozko nabari batek aurpegia goitik behera antzaldatu zion kolpetik–,

uste dut argi eta garbi mintzatu naizela: nire bezeroarenganako eta kontratatzailearenganako hartutako konpromisoa bete eta bukatutzat ematen dut. Jokin Urrutia jauna laster kalean egongo da, Julia andereñoak eskatutako mesedea –azken hau nabarmen ahoskatu zuen– bete egin dut zuri haren egoeraren berri emanez. Horrenbestez, zorte ona opatzea besterik ez zait geratzen.

– Irabazten ohituta zaude, ez da hala Rekalde jauna?

– Gauzatxo bat esango dizut, adiskide. Ba al dakizu nola iritsi ditudan ospea eta izenona? Besteak baino azkarrago naizelako? Ez horixe! Informazio egokia lortu izan dudalako beti, horra gakoa! Neuk beste inork baino hobeto dakit informazioak zenbaterainoko balioa duen. Zeuk ere nahi al duzu informaziorik? Ondo da. Ziur naiz borondate apur bat jarriz gero konpon gintezkeela.

– Hara *abokatu-izar* jauna! Kasu madarikatu honetan sartu nintzenetik egurtu, atxilotu, mehatxatu eta bi aldiz tirokatu naute; bi lagun hil dira eta beste batzuk arrisku bizian egon litezke.

Ez dut deus ere galtzeko, neure bizia izan ezik. Oraindik ere ondo ulertzen ez dudan tema malapartatuak mendean hartu nauelako kamioan jarraitzen dut, eta badakit larrua asfaltoan utziko dudala edozein unetan. Bai, denetatik jasan dut azken aldi honetan, eta badakizu zer egin dudan? Koskabiloak estutu eta aurrera egin ahalik eta itxurosoen. Baina asko jakin usteko zu bezalako jendea ezin dut eraman, traje dotoreen azpitik darizuen ustel kiratsak zorabiatu egiten bainau. Zenbat behar duzu zure informazio puta horren truke? Hamabost, hogei mila?

Hamar milako bi billete amorruz bota nizkion; bera, bitartean, zirkinik egin gabe adi-adi zegoen.

– Ondo da, Gorriti jauna. Informazioa hartutako prezioan emango dizut, nire gustukoa zarelako –billeteak mahai gainetik jaso eta luzatu egin zizkidan–. Neu ere halakoxea izan nintzen gaztetan: altruista eta lerdo totala; baina zure gisako *Kixoteak* miresten ditut, zinez. Eser zaitez, mesedez.

Itxura batera, bazirudien zorioneko informazio hura ematen ondo egiten zuela ziurtatu

nahian zebilela. Ezagun zen ez zegoela ohiturik deus ere debalde ematen. Une batez tximino handi bat begitandu zitzaidan; *Tximinoen planeta* filmetik ateratako tximino zahar eta sasi-jakintsu haietako bat.

– Louisen inguruan baditut datu batzuk. Ez dakit zenbaterainoko garrantzia duten, ezta zuretzat batere baliagarriak diren ala ez. Informazioa emandako pertsona fidatzekoa da. Louisen etxean egindako miaketan, ofizialki, ez zen ezer aipagarririk agertu, edo agian bai. Kontua da, kasua oraindik ere sekretupean dagoela, eta informazioa urria dela oso. Agi danean zakar-ontzi batean zera azaldu zen... argazkia. Edo, hobeki esanda, argazki baten puskak; argazkia hamaika puskatan txikituta baitzegoen. Komisaldegiko laborategian argazkia berrosatu zutenean, nor azalduko eta Steve jauna! Louisen lagun mina eta, oker ez banago, lehen hildakoa, ez da hala?

Guztiz ustekabean harrapatu ninduen Rekalderen informazio hark. Radar indartsu baten pare abokatuaren begi urdinak gain-gainean sentitu nituen, azala nahikoa ez eta nire barrena ere arakatu nahian. Ni ideiak antolatzen ahale-

gintzen ari nintzen alferrik, ez bainion inongo zentzurik aurkitzen argazkiaren kontu horri. Ez, horrek ez zuen ez bururik ez hankarik.

Rekaldek nire aztoramena antzeman zidalarik, satisfaziozko irribarre xumea moldatu zuen eta, aurrera jarraitzea merezi zuela ziurtaturik, kontakizunari berrekin egin zion:

– Agian bigarren datu hau interesgarriagoa irudituko zaizu.

Mahai gainean eseri eta hankak era sofistikatu batera gurutzatuz, eskua kokospera eraman zuen esperoan. Ez nuen hitzik egin. Harridura imintzio sotila besterik ez nuen taxutzerik izan. Gure elkarrizketa antzezlan bilakatua zen, zeinean Rekalde zen gidoigile eta antzezle nagusia, noski.

– Louisi autopsia egin zitzaionean, oso gauza harrigarria agertu omen zen gorpuan.

Beste isilune bat egin zuen eta nik, bitartean, zigarroa ezpainetan ipini eta piztu egin nuen; gero, une batez, bere irribarrea kearen artean lausotu egin zen.

– Ezker besoan egin berriak ziruditen orbain larriak omen zituen.

– Nolako orbainak ordea?

Mahaitik jaitsi eta, pentsakor, pauso gutxi batzuk eman zituen niregana. Aurrez aurre jarri zitzaidan. Zimeltzen hasitako bere azalari kolonia usain sarkorra zerion. Bibotea bi hatzez xamurkiro igurtzi, arnasa sakon hartu eta, begiak itxiz, jarraitu egin zuen.

– Labana zauriak ziren, adiskide. Labana luze eta zorrotz batez egindakoak hain justu ere.

– Labana luzea... –atera egin zitzaidan artean ere hausnarrean nengoela.

Egia esan, ezin nuen imajinatu Louis bezalako gizon lasaikote bat inorekin borrokan eta, are gutxiago, inor berari min egiteko gai izan zitekeenik.

– Eta horretaz ari garela, Louisi ez zitzaion formularen arrastorik ere aurkitu. Ez soinean ezta bera bizi zen etxean ere.

Abokatu arraio hark infernuan ere izango zituen kontaktuak informazioa lortzeko. Informazioa eta kontaktuak, bai, horra arrakastaren giltzarria.

– Agian hemendik ere zerbait probetxugarri atera ahal izango duzu.

Txosten bat luzatu zidan. Gainbegirada azkarra bota nion. Steveren hilketari buruzkoa zen. Poliziaren zigilua zuen lehenengo orrialdean, bere jatorriaren erakusle.

Antzezlana bukatua zen eta *izarra* txalo zaparradaren esperoan geratu zen. Horren ordez, indarrez besarkatu eta bekokian musu eman nion.

Rekalde jauna ahoa bete hortz eta, ziur aski, informazioa eman izanaz arras damuturik, eserita geratu zen niri begira txintik ere esan gabe.

Bulegotik ateratzerakoan harrerako neskari ez nion erreparatu ere egin. Kasua itxuragabeturik azaltzen zitzaidan guztiz. Zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta beltzago ageri zen zuloa; argi printzarik ez zen inondik ere ikusten.

–4–

Kalean hara eta hona ibili nintzen noraezean. Estanko batean tabako paketea eta egunkaria erosi, eta Patxiren tabernara joan nintzen. Patxik bezperan Athleticek egindako partida eskasaz hitz-aspertua egin zuen; egunero ehunka aldiz mugimendu berbera egin ohi dutenen errutinaz, *Negrita* zorrotada luzea edalontzi estu luze batera botatzen zuen bitartean.

Ohiko iruzkinari ohiko erantzuna emanez, eseri egin nintzen.

Inguruan, gazte talde bat zegoen, ia gehienak erretzen eta basokada bana kalimotxo aurrean zutela. Algara ozenki egiten zuten, eta Patxik, barratik, mesfidantzaz begiratzen zien.

Poliziaren txostena mahai gainean paratu eta arretaz irakurtzen hasi nintzen. Itxuraz ez zuen deus berririk esaten. Eta alferrikakotzat jo behar nuen unean berean kasik, datu hura azaldu zen. Lerro xume bat baino ez zen txosten hartan eta ez zioten, antza, aparteko garrantzirik ematen aipamenari. Hildakoa zegoen ohearen eta hor-

maren arteko zirrikituan, hautsitako iratzargailu bat azaldu omen zen. Horrek ohearen azpiko kristalen misterioa argituko zuen, noski. Baina harrigarriena, iratzargailuak markatzen zuen ordua zen: gaueko ordu bata eta laurden. Txostenak zioenez, iratzargailuko ordua bat zetorren auzitegi-medikuak kalkulatutako heriotza orduarekin.

Baina ez Juliak Steveren gelan zarata entzun zueneko orduarekin!

Paperezko mahai-zapi bat atera eta idazteari ekin nion:

Sei loreen kasua.

Kanpamentuko lagunen artean formula banatu, tadjiken erasoaren aurrean.

Juliaren aita hilik lankideei ihesa erraztearren.

Bi taldetan ihes egin. Batean Amaia, Steve eta Louis; bestean Jokin eta Pablo.

Amaiak deituta joan omen ziren tadjikak kanpamentura (zergatik?)

Stevek saiatutako bortxaketa zela eta mendekuagatik?

Nor ote Amaiarekin erretratuan zegoen neska?

Tiroketa Pabloren eta nire aurka.

Nire ondoan zegoen gazte koadrilaren algarak areagotu ziren. Paperezko musu-zapi batez estaliriko basoa paratua zuten mahaiaren erdian, musu-zapiaren gainean txanpon bat zegoen. Jolasa ezaguna zen: txanponaren jira txandaka zigarroaz zulatu, norbaiti edalontzi barrura erori arte. Txanpona dagoeneko erdia zintzilik zegoenez, giroa pil-pilean zegoen gazteen artean.

Nik jarraitu egin nuen.

Formula zatiak bildu behar ziren egunaren bezperan Steve erailik.

Juliak Steveren logelan ordu biak aldera zarata entzun.

Hautsitako iratzargailuak ordu bata eta laurden markatu.

Steveri eta Amaiari formula lapurtu.

Ondoko mahaian barre algaraz lehertu ziren. Mutiko potolo kaska-gorri pekadun batek, lelo-lelo eginda bezala, paper errearen errautsen artean basoaren hondoan zetzan txanponari begiratzen zion. Inguruko mutilek oihuka eta builaka zapladak ematen zizkioten bizkarrean.

Louisi formula aurkitu ez (ostua, akaso).

Stevek Jokini andrea kendu omen zion.

Mutil potoloa denen artean mahai gainera igota, gazte taldea txistu eta txaloka hasi zen. Mutiko galtzaileak aurpegia ilea baino gorriago zuen ordurako. Balantza baldarrak eginez, erdidantzan, arropa eranzten hasi zen.

Louisen heriotza. Jokinekin geratuta omen. Itxura batera suizidioa.

Steve, bere lagun minaren argazki puskatua zakarrontzian.

Louisek labana batez eragindako orbainak besoan.

Amaiak mafiako buru baten semearekin maitasun abentura. Aitak hilero dirua eman semearengandik aparte egoteagatik.

Ustekabean, lehengo barre-algarak irain eta istilu hots bilakatu ziren. Mutil taldearen aurrean xahar ttiki bat zegoen bastoia airean dantzatuz, mehatxuka. Mahai gainean mutil kaska-gorria galtzontzilotan zegoen. Bere besoek soina gurutzatzen zuten; haien azpian zapaldutako *mitxelinek* muturra erakusten zuten lotsagabeki. Koadrilakoak, debaldeko festa zapuztuko zitzaielako beldurrez edo, xahar erkinari bortizki oldartu zitzaizkion.

Ni, bitartean, Nekrasov, arma trafikatzaile errusiarra, jarri ez jarri egon nintzen une batez. Itxuraz ez zuen loturarik kasuarekin; hala ere, behin eta berriz agertzen zen pertsonaia zen. Gainera, arma trafikatzailea zen aldetik, ez zion muzin egingo halako arma eraginkor bati. Bai, ez zen komeni soka-muturrik besterik gabe bazter-tzea.

Nekrasov. Aurkikuntzaren berri bai ote? Balizko harremanik?

Azken errepasoa egin nion idatzitakoari. Hartutako azken trago luzean rona eta goibeldura batera irentsi nituen. Urdailean puntada mikatza sentitu nuen aspaldiko partez. Izan ere, ez nuen aurrerapauso nabarmenik egin kasuan. Ez nuen batere aurrerapausorik egin kasuan.

Artean ere urdaila kiskaltzekotan nuen, begiak paperetik altxa eta aldamenera, dagoeneko iskanbila larriak zeuden aldera begiratu nuenean. Giroa erabat ekaiztua zegoen eta agureari, paparretik helduta, astindu bortitzak ematen zizkion bisera laranja bat aurrekoz atzera jantzita zeukan mutil kankailu batek. Mahai gainean, bitartean, kaska-gorri pekotsua inguruan barreiaturik zeuden arropak albait azkarren biltzen ahalegintzen zen. Patxi orduantxe ikusi nuen. Pauso azkarrez zetorren barratik, eskuan egurrezko makila zuela. Lepoko zaina handitua eta matrailezurra estutuegi zituen. Nik edalontzia zurrutada batez hustu eta altxa egin nintzen. Urdaila ez ezik zintzurra ere erreta sentitu nuen.

Eskua zilbor-aldean paratu eta desatseginezko keinua marraztu nuen. Agurea lurrean zegoen, eta esku-hankak desesperatuki astintzen zituen arintasun harrigarriaz, ur hotzetara botatako basakatuaren modura. Patxi, bitartean, itsumustuka ari zen borrokaren zurrunbiloan, makiladak han eta hemen partituz. Mutil biseradunak tabernariari atzetik heldu eta lurrera bota zuen. Gauean etxera iritsi eta, nekearen zama gorputzetik uxatu nahian, zamarra edozein bazterrera bota ohi dugun zabarkeria berberaz lurreratu zuen Patxi gizagaixoa. Nik aldameneko mahaitik, agure zaharrak erabilitako sardexka eta ia betea zegoen botila hartu nituen. Bitartean, mutil potoloak erabat mendean zuen Patxi eta koadrilakoak, bero-bero, orroka eta builaka ari ziren laguna animatzen. Inor nire presentziaz ohartu ez izana profitatuz, mutil handikotearengana gerturatu nintzen eta, lasaitasun handienarekin, botila buruan lehertu nion.

Bai, mutil ganberro alu horiek ondo ustekabean harrapatu nituen!

Mutil kankailua, kristal apurtuak buru kalparrean eta aurpegia ardoz arrunt bustia, niregana

jiratu zen astiro. Bi pauso aurrera emanik azpia dinamitatutako etxe-orratzaren antzera abaildu zen lurrera. Mutilaren lagunek ahoa bete hortz jarraitzen zuten. Isilune labur baten ondoren, ile kizkurra eta ezpain azpian piercinga zituen gazte haietako bat amorruz oldartu zitzaidan. Saihetsean ziztada mingarria sentitu nuen artean guztiz orbainduta ez zegoen bala-zaurian. Mahai baten gainera erori ginen biak. Mutila nire gainean zegoen, ahal zuen bezala jo eta jo. Saihetseko mina, berehala, goragale eta zorabio bilakatu zitzaidan. Orduan, azken indar pizarrak bildu eta, amorru biziz, artean ere eskuan neukan sardexka izterrean sartu nion. Mutilak oihu lazgarria egin zuen; gero, ni libraturik, atzeratu egin zen. Ikara imintzio bat bekozkoan zizelaturik zuela, sardexka izterretik kendu eta odola jarioan atera zitzaion galtzak eta zapata gorrituz.

Odolaren mintzoak, beste behin ere, bere bidea korritu zuen.

Berehala, gainontzeko gazteek zauritutako lagunak hartu eta arrapataka alde egin zuten, lurrean kristal hautsiak eta sigi-saga ateraino lerratzen zen odol arrastoa utziz.

Patxi, artean maldizioka ari zela, herrenka barraraino joan eta eskailerapeko ardo bana atera zigun: *Chateron Pinord,* erreserbakoa. Agureak, paparra puzturik, kondekoratutako soldadu ohi baten harrotasunaz heldu zion edalontziari. Ardoak inongo ospakizuni baino, gure onera etortzeko genuen beharrari erantzuten zion batik bat. Baita azkar asko helburua bete ere.

Une hartan bi ustekabek kolpatu ninduten!

Lehenengoa, edalontzia egunkariaren gainean pausatu nuenean gertatu zen. Bertan, kotxea ikus zitekeen uretatik garabi batez ateratzen. Txikitako garaia gogoratu zitzaidan. Behin aitarekin arrantza egitera joan nintzeneko hura hain justu ere. Amua uretaratu eta handik laster egundoko arrainak kosk egin ziolakoan, olio lata herdoildua atera nuen handik. Hala ere merezi izan zuen, zeren eta hura zela eta ez zela aita estreinako aldiz ikusi bainuen barrez. Argazki nagusi haren ondoan gizon gaztea ageri zen; azpian, letra ttikitan, kontatzen zen nola salbatu zion bizia kotxeko gidariari. Hark ere kolkoa puztua zuen, lepoa luzaturik. Orduan, errezelo txarra hartuta, orriak di-da pasa nituen artikulua

aurkitu arte. Kotxeko txoferraren argazkia ikusi nuenean, ez nintzen harritu. Dotore eta irribarretsu zegoen. Eta bizirik! Ni poztu egin nintzen.

Orduantxe gertatu zen bigarren ustekabea. Azken ardo zurrutada hartu berri nuen eta kalera nindoan. Atzean Patxi eta zaharra geratu ziren, barrez eta fanfarroikeriatan.

Atea irekitzerakoan, tupustean, tabernaren aurrealdeko kristala lehertu zen nire gainera. Ahalegindu nintzen nola edo hala aurpegia besoekin babesten alferrik. Konturatzerako, lurrean etzanda nengoen, aurpegia odoldurik eta kaskarreko ederra hartuta. Han, kanpoan, urrun, motor batzuen burrunba entzun zen korrokada kiratsuaren antzera, berehala apaldu egin zen trafikoaren harrabotsarekin guztiz bat egin arte. Ume mukitsu haiek ere edukiko zuten egun hartan zer kontatua.

–5–

Ospitalera iritsi eta harrerako erizainari gelaz galdetu nion. Hurbileko senidea nintzela esan nionean mesfidantzaz begiratu zidan, baina amore eman zuen. Gelaren aurrean bi txakur zeuden guardia egiten. Batak aurikularrak jantzita zeuzkan eta, egiten zituen imintzioengatik, pil-pilean zegoen partidaren bat entzuten ari zen. Besteak, berriz, horma hatzekin atabalatzen zuen zigarroa erretzen zuen bitartean.

– Nire lehengusu propioa barruan dago.

Bi poliziak berehala atearen aurrean paratu ziren sarrera galaraziz.

– Ezin duk inor pasa. Kasua oraindik sumariopean baitago.

– Famili kontua duk. Aspaldi ikusi gabeko senidea, badakik. Nahi baduzue nirekin sartu eta bakea, arazorik ez.

– Agian beste leku batera lagunduko haugu. Ziur nagok nagusiak galderatxo batzuk gustura egingo lizkiakeela. Bai, horrek pittin bat gozatu-

ko likek! –bota zion aurikularretako poliziak garratz, partida eteteagatik sumindurik.

Eskuak poltsikoratu eta erdeinuzko keinua itxuratuz ukabilak amorruz itxi nituen. Nazka sentimendu bat eztarrira joan zitzaidan, eutsi ezineko goragale mikatzaren modura. Bizitza bizi beharrak bihotzerrea ematen zidan maizegi; zenbait jendek, berriz, urdaila arrunt nahasten zidaten. Une hartan sentitzen nuen guztia goragale hartan mamitzen zen: zinez jasangaitza zen!

Pauso batzuk egin nituen atzeraka. Poliziek arretaz begiratzen zidaten susmo txarrak harturik. Kankailu haien atzean zegoen ateari erreparatu nion. Atea arrunta zen inondik ere, halako leku aseptikoek ematen zioten kutsu funtzionala baino ageri ez zuena. Hala ere ate horren bestaldean pertsona bat zegoen. Arerio bat. Neu bezalako gizagaixo bat azken finean. Nire sentimenak ez zuen zer ikusirik arerioari zor omen zaio begirunearekin, baita zera ere! Agian gertuago zatekeen elkartasunetik edo, zergatik ez, ispilu soila izatetik. Bai, ateaz beste aldean zegoen

gizon ttiki hura nire burua isla zezakeen ispilu bakarra zen.

Une hartan bi taupada sentitu nituen besteak baino nabarmenago. Zerbaitek nire barrutik zirt edo zart egiteko deia egin izan balit bezala izan zen. Orduan, berriz ere poliziengana itzuli eta beren aurpegiaren harridurari begiratu gabe atearen heldulekuari heldu nion indarrez. Atea pittin bat zabaldu zen, barruko garbitasun eta botika usaina aditzeko adina. Poliziak oldartu egin zitzaizkidan atzeraka bultzatuz. Lurrera erori nintzen. Ostikoa sentitu nuen zauriaren aldean eta minaren minez garrasi egin nuen. Zakurretako bat gainean nuen eta eskuburdinak jarri nahi zizkidan. Azken indar pizarrak hankaz atea jotzeko erabili nituen; jakinez nire helburua ez nuela inoiz lortuko.

Orduan ahots ezaguna entzun nuen.

– Aski da, libre utzi!

Ez nintzen gehiegi harritu Mantxolaren aurpegi zapala ikustean. Bi eskuekin paparretik helduz altxatzen lagundu zidan. Ondoan zegoen plastiko gorrizko aulkitxoan eserarazi eta, nire buruaren gainean besoa irmoki paretaren kontra

bermatuz bere ahots larderiatsuaz zaunka egin zidan.

– Ondo zagok adiskide! Argi asko hitz egingo diat. Atzo berria eman zidatenean ez nioan jaramon handirik egin: kotxe bat uretara amildu duk Santurtziko portuan. Tira, pentsatu nian nire artean, mozkorren bat izango duk, edo atsoak utzi duen funtzionario gizajoren bat, halakoak egunero gertatzen dituk. Handik puska batera kotxearen balazta manipulatuta zegoela jakinarazi zidatenean, usain txarra hartu nioan kontu honi. Eta orain nor ikusiko ospitalean sesiotan kotxeko gidaria ikusi nahian, eta nire detektiberik kuttunena, Markos Gorriti jaun txit agurgarria lurrean arrastaka.

Nik ez nuen hitz egiteko gogorik. Mantxolarekin behintzat ez. Guztiz ahulduta sentitzen nintzen, aurrera begiratzeko ere dagoeneko adorerik ez duen txorimalo zurkaiztu baten gisara. Bai, prest nengoen Mantxolak, bele beltz zital hark, begiak atera eta lastozko nire soina zirtzilduz barrena han-hemenka barreia zezan.

Baina bere jokabidea oso bestelakoa izan zen.

Lepotik lagun modura helduta, pasilloan barrena eraman ninduen erretzaileen guneraino. Han zigarroa luzatu eta berak beste bat hartuz isilik eta begira gelditu zitzaidan. Une hartan musker bat sentitu nuen kolkotik behera irristaka zilborreraino, eta bertan pausatu zen zain, Mantxolaren hitzaren zain.

– Ondo zagok gazte. Argi hitz egingo diat, azpijokorik gabe, ados?

Sekula ikusi gabeko malgutasun imintzioa azaleratu zitzaion komisarioari. Ni harritu eta kezkatu egin nintzen eskuarki.

– Gela horretan ezezagun bat zagok. Bere izena badiat, noski, baina ziur nagok faltsua dela. Nik ez zekiat nolako loturarik dagoen zuen artean eta bost axola niri hire osaba *indianoa* bada ere. Ikusi nahi baduk baimena emango diat.

– Eta prezioa?

– Gutxi-asko sinesgarria den istorioa, besterik ez.

Tratua zuzena iruditu zitzaidan. Mantxolak Jokin askatu behar izan zuenean egundoko porrota jaso zuen. Ukabilkada latza, bai horixe!

Orain nagusiak lasaitzeko zerbait behar zuen. Eta joko hartan nik ez nuen deus ere galtzeko.

– Ongi duk, istorio ederra kontatuko diat: istorio arrosa...

–6–

Atea zabaldu nuenean bere ohea niregandik urrunegi zegoela iruditu zitzaidan. Urrats gehiegi egin behar nituela bere gorputz ttikia ikusteko, alegia. Leihoko estoreek apenas iragazten zuten argi laru xume bat ohe erraldoiraino. Ohe erraldoia, gorputz ttikia. Panpinatxoa zirudien bere neurrikoa ez zen jostailuzko etxe batean.

Inguratu orduko betazal morexkak pittin bat zabaldu zituen. Bere begietako estoreetatik ere argi gutxiegi pasatzen zen. Aldamenean suero botilatxoa tantaka husten zen itogin temati baten kadentzia gogaikarriaz.

Gizon ttikiak begiak erabat zabaldu zituen. Begi urdin ikaragarriak ziren (une hartan harritu ere egin nintzen, ezin uka, ez bainien ordu arte erreparatu itsasorako leihoak ziruditen begi haiei) zurgagailu eskerga modura inguru guztia berenganatzen zutenak. Ondoren bere ezpainek irribarre ñimiñoa zirriborratu zuten, gu bion arteko tarte izoztua marraza zorrotzena bailitzan alderen alde ebaki zuena.

– Kaixo detektibe jauna, hau bai ez nuela espero...

Hitzok mihitik jaulki orduko kolkoan ahitu zitzaizkion. Ni bere ondoan eseri nintzen. Deus gutxi nuen eskaintzeko: artean ere patrikaren batean gordeta egongo ziren konpromisozko zenbait hitz labur eta errespetuzko isilune luzea.

– Ez duk sinetsiko, baina hiri gertatutakoaren berri izan nuenean nire osaba arrantzalearen esana etorri zitzaidaan burura. Zera esaten zian edozein ostatutan txakolin botila aurrean zuela eta uneoro berari (botilari) zuzendurik, haren mintza-lagun bakarra bailitzan: gu denok azken finean arrainak gaituk! Handiak eta ttikiak. Batzuk berdelak beste batzuk atunak; baina dendenok dugu gu baino handiagoa den beste arrain bat gu jateko zain.

– Hire osaba hura gizon jakintsua zuan inondik ere. Bazekien ederki asko halabeharrari ezin zaiola muzin egin. Inoiz itzuriagatik ere, azkenean barrabiletatik heldu eta itsas hondora eramango hau arrastaka.

– Ez hago kexatzeko moduan.

Bere zurbilean destaina keinua plasmatu zen.

– Atzeratzea baino ez diat lortu. Tira, heroi bat sortu ere egin diat. Agintariak zorretan zeudek nirekin inondik ere.

Sueroak bere jario neurtuarekin jarraitzen zuen botila husten. Agian gizon hark arrazoi zuen: denbora kontua baino ez zen.

– Mundua zabala duk, hoa aparteko leku batera; zera... Ozeano Bareko uharte galduren batera. Badakik, egunez hamakan lo eta gauez txortan beste inongo kezkarik ez duala.

– Ez diagu erremediorik –etsi egin zuen.

– Beti zagok aukeraren bat.

– Ez niretzat, ezta hiretzat ere Markos. Gure patua aspaldi idatzita zagok, alferrik duk entzungor egitea...

– Hortaz?

– Diru puta hori jaso arte ez diat amore emango. Ez zeukaat beste zereginik bizitza honetan, ulertzen? Nire ordua iristen denean hileta dotoreak nahi nitizkek, besterik ez: jendeak behingoz zera esan dezan: hara, lurpera daramaten morroi hura bazen norbait.

Beste hitzik egin gabe alde egin nuen. Nire burua hor ikusten nuen, zuriegiak ziren maindi-

reen pean halabeharrari desafiozko erretolika botaz. Pausoa azkartu egin nuen. Desinfektatzaile usainak gaixotu egiten nau.

Kanpoan Mantxola zain nuen. Ni berriz ikusterakoan apenas eutsi zion irribarre akitu bati. Ilea atzeraka laztandu eta kokotea irmoki igurtzi zuen. Ahoa erdi zabalik zuen eta zalantza adierazten zuen begirada galdua.

– Hire barrena hustuko huen honezkero.

– Lasai hitz egin diagu, kitto! Hire ordaina izan duk. Ez nagok zorretan.

Mantxolak esku ahurrak astindu zituen buruari ezezkoan eragiten zion bitartean.

– Estimatzen haut, Markos, benetan. Bazakiat batzuetan zakar samarra naizela baina nire papera horixe duk...

– Ez hadi orain polizia zintzoarena egiten hasi, arren. Patetikoa gertatuko lukek.

– Hara argi-iturri: ez diat inongo azalpenik zor, hi bezalako kaka-umerik agoantatzea gibelak ez zidak agintzen. Ez nauk hire hobe beharrez ari, baina nire lanak baditu arau puta batzuk. Haien artean hi bezalako babalastoak balizko arriskuaz ohartarazi beharra kasu.

– Bota behingoz edo bake eman ezak!

Baiezkoa egin zuen harrokeriaz.

– Atzo San Francisco auzoko zenbait putetxetan sarekada egin genian. Badakik, lantzean behin komeni izaten duk horrelakorik egitea itxura egiteko besterik ez bada. Jendeak eskertu egiten dik eta egunkariek dezenteko sona ematen zietek halako berriei. Morboak saltzen laguntzen dik.

– Poliziak darabiltzan auto-propaganda bideez hitz egin behar baduk, jakin ezak ondotxo dakidala nolako jukutriak asmatzen dituzuen...

– Isil hadi behingoz, babo arraioa!

Beste behin ere egiazko Mantxola ari zitzaidan hizketan.

– Bai, gustatzen zaiguk putatxo batzuk noizbehinka komisaldegira eramatea bista gozatzeko, ez diat ukatuko. Baina baita galtzak orkatiletaraino jaitsita dauzkan jende dotorea harrapatzea ere.

– Politikoren bat harrapatu zenuten sarekadan? Aktore ezagunen bat akaso?

– Putetxeko gela batera sartu ginenean tipo luzexka bat harrapatu genian jo eta su. Galtzer-

diak jantzita eta bederatzi milimetroko Checoslov automatikoa mesanotxean jarrita ari zen morroia *lanean*.

– Larrua jotzeko era originalagoak ere ikusi izan dizkiat nik.

Patrikatik erretratu zimurtua atera eta bestela bezala luzatu zidan.

– Tipo hau...

– Bai, Pablo eta hire kontra izandako tiroketan parte hartutakoa duk –zaunkan komisarioak–. Bestalde munta txikiko gaizkilea duk, hamar mila duro emanda bere ama ere zula-zula eginda utziko lukeena.

– Saripeko gaizkina beraz.

– Tipo batek telefonoz kontratatu omen zizkian taldearen *zerbitzuak* hogeita bosna billete ordainduta nonbait. Helburua zuei beldurra hezur-muinetan sartzea zuan.

– Eskerrak helburua hori besterik ez zen! –egin nuen oihu eskua izterrera eramanda.

– Orain taldeko gainontzekoen arrastoan gabiltzak, baina hiri zegokiana horixe zuan. Jakinaren gainean hago. Hortik kontuak ateratzea hire esku zagok.

Ez genuen hitz gehiago egin. Mantxolaren higuin aurpegia artean ere burmuinetan itsatsita neukala atera nintzen ospitaletik. Mantxolak bere eginbeharra bete zuela eta, kontzientzia pittin bat lasaiago edukiko zueneko segurantzia banuen. «Zoragarri!» pentsatu nuen nire artean, «baietz gaur gauean bere urdaileko ultzera gozoxeago portatu».

ALKANNA

Alkanna: *Zain lodi eta hamar bat zentimetro luze, azal gorrizta duena; zurtoin ugari hogeita hamar zentimetroko garaiera ere iritsi dezaketenak. Aldizkako hosto luze eta estuak, bilotsuak. Loreek kolore urdin purpura dute, zenbaitetan xuri eta horikarak ere direlarik. Urdaileko gaitzak sendatu zein hilekoaren minak arintzeko hartzen da batik bat.*

–1–

Jokinek zaharrago zirudien. Komisaldegiko egun haiek ez zitzaizkion alferrik pasa. Gabardina zurixka jantzita zeukan, hegala altxatuta, zeinak adina areagotu egiten zion. Lekua, Doña Casilda parkea; Arte Ederren Museotik gertu. Arratsa aspaldi abailduta zegoen eta zirimiri gogaikarria inguruak lohitzen hasia zen. Jokin eta biok, aterki bana hartuta, aurrez aurre gaude.

– Zu atxilotu izanak ez nau pozten; hala ere gustura ikusiko nukeen Mantxolaren aurpegia zu aske utzitakoan.

– Ez dituk egun gozoak izan; baina mingarriena Louisen suizidioa izan duk.

– Badakit nazkatzeraino ere errepikatuko zenuela kontua, baina nola gertatu zen zehazki?

– Bezperan Louisek telefonoz hots egin zidaan, zerbait garrantzitsua omen zuela niri kontatzeko. Santurtziko portuan paratu genian hitzordua. Harakoan tiro hotsa entzun nian, niri, hasiera batean, txapligu baten leherketa iruditu zitzaidana. Louisengana iritsi nintzenean, hilo-

tzik zetzaan lurrean. Laguntza bila abiatu ninduan korrika. Bidean polizia topatu eta gertaeraz jabetzean nitaz errezelo txarra hartu eta atxilotu egin ninditean.

Jokinen bertsioa, azken finean, ez zen hain txarra ere. Sinpleegia akaso susmorik ez sortzeko, baina akats gabea bestalde.

– Zertaz hitz egin nahi zizun arrastorik?

– Ezta batere.

Jokini so egin nion. Bere begirada bufalo zaharrarena zen. Eskarmentua eta errukitasuna nahasterakoan sortu ohi den irudi lauso zehaztugabea ageri zen bere begi ikaragarri haietan.

– Izan ere, maiz zaila izaten baita pertsonon jokaerei neurria hartzea.

Nire hitzok atezuan jarri zuten azeri zaharra.

Tabako paketea atera eta eskaini egin nion. Jokinek, begiradari tinko eutsiz, errefusatu egin zuen.

– Bizitzaren gora-beherek zenbaitetan aldez aurretik asma ezineko eragina izaten dute guregan... –jarraitu nuen nik.

– Bota! –agindu zuen, larderiatsu bihurtua zen ahotsez.

– Stevek atsoa altxatu omen zizun.

Kea indarrez bota nuen lurrerantz, gorputza zama astun batez libratzen ariko banintz bezala.

Jokinen ordura arteko aurpegiaren azal zurruna tarratatu eta irri zabalez airean zintzilik zegoen tentsioa kolpetik xurgatu zuen.

– Bejondeiala motel! Nire andrea alproja horrekin joan zela eta, susmotan al habil? Horixe zioat nik zor potro-ustel horri. Steve lardaskan hasi baino lehenago ere nire andrearen eta bion artean ez zegoan hipokrisiarik besterik. Stevek aitzakia egokia eman zidaan dibortzioa eskatzeko.

– Agian kontua hau urrunegi joan zaigu. Aspaldi ari gara kakatan aztalka; zenbat eta gehiago sakondu orduan eta kirats nardagarriago ateratzen da.

– Tristeena duk medikuntzak aukera ederra galduko duela. Denok izango gaituk galtzaile.

– Oraingoz bizia ez galtzearekin nahikoa dut nik.

Zeruan hodei potoloak ikusten ziren.

– Agian gure patua han nonbait idatzita egongo duk honezkero...

Urruntzen hasi nintzenean Jokin ez zen mugitu. Hausnarrean antzo gelditu zen gora begira beti ere. Geroago bai. Berriz atzera begiratu nuenean, banku batean eserita zegoen, burua esku artean sarturik. Une hartan parkeko beste elementu bat zirudien; iturria, lorategia edo usoaren zirinaz orbandutako bustoaren antzera. Lekutan geratuak zitzaizkion lehengo *gentleman* trazak. Orduan, parkeko banku hartan eserita, ez zegoen bihozminak oinazetutako agure errukigarri bat besterik. Niri beste zalantza bat gehiago sortu zitzaidan: egiatan hain gutxi axola ote zitzaion bere andre ohiarena. Une hartan kazkabarra hasi zuen. Azken bistadizoa bota nuenean, bankuan jarraitzen zuen, sorgor; euriak bere samina pittin bat arintzea espero balu bezala.

–2–

Amaia zegoen ostatura iritsi nintzenean bere logela hutsik zegoen. Nire adiskide Andoni ere ez zen han; lan bilera batean omen zegoen. Hango zerbitzariak esan zidanez, Amaia erosketak egitera atera zen aurki etortzekotan. Harrera-lekutik pare bat egunkari hartu eta erabat kolore pastela zuen egongelako besaulki batean eseri nintzen zain.

Ordubete doi pasa zen Amaia azaldu zenerako.

Beroki lodia jantzirik eta poltsa astunez zamatuta agertu zen. Beti bezain ederra bazegoen ere, zaharxeago zirudien. Ni ikusi bezain laster artifizialegia zen irribarre batek erdi zabaldu zizkion ezpainak. Laguntzera joan nintzaion baina ez zidan utzi. Bera bakarrik moldatuko zela esan zuen purrustadan. Segituan nirekin egongo zela eta apur bat itxaroteko.

Ordu laurden baten buruan berriz azaldu zen Amaia. Soineko motx koloretsua jantzita eta muturra gogotik gorrituta inguratu zen salara, mo-

delo desfile baterako egokiago zirudien ibilera neurtu eta sentsualaz inguratu ere. Nire aurrean eseri eta hankak mugimendu azkar eta ondo kalkulatu batez gurutzatu zituen.

– Adi naukazu galai eder horrek.

Erabilitako hizkera pare-parean zegokion bere jantziari. Amaia antzezle handia zen; uneoro bazekien zein paper komeni zitzaion antzeztea eta berau, izar handi baten gisara antzezten zuen.

– Arrisku bizian zaudela ohartaraztera etorri naiz. Agian, ahalik eta urrutienera hanka egiteko aholkatu beharko nizuke, edo kutsadura medio bere ehunka milioi biztanle pixkanaka-pixkanaka akabatzen ari diren infernuko hiri horietako batean burua albait sakonen gordetzeko. Eta benetan aholkatu egingo nizuke, alfer-alferrik dela jakingo ez banu behintzat.

– Gaur inondik ere bereziki baikor etorri zara.

– Niri bost zerk bultzatu zintuen mafioso baten semearekin maitakeriatan ibiltzera –bota nion brastakoan–. Diru-gosea ala egiazko maitasun xamurra izan orain ez dio batere axola. Kon-

tua da dagoeneko Peter, mafiosokumea, jakitun dagoela bere aitatxoren azioaz, ulertzen?

– Ez dizut onartzen Peterrez horrela hitz egitea –sumindu zen Amaia, artean ere bere paperetik irten gabe.

– Hara Amaia, mafioso hura orain arte faltsukeriatan ibilia da bere semearekin. Jende mota horri eskuarki ez zaio gustatzen familiaren aurrean kabroi modura azaltzea. Oso jende tradiziozalea izaten baita.

– Kontu hau oso aspaldikoa da eta ahantzi egin nahi nuke behingoz. Gainera, uste dut beste kasu batengatik kontratatu zintuztela...

– Hilero-hilero taloia kobratzea ez zaizu ahaztu bederen.

Begiradaz alderik alde zulatu ninduen.

– Hiru hilean behin jasotzen dut.

– Oraingoz behintzat...

Amaia urduritzen hasi zen nabarmen, nik neureari eutsi nion.

– Zure atzetik ibilitako tipoa, Peterrek kontratatutakoa zen. Zure berri ematea zuen helburu, noski.

Aurpegia doi bat zurbildu eta arnasa, une batez, larritu egin zitzaion.

– Guztiz ahaztu ninduelakoan nengoen... jolasa besterik ez baitzen izan.

Lucky bat piztu eta mantso bota nuen kea, hausnarrean.

– Zure atzetik ibilitako morroi hura herenegun *arrantzatu* zuten Santurtziko portuan. Zorionez, atera zutenean artean ere isatsari eragiten zion. Hurrena ez dute huts egingo, zaude ziur.

– Eta... Horrek zer ikusirik du nirekin?

Unean baino unean lehengo emakume *totalaren* haizeak ahitzen ari zitzaizkion; bere antzezpena amaitzear zegoen.

– Txantxetan ala?

Eskuarekin kopeta ukitu eta pentsakor geldi-tu zen. Beldurturik zegoen.

– Taloia jasotzeari uko egingo diot. Hurrengoan atzera itzultzeko agindua emango dut. Madrilen lagun bat dut, bertara joango naiz aldi batez.

Kamareroa inguratu zitzaigun ea zer edan nahi genuen galdetzera. Amaiak keinu urduri batez ez zuela ezer behar adierazi zuen, nik vodka eskatu nuen.

– Entzuidazu Amaia. Gure arraintxoak bere bezeroari informazioa bidali dio dagoeneko. Gure Peter gizagaixoa gozoa jarriko zen, noski, deskubritzerakoan nolako aita jatorra duen. Eta semeak jakiteak aitari ez zion grazia handirik egingo, jakina. Tipo hark jadanik ez du zer galdurik eta mendeku hartu nahiko du. Zera esan nahi dut... diru kontuak orain ez duela batere garrantzirik.

– Nireak egin duela esatera etorri al zara?

Bere aurpegiaren zurbiltasunak marmolaren ukitu ederra ematen zion ordurako sorgor ageri zen gorputzari.

– Tratu egitera etorri naiz.

Hau entzutean Amaia guztiz abaildu zen. Buruaz baiezkoa eginez amore eman zuen; ondoren, larruzko poltsa ireki eta zerbait bota zuen mahai gainera.

– 38L Wad Cutter kalibreko bala! –esan nuen hatz artean arretaz aztertuz–. Oso bala arraroa.

– Atzo bidali zidaten hona kartazal batean sartuta. Ez zegoen besterik. Zure eskuetan nago Markos jauna...

– Dirudienez elkarren laguntza behar dugu. Nik Europako hainbat herrialdetan harreman onak ditut eta ziur egon ez zaituztela aurkituko. Aldi arriskutsuena iraganda ihesbidea ere erraztuko dizut. Lasai egon, arrasto ttikiena ere ez dugu utziko.

– Tratu zuzena iruditzen zait; bestela ere aukera handirik ez dut eta...

Besoa altxatu eta kamareroari deitu zion. *Horse´s neck* bat eskatu eta zain gelditu zen.

– Zergatik hil zuen Louisek Steve?

Nire galderak berriz ere urduritu egin zuen.

– Traizioa gorroto zuelako.

– Jarraitu!

– Ihesi gindoazela gertatu zen. Berez istorioa arrunta eta zitala da: Steve bezalakoxea.

Trago luze baten premian zegoen inondik ere. Kamareroa artean ere gogotik astintzen ari zen koktel-ontzia, Karibeko rumba baten erritmo frenetikoaz astindu ere.

– Ihesi gindoazen basamortuan zehar. Gaua zen eta tadjikak orpoz orpo genituen. Jeepa ahal bezala hondarrez kamuflatu eta duna baten atzean gorde ginen. Gure asmoa zen haiek gu

aurreratzea. Ondoren beste norabideren bat hartu eta zorte pixka batez gure arrastoa galduko zuten; edo, besterik ezean, denbora apur bat bederen irabaziko genuen.

Kamareroa inguratu eta koktela mahai gainean utzi zuen. Amaiak trago luzea jo zion antsiaz, begiak itxita; basamortuko oroitzapen haiek aho-eztarria lehortu balizkiote bezala.

– Gure aurretik pasatu ziren bidelapur zarpail haiek. Ustez dena ondo ateratzen ari zen, baina taldearen atzealdean zihoanak ilargiaren bristada bat ikusi omen zuen jeeparen ispiluan islaturik. Horrexek galdu gintuen!

Amaiaren keinu guztiak larriak ziren, mingarriak kasik. Edalontzia bere kolkoaren kontra paratu zuen, gaurko errealitatea sentitzeko akaso; amesgaizto hura aspaldi bukatu zela bere buruari sinetsarazi beharrez.

Ondoren, bekainak pittin bat harrotu, ezpainak edarian busti eta mingainaz sentsualki ezpainen bustidura gozatzeaz bat jarraitu zuen.

– Konturatu orduko alproja haiek ero modura gure bila hasi ziren. Gu aurkitzea denbora kontua baino ez zen. Ez genuen aukera ttikiena ere!

Orduan gertatu zen. Louis korrika atera zen gure gordelekutik. Zalapartaka eta espantuka beraiek zeuden lekura jo zuen zuzen-zuzenean. Hasiera batean, ikarak eta tentsioak eragindako erreakziotzat jo nuen. Baina bere portaera ustez ero hura ondo hausnartutako plana izan zen... gu bizia salbatu nahian ari zen, behar genuen ataka ttiki hori eskaintzen. Laster hasiko ziren tiro hotsak non-nahi. Louisek bere errebolberraren kargadore osoa hustu zuen gizatxar haien kontra. Ez nuen sekula pentsatuko Louis horrelakorik egiteko gai zitekeenik. Baina hantxe zegoen, zutik, hiltzaile haiei aurre eginez bakar-bakarrik. Kalapita eta nahasmendua erabatekoak izan ziren. Guk aukera aprobetxatu genuen, noski. Jeepera joan, nola edo hala kamuflajea kendu eta ziztu bizian irten ginen handik.

Juliak edalontzia hustu zuen. *Horse´s neck*-ak bular barnea erre zionean, min imintzio arina marraztu zuen ezpainak zimurtuz eta begiak itxiz. Hitzik egin gabe beste bat eskatu zion kamareroari edalontzia hatzaz seinalatuz.

– Eta Louis onik atera al zen?

– Handik urrundu baino lehen atzera begiratu eta bera ikusi nuen, duna baten lepotik behera lasterka zetorrela, keinuka eta oihuka itxaroteko eskatuz.

– Stevek, noski, entzungor egin zuen.

– Nik atzera itzultzeko erregutu nion, bestela hilketa bat izango zela esanez, baina alferrik. Zerri horrek zera esan zidan, atzera bueltatuz gero hirurok hilko gintuztela...

– Bai, orain argi dago.

– Etxe madarikatu hartan Louis ikusi nuenean, sor eta lor geratu nintzen. Mamua ikusi banu bezalaxe. Ez galdetu nola lortu zuen hanka egitea infernu hartatik. Dagoeneko beranduegi da erantzuna jakiteko.

– Zergatik saldu zenituen espediziokideak? –jaurti nion parrastan.

– Mespretxua baizik ez nuen beraienganako. Koldar halakoak!

– Steveren bortxaketa saiaketaz ari zara noski.

– Horrek bezainbeste mindu ninduen gainontzekoen isiltasunezko konplizitateak; baina gehiago bazegoen...

– Gehiago?

– Afganistango emakumeen egoera larria.

Hitz hauek erabat nahastu ninduten.

– Afganistanera iritsi nintzenean neska bat ezagutu nuen: Nafas. Gure artean harreman ederra sortu zen eta haren bidez Afganistango emakumeen zapalkuntzaren testigantza zuzena izan nuen. Emakume xalo hark nire bizitzako unerik gozoenak eta mingarrienak eskaini zizkidan. Bai, kartsuki maite genuen elkar. Afganistan bezalako herrialde batean bi emakumek elkar maitatzea egin litekeen bekatu larriena da. Ez dakit nork salatu zuen. Handik hiru hilabetera, zenbait agintari diruz erosita, Nafas espetxetik ateratzea lortu nuen. Berriro ikusi nuenean, ordea, burumakur eta *burka* jantzita, burua erabat nahasturik zuen. Baita infekzio larria ere bere barruan. Alferrik ahalegindu nintzen ospitale batera eramaten; ospitaleak urriak dira eta emakumeek ez dute horretarako eskubiderik. Are gutxiago, noski, emakume hura *bekataria* baldin bada. Kanpamentura eramatea erabaki nuen, baina horretarako ere jadanik beranduegi zen. Bidean hil zen. Era xumean joan zitzaidan.

Nire besoetan harturik, ordu luzez egin nuen negar lurperatu aurretik. Kartzelatik atera zenetik ez ninduen ezagutzen; inor ez zuen ezagutzen, ezta bere burua ere. Xaharrak topatutako formularen berri izan eta berehala taxutu nuen plana. Tadjikak talibanen arerioak direnez tratu egin nuen beraiekin. Uste baino errazago gertatu zitzaidan haiekin harremanetan jartzea.

– Boterea eskaini zenien emakumeekiko tratu duin baten truke. Erabaki arriskutsu eta ausarta, bai horixe! –jaulki zitzaidan miresmen puntu batez.

– Hasiera batean horixe zen nire plana. Geroago aldatu egin nuen pittin bat...

Bere begiek eskuetan eusten zuen edalontziaren kristalarekin bat egin zuten supituki. Irribarre egin zuen. Irribarrea ikaratzeraino ere hotza zen.

– Azken unean beste baldintzatxo bat erantsi nion gure arteko itunari: kanpamentuko lagun guztiak jo eta garbitzea.

Trago luzea egin zuen eta begiak, amaitu berri den drama baten teloi astuna bezala,

emeki itxi ziren. Gorrotoaren gozoa dastatzen ari zen.

– Huts egin zenuen...

– Stevek hango morroi batek esanda-edo erasoaren berri izan zuen. Ziur asko gainontzekoekin batera neu ere hilko ninduten basati haiek. Horrek ez zidan axolarik ordea. Tratuari dagokionez... Ez dut uste talibanek baino samurrago jokatuko zutenik emakumeekin.

Zigarroa piztu nuen eta isilik egon nintzen Amaiari begira. Ez zuen batere damurik egindakoaz. Bere ahulean printzipioak zituen emakumea zen eta horrek are erakargarriago bihurtzen zuen.

– Tira, hortxe duzu zure hiltzailea –esan zidan begiak lurretik altxa gabe.

– Louisek Steve akabatu zuela begi-bistako kontua zen. Tadjikek eskuin besoan egindako zauriak zirela eta, ezkerreko eskuaz xehatu zuen bere lagun minaren gorputza, ahal izan zuen moduan. Bestalde, berari aurkitutako Steveren erretratu puskatuak gure Louis gizagaixoak nolako barne gatazka bizi izan zuen adieraziko luke. Bai, kanposantuan ikusi zenez, mendekuak ero-

menaren atakan jarri zuen kasik; azkenerako, ezin izan zuen burutu bere baitako atsekabea. Orain esku artean nituen datuek guztiz bat egiten dute gertakariarekin: aiztoaren inskripzioa, Louisen zauri larri haiek... Louis hiltzailea zen, noski; horrenbeste banekien, baina egiazko motiboa falta zitzaidan.

– Orain lasaiago egon zintezke.

– Lasaiago?

– Hilketa argitu duzu, zorionak detektibe jauna!

– Oraindik kasua ez da erabat argitu ordea; hainbat gauza daude ilun samar. *Loreen* lapurreta edo lehengo tiroketa kasu.

– Hala ere hobe da lapur bati aurre egitea hiltzaile bati baino –hau esanik bere aurpegia are gehiago zurbildu zitzaion; bere egoeraren larriaz kolpetik jabetu izan balitz bezala–. Bestalde, lapurrak ez du inoiz bere asmoa beteko. Horretan ere lasai egon zintezke...

– Oso ziur zaude horretaz.

Amaiak begirada hotza luzatu zidan. Harrigarria zen egiaztatzea sentimenduek borborka eta gainezka nola egiten zioten. Nortasun konplexua

zuen zalantzarik gabe. Orain samurtasuna, gero ikara, hurrena gorroto edo hoztasuna...

– Nik banekien berandu baino lehen formula lapurtuko zidatela –jarraitu zuen Amaiak–. Lapurtu zidatenean, poztu ere egin nintzen. Halarik ere lapurreta burutu bitartean denbora izan nuen. Hausnartzeko denbora, ziria sartzeko denbora.

– Argi hitz egingo al duzu behingoz?

Amaiak errukiz begiratu zidan, edo niri behintzat hala iruditu zitzaidan. Bere ustez argi asko zegoen esan nahi zuena eta nire lerdokeria baino ez zen nabarmen geratzen zena.

– Zera, lapurtu zidaten formula aurrez faltsutu nuen. Egia esan, ukitu batzuk baino ez nizkion egin; formula osaketa zapuzteko nahikoa ordea.

Hau esanik, arbelean ariketa bikain burutu duen ikasle azkarraren planta hartu zuen. Neuregandik –beraz harro egon behar zuen irakaslearengandik–zorionak noiz jasoko zain geratu zen.

Saria irabazi zuen.

Paperezko ezpain-zapi batean helbide bat zirriborratu eta pasa egin nion.

– Bihar goizeko bostetan taxia hartu eta helbide honetara joan. Zure zain egongo dira. Konfiantzazko lagunak dira, lasai, ez dute galderarik egingo.

– Goizeko bostetan?

– Segurtasun neurria da. Balizko jarraitzailea nabarmenago geratuko litzateke ordu ttikitan. Hala eta guztiz ere, mugimendu susmagarririk antzemango bazenu dei egidazu berehala.

Ez genuen gehiago hitz egin. Itxura batera konforme geratu zen bere infernu partikularrean. Ni etxera joan nintzen zuzenean; dutxa baten premian bainengoen. Jaka erantzi baino lehen 38L Wad Cutter kalibreko bala poltsikotik atera eta begira geratu nintzaion, pentsakor. Truku zikina, bai, baina ondo atera zen eta hori zen, azken buruan, axola zuen bakarra. Ondoren, 38L Wad Cutter kalibreko bala hura kaxara itzuli nuen gainontzeko balekin batera.

–3–

Eguzkiak gogor berotzen zuen aspaldiko partez. Eguerdiko hamabietarako egina nuen hitzordua Juliarekin, etxe baten atikoan. Berak ezarritako zita-lekuak harritu ninduen, baina garrantzitsuena zen Julia ikusi egin behar nuela. Nerabe hanka-gorri bat bezain urduri nengoen.

Txurdinaga auzoko etxe hura zerua zulatu beharrean ari zen etxe-orratza zen. Igogailua hartu eta azken solairuraino iritsi nintzen. Handik gora eskailera batzuk eta erdi zabaldutako atea zeuden. Atea bultzatu eta atikora irten nintzen. Kable eta telebistako antenak zeuden hanhemenka barreiaturik. Izkina batean, bi makilaren artean zintzilik, maindire eta kulero batzuk. Pixka bat harantzago, kulunkaulki batean eserita, Julia. Eguzkitarako betaurrekoak jantzita zerura begira zegoen, niri bizkarra emanez. Atzetik inguratu nintzaiolarik, hitzik esan gabe, besoa luzatu zuen bere aldamenean esertzeko adieraziz.

Bere ondoan eseri eta ordura arte kasuari buruz nekien guztia kontatu nion.

Azalpena bukatu baino lehen Juliak betaurrekoak erantzi eta bere begi ttiki zorrotzek alderik alde zeharkatu ninduten.

– Louis koitadua! –isuri zuen hasperen batean bildurik.

Hura izan zen bere erreakzio bakarra. Bestela zirkinik ere ez.

– Orain ditxosozko formularen osaketari ekin behar diogu.

Julia jaiki eta atikoko barandan bermatu zuen gorputza. Beherantz begiratu eta sorbaldak pittin bat abaildu zituen.

– Kasua bertan behera uzteko abagune aproposa agian... Nire esku balego –esan zuen bere kolkorako bezala.

– Hona ezkero atzera bueltarik ez dago Julia.

Malkoz bustitako begi kizkur haietan nire baieztapenaren hutsala ederki ikusi nuen.

– Zenbat atal eduki ote ditzake lapurrak bere eskuetan? –galdetu zuen atikoko erlaitzean eseri eta besoak tinko soinaren bueltan gurutzatzen zituelarik.

– Steverena, Louisena akaso... eta berea noski.

– Amaiarena ahaztu zaizu.

– Amaiari ostutako formula faltsua zen; berak aurretik aldatutakoa, alegia.

– Hortaz, gure lapurrak lau dauzka baina batek ez du balio...

– Gure lapurrak ezin osatuko du sekula loreen formula; baina berak ez daki hori, noski: horixe dugu aldekoa.

– Tira, kontsolagarria liteke bai. Guk agian ez dugu lortuko gure helburua, baina berak ere ez. Susmagarririk?

– Denak... zarete noski susmagarriak –Juliak, hau entzunik, bekainak harrotu eta harridurazko begirada luzatu zidan–. Agian Jokinek zerbait ezkutatzen digu bere zaldun planta ponpoxo horren azpian. Formulak lapurtzeko abagune ederra izan du bederen.

Juliak beheko porlanezko paisaia arnastu zuen. Haize ustelak ilea lohitu eta korapilatu egiten zion etengabe. Niregana bueltatu zenean, harrizko xurrutarri baten planta harturik zuen. Urrats leunez kulunkaulkira joan, botila xanpaina

azpitik atera eta lorontzi baten ondoan prest zeuden bi kopatara zorrotada naro bana isuri zuen. Kopa inguratzean eta artean xanpaina ahoan nuela, bere ezpain suharrak sentitu nituen neureetan.

Bilbo nire oinetan zetzan. Zerua berunezkoa; Bilboko ezkerraldeko tximinietatik botatakoa bezalakoxea. Emeki biluztu genuen elkar. Juliak eskutik heldu eta atikoko porlanezko erlaitza aukeratu zuen ohatze. Une batez, izuturik, geratu egin nintzen. Behera begiratu eta nire biluztasunak bat egin zuen hiriaren biluztasunarekin, enkontru latz eta amultsua izan zen. Arriskuaren ertzean egin genuen amodioa. Mugimendu bakoitza dastatuz eta doi neurtuz, arriskuaren xarmaz plazera emendatuz. Gure barrenak askatutako txilioak Bilboren betiereko marmarrean galdu egiten ziren, edo agian mamutzar handi horrek irensten zituen gupidagabe bere burua elikatuz. Juliaren ilargi-erdiko zintzilikarioa dilindan ari zen bere lepotik behera, plazeraren mugagabeko horizontetik irristan legez. Zoramen gorenaren gailurra erdiestekotan nengoela sentipenek hautsitako Juliaren begitarteari errepara-

tu nion. Eta nire buruari galdetu ere egin nion inon ba ote zen gu biok elkartzen gintuen loturarik. Galdera xelebrea, nonbait, zeruaren gozoa miazkatzear zegoen ni bezalako gizagaixo batentzat.

Nire gorputza alderen alde urratu eta berriz ere begiak zabalduta lainoteria grisaxka hura nire begietara amildu orduko etorri zitzaidan erantzuna gogora: labanaren aho zorrotzetik barna ibiltzera kondenaturik geunden orekariak ginen gu biok. Txalorik eta sarerik gabeko orekariak...

–4–

Gau hartan Bilboko alde zaharrera joan nintzen. Azken aldian gauza gehiegi gertatuak ziren eta nire buruari atseden eman nahian inguratu nintzen hara, trago batzuk edateko asmoz. Gaztetxo koadrilak lurrean eserita zeuden han-hemenka, kalimotxo *litronari* helduta eta builaka. Taberna baten ondoan tipo begi bakar bat zegoen; alboka modu traketsean jotzen zuen, txakurra hanketan kiribildurik zeukala. Lurrean txapela hiruzpalau txanponekin. Hogei duroko txanpona bota eta txakur txikia, brastakoan jaikita, atezuan jarri zen marmar egiten zuen bitartean.

Tabernara sartu nintzen.

– Anisa ateraidak, nahi duan markakoa.

– Eskailerapekoa aterako diat lagun, ez haiz kexatuko –tabernariaren begi gorriari erreparatu nion aurrena; ondoren musu irribarretsu kirasdunak erasan zidan urdailera.

Gazte mordo bat zebilen Athleticeko bufanda jantzita. Aspaldiko partez irabazi egin zuen, antza.

Anis merkeenetik atera zidan. Kopa aurrean nuela, tabernariaren hortz horixkak eta mingain lodia ez ziren oztopo izan bigarren bafada ustela bete-betean neureganatzeko. Kopa hartu eta barratik urruntzen saiatu nintzen; hala ere, lau bat urrats besterik ez nuen eman norbaitek besotik heldu zidanean.

– Pablo!

Ez zuen oso itxura txukunik. Larruzko zamarra jantzia zuen, bi eguneko bizarra eta fular antzeko bat lepoaren jiran bilduta. Ikusi bezain laster zerbait hautsi zitzaidan nire barnean eta beroa sentitu nuen. Nire gorputz guztia kiskaltzeko moduko sugarra.

– Penak ahaztu beharrean? –bota zidan ahots zakarraz nire kopa seinalatuz.

Nire buruaren jabe izaten saiatu nintzen erantzun aurretik. Juliarekin gertatutakoaz ez nion inongo konturik eman behar; bion aldetik eta inongo azpijokorik gabe sortu baitzen erakarpena: erabat modu naturalean. Pablo, beraz, ez zen nor inori kargu hartzeko... Apur bat lasaitu nintzen.

– Ez motel, hau bizio hutsa baino ez duk.

– Bizio asko ote dituan susmoa zeukaat nik.

– Bizitzeko adina, besterik ez.

– Eta nola doa mendeko misteriorik handiena? –bota zuen ironiaz.

Une batez gaiaz aldatzea estimatu nion. Ahalik eta hitzik zehatzenak erabiliz jakinaren gainean jarri nuen. Louisen kontuak itxuraz erabat ustekabean harrapatu zuen.

– Behingoagatik gizonki jokatu zian gure Louis gizagaixoak... Baita larrutik ordaindu ere –ondoren, pixka batean hausnar egin ondoren barrena lehertu zuen–: Steve kabroi zikina, betirako ustelduko ahal haiz lurpean!

– Steveren hilketa eta Louisen suizidioa hein batean argitzeak beste dimentsio bat ematen ziok kasuari, noski: lapurreta.

Pablok kolpetik edan zuen eskuan zeukan garagardoa. Berehala, irlandar whisky bat berarentzat eta, aurretik galdetu gabe, beste anis arrunt bat niretzat atera zituen. Zurrutada jo, keinu egin eta hitz egiteari ekin zion. Agian hilketa argitu izanak eragindako arinduak mintzatzeko gogoa areagotu zion. Nik, hasierako zalantzak erabat gainditurik, arretaz entzun nion.

– Ederki damutu zaidak zorioneko espedizio hartara joan izana, zinez esaten diat. Orain, hala ere, goiari eutsi behar zioat... berarengatik.

Ordurako, kasuan jarraitzeko jendeak zituen arrazoi altruistekin nazkatzen hasia nintzen. Zergatik ez zituen inork aipatzen formulak eman zitzakeen botere eta dirutza ikaragarria? Denak hain jator eta borondatetsu izateari errezelo txarra egina nion erabat. Juliak bere aitarenganako errespetuarengatik egiten omen zuen guztia eta Pablo, berriz... Behiala hain izuturik eta desesperaturik azaltzen zen gure mutila orain Juliarengatik omen zegoen kasuan. Amodioa eta elkartasuna, jakina. Ez omen zegoen beste interesik afera honetan, maitasunaz besterik.

– Mutil zintzoa haiz benetan Pablo –bota nion nabarmenki ironiatsu.

– Julia ez al zaik iruditzen arrisku hartzeko nahikoa motibo? –nire ziplada ederki itzuli zidan, ni une batez hitzik gabe uzteraino itzuli ere.

Zurrut egin aurretik begiak anisaren gardentasunean tinkatu nituen; bertan erantzuna egongo balitz bezala.

– Gauza bat argitu beharra zagok behingoz!

Hitz hauek esan izanak edo, hobekiago esanda, botatzeko modu arinak ni neu harritu ninduen. Pablok irribarre enigmatikoa egin zuen, horren zain egon izan balitz bezalaxe.

– Hara detektibe jauna... Juliari dagokion guztia aspaldi argitua zagok, eremu horretan ez duk lardaskan aritzerik eta kitto. Ez zioat inori utziko Juliaren eta nire arteko harremanetan muturra sartzen. Are gutxiago, noski, heu bezalako detektibe zirtzil hanka-tarte estua baldin bada.

Bere hitz parrastadak nolabait ere lasaitu egin ninduen. Juliak eta biok genuen harremanaz susmorik baino ez zuen. Hobe zen kontua, momentuz, bere horretan uztea.

Nire oldarraren zain zegoen erne. Agian egundoko iskanbila espero zuen nire partetik. Bere matraila gogor jotzea berak desio zuen neurriko erantzuna zitekeen, kasu; edo aurpegira destainaz tu egitea gutxienez. Niri muturra hausteko gogoa nabarmenegi zitzaion, ni bere tranpan itsu-itsu eror nendin.

– Tira, goazemak tragoa hartzera!

Nire tokitik jaiki, atera eta zain geratu nintzen. Pablo berehala azaldu zen. Aurpegi zurruna

eta muturra doi bat okertuta zeuzkan. Urrats batzuk egin zituen noraezean bezala; gero une batez gelditu eta baiezkoa egin zidan buruaz.

Alkoholak eztarria urratu ahala, izotzaldia urtuz joan zen. Begirada gorrien eremu magikoan barneratu ginen emeki-emeki, gure kezkak eta errezeloak alde batera utziz. Ni une batez kasuaz ahaztu nintzen eta zauriaren ziztadak, neurri batean bederen, leundu ere egin ziren. Gauak konturatu orduko irentsi gintuen.

Modako pub eta tabernak itxita, San Francisco kalean dekorazio dekadentez apaindutako taberna zikin batera sartu ginen. Whisky bana eskatu genuen.

– Agian hauxe duk merezi duen bakarra –zezeldu zuen whiskya begien parera ipini eta samurkiro astintzen zuen bitartean–. Honek eta ez besterik sentiarazten gaitik bizirik.

– Bazagok beste zerbait, Julia..

Bukatu baino lehen damutu nintzen hitzok esan izanaz; beranduegi ordea.

– Ondo zagok zerri arraioa! Hi tipo legala hintzela sinesten hasia nengoan... Baboa ni, deskuidu ederrean nengoan, bai horixe!

Eskua altxatu nuen barkamen eske, baita desenkusatze hitzak bilatzen ahalegindu ere ahal nuen azkarren; hala ere, burua guztiz geldo nuen. Ez nengoen bertsotan jarduteko moduan prexixo. Nire lehenengo hitza zizakatu baino lehen Pablok bere edalontzia hartu eta jo eta kopetan lehertu zidan.

Zerraldo erori nintzen lurrera, tabernako mahai bat eta aulki batzuk ere botaraziz. Nire onera etorri nintzenerako Pablo nire gainean zegoen eta gorputz guztian ukabilkadak jo eta jo ari zen.

Handik aurrerako oroitzapenak zeharo lurrinduta dauzkat.

Lurretik takoidun zapatak ikusi nituen, hori bai. Nire begien parean barre egiten zuten ezpainak ere gogoan dauzkat. Eta zarata. Egundoko zarata. Burmuinak alderen alde zulatzeko adinako orro gupidagabeak. Neuk ere zartakoren bat joko nuen noski, hori pentsatu nahi nuke bederen, nahiz eta seguru ez izan.

Esku bat nire aurrean: Pablorena. Lehen itxia eta erasokor zegoen hura ustekabez zabaldu egin zen. Ez dut uste horretarako arrazoi sendo-

rik zegoenik baina nire buruko hutsune amaraunetik horixe berreskuratu nuen biharamunean eta merezi duen sinesgarritasunaz kontatzen dut.

Eta agian egunsentia eta harresia ere egon ziren, nahiz eta azkeneko hauek dudazkoak izan. Harresiaren gainean eserita geundela, Pablok botila pasatzen zidan lehenengo argi-printzen arrimuan isil-isilik. Kanta zaharren bat ere egon zitekeen sortu berriko eguzkiarekin ondotxo zetorrena; baita kristal hautsiak eta malkoak. Baina zertarako ahaleginduko naiz gehiago oroitzen?

BARAK

Barak: *Zurezko zurtoin igokaria. Hosto handiak, gainalde nahiz ifrentzuan iletsu samarrak; kolore berdatsa izaten dute gehientsuenetan. Loreek (luku-erakoak) kolore purpura erakusten dute eta hogeita hamar inguru izaten dira landare bakoitze-ko. Oso pozoitsua da, behar bezala eta neurri egokian erabili ezean beti ere.*

–1–

Berandu jaiki nintzen hurrengo egunean. Egundoko ajea nuen eta burua Santiago katedraleko kanpaia baino astinduago sentitzen nuen. Ur zorrotada edanez mingaina ahoko likatik libratzea lortu nuen. Jateko epea aspaldi samar amaitua zuen lata eskuratu, ireki eta probatu egin nuen. Usaintze hutsak goragalea eman eta baraurik irten nintzen kalera.

– Taxi!

Taxiak gelditzeko maniobra egin zuen, baina hurbiltzeko astirik eman gabe alde egin zuen berehala. Kaka zaharra! Zinez piura narrasa izan behar nuen! Oinez joatea erabaki nuen. Gainera, hesteak zeharo kili-kolo nabaritzen nituen eta hobe zen larrialdi baterako prest egotea.

Jokinen etxeko helbidea egiaztatu nuen. Urkixo zumardia hartu nuen aurrena, Aretxabaleta kalera jiratu eta Simon Bolivarretik barrena Jose Maria Eskuza kaleko hogeita hamargarren atarira iritsi nintzen. Gora igo eta atea erdi irekita ikusi nuen. Emeki bultzatu eta sartu egin nin-

tzen. Barrua iluna zegoen. Haztamuka saiatu nintzen argi-etengailua bilatzen. Alferrik. Urrats batzuk egin nituen barrurantz itsumustuka. Supituan estropezu egin eta muturrez aurrera erori nintzen. Metxeroa piztu eta su-lama ikaratiak behar adina argitu zuen. Kopeta zulatuta zeukan Jokinen gorpua ikusteko adina, alegia.

Etxe barrura sartu nintzen. Egia esan, ez dakit zergatik sartu nintzen. Agian ez zen unerik aproposena zokomiran hasteko; baina azken finean une hura ez zen ezertarako ere egokia.

Itxura batez aparteko deus ere ez zen ageri.

Orduan gorpuarengana itzuli nintzen. Bere aurpegi desitxuratuak artean ere bere gentleman hazpegiak gordetzen zituen. Soseguzko aurpegiera zuen. Egundoko zama gainetik kendu zaion baten imintzio erdi zorionekoa.

Patrikak miatzeari ekin nion. Ez nuen ezer berezirik bilatzen, baina horixe iruditu zitzaidan jokaerarik profesionalena. Lehendabizi galtzetako aurreko poltsikoak. Giltzak, sudur-zapi zikina, metroko txartel zimurtua... Atzeko poltsikoan diru-zorroa. Larru beltzezkoa, zilarrezko izkinak zituena, garestia. Barruan hamar milako billete

bat eta masaila guriko emakume baten erretratu zaharra, zuri-beltzekoa. Bere aurpegiaren ondoan paratu nuen. Uneko zirkunstantziak gorabehera, bazuen nolabaiteko antza. Bere amaren argazkia diru-zorroan! Bazitekeen txikitan amazulo amorratua izatea ere. Nork esango zuen Jokin bezalako gizon zorrotz eta dotore batez.

Diru-zorroko paper guztiak atera eta lurrera bota nituen.

Ondoren, banan-banan hartu eta aztertzeari ekin nion. Errezeta bat, tren-gida zaharkitua, nortasun agiria, zientzialari elkarte bateko txartela... Paper batzuk odolez zikinduta zeuden; izan ere, ordurako lurrean odol putzua baitzegoen. Horrek, zalantzarik gabe, egoeraren narrasa areagotzen zuen. Azkenean, ondo tolestutako papera azaldu zen. Bistadizo bat aski izan zen. Bere formula atala zen.

Halako batez norbait azaldu zen atean. Gutxienez laurogeita hamar urte zituen atsoa zen, erruloak erantsitako zimur erraldoia.

Gorpuari begiratu zion eta bere azal odolgabea are gehiago zurbildu zitzaion. Atsoak hilobitik atera berria zirudien eta agian hala zen.

Oihu egin zuen.

Oihu egin nuen.

Herio bera neure aurrean banu bezalaxe egin nuen orro. Gero, atsoa bazterrera bultzatuz lasterkari eman nion. Andrea hankaz gora erori zen lurrera eta hezur kraskatuen hotsa entzun nuen. Eskailerak arrapataka jaitsi nituen. Atsoak oihuka jarraitzen zuen, lehen baino ozenago. Sekula ez nuen pentsatuko bere adineko pertsona batek halako birika ahaltsuak eduki zitzakeenik. Bizilagun batzuk eskailerara atera ziren asaldaturik. Haietako batekin, gizon gilbor handi moxtaka batekin, estropezu egin eta behera erori nintzen. Zutitu baino lehen gora begiratzeko denbora hartu nuen: han jarraitzen zuen. Atsoak eskailerako barandan bermatuta zeukan gorputza eta *Hiltzaile! Hiltzaile!* Egiten zuen deiadar behin eta berriz hatzarekin ni seinalatuz. Errulodun buruaren silueta era harrigarri eta beldurgarriaz nabarmentzen zen han, goian.

Noizbait atarira iritsi nintzen!

Metro batzuk egin nituen korrika. Ez zen ezer gertatu. Jarraitu egin nuen itsumustuka. Arnasestuka ari nintzen eta bareak arrunt harturik

nindukan; une hartan ederki damutu zitzaizkidan bizitzan edandako vodka eta garagardo guztiak. Unean baino unean arazo gehiago nituen arnasari buelta emateko eta izerdia parrastan erortzen zitzaidan kopetatik behera.

«Hortik doa, hortik doa gaizkilea!!!», entzun nuen behar baino gertuagotik oihuka. Nik ezin nuen gehiago, jo eta lehertu behar nuen bertan. Hamaika begi eta aho bilduta neuzkan garondoan. Une hartan, lurra erdibitu eta bertan irenstea desio nuen. Ezustean, metroaren sarrera zabaldu zen nire oinetan. Itsumustuan jaitsi nintzen. Itxuraz han jendea lasai asko zebilen. Ez zidaten erreparatu ere egin. Txartela erosi eta urduri antzean jaitsi nituen eskailerak. Zaindariak begi errezelotsuez begiratzen zidan; urduriegi nengoen oharkabean pasatzeko. Banekien nire bizitza erabat aldatuko zela. Zaindariari begiratu nion. Berak niri begiratu zidan. Handik aurrera dena desberdina izango zen. Azken finean, baliteke ohitura kontua baino ez izatea giltza. Aske eta bizirik jarraitzeko giltza, alegia. Brastakoan nire hiltzaile-pentsamendu guztiak ahitu egin ziren. *Ni ez nintzen hiltzailea*!!! Agian garaiz nengoen

nire errugabetasuna frogarazteko. Ni detektibea nintzen eta Jokin kasuan sartuta zegoen. Ez zen hain harrigarria ni han egon izana. Bai. Atso baten histerismoa zela eta sortutako gaizki ulertua baino ez. Hala da komisario jauna, kasua are gehiago korapilatu egiten da hilketa berri honekin. Sokaren muturra aurkituz gero mataza berez askatuko da, ziur egon. Zigarrorik? Tira, askotan saiatu naiz uzten baina alferrik. Badakizu, gaztetako bizioak nekez gainditzen dira, baina nik ez dut esperantza galdu. Kasu askatzeko esperantza? Ez, zera, erretzeari uzteaz ari nintzen! Kar-kar-kar! Bai, beste gaizki ulertu bat; izan ere, mundua gaizki ulertuz josita dago. Ederki ba. Lanari ekin beharko diot eta nahi duzun arte, zure esanetara naukazu Mantxola jauna... *Mantxola*!!! Ez, ez zegoen aukera ttikiena ere. Mantxola ordurako gorpuaren ondoan egongo zen. Atso histerikoaren bertsio histerikoa entzuten gozatuz. Jadanik nire deskribapena poltsikoan edukiko zuen, eta odoletan neoizko iragarki bat bezain nabarmen agertuko ziren hatz marken ikerketa tramite hutsa baino ez zen izango mendekuz egarri zegoen Mantxolarentzat.

Kaka zaharra! Agian dena argi nezakeen. Baina Mantxolak ez ninduen libre utziko. Kasua bertan behera utzi beharko nuen eta vodkaz puska batean ahantzi. Azeriaren harrapaketa hasia zen eta Mantxola nire ipurdi aluari kosk egitekotan zegoen. Ez zegoen beste aukerarik. Aurrera jarraitu beharra neukan. Bidean lehertu gaiztoa hartu edo Mantxolaren ehiza txakurrek ni harrapa eta txikitu arte. Halabehar zerria neurea!

Zaindaria telefonoz hitz egiten ari zen niri begirik kendu gabe. Banekien berandu baino lehen Mantxolaren eztarri-zuloan bukatuko nuela, baina lehenago kasua argitu behar nuen. Nire eginbeharra horixe zen. Egia esan, une hartan hori zen nire ziurtasun bakarra. Nola edo hala, kosta ahala kosta, kasu madarikatua argitu beharra neukan.

Bigarren zaindaria lehenengoarekin hizketan ari zen. Orain bi ziren niri begira zeudenak. Orduari begiratu nion. Ez dakit zergatik baina begiratu egin nion. Ez nekien trena zein ordutan etorriko zen, baina halako egoeran egin nezakeen keinurik naturalena izan zen. Ezin dut eraman jendeak hain modu nabarmenez niri begiratzea!

Horrek gaixotu egiten naik! Eta bi mozolo haiek hantxe zeuden, begiak zabal-zabalik atezuan, zer egin ere ez zekitela. Sinpletzar arraioak!

Iragarki bati begira jarri nintzen. Uste dut bidaiak iragartzen zituela. Familia bat ageri zen maletaz karga-karga eginda. Neuk ere beste bide bat hartu izan banu familia-buru nintekeen. Ume tropa bat ibiliko zitzaidan *aitatxo, aitatxo* deika eta neu eredu izango nintzaien seguruenera. Agian garaiz nengoen artean. Gero Juliaz gogoratu nintzen eta nire balizko familia gogoan irudikatu zitzaidan. Denak egurrezko landa-etxe baten atarian zeuden, antigoaleko erara jantzita. Juliak xarma berezia izango zuen horrela jantzita. Umeak, berriz, bospasei denera, lerroan eta zerbaiten esperoan zeuden. Haiek ere niri begira. Kaka! Han zeuden pozez zoratzen. Inoiz aterako ez zen argazki baten zain bezala.

Trena iritsi egin zen.

Jendeak, istant batean, lerrokada perfektua osatu eta sartzeari ekin zioten. Neu ere ilaran jarri nintzen. Ehun kilotik gorako atsoa zegoen nire aurrean, poltsa ñimiño bat irmo zapaltzen zuen bere bular itzeletan, nitaz errezelo txarra

hartuta ziur aski. Treneko atea bertatik bertara ikusi eta pittin bat lasaitu nintzen. Beste begirada bat, azkena agian, zakur zaindari leialei. Lasaiago ziruditen. Ederki. Metro pare bat baino ez bagoian sartzeko. Atsoak mantso eta baldarki ematen zituen urratsak. Urrats txipiak. Supituan zarata entzun zen. Zaindari ergelak zeuden tokitik heldu zen. Haiekin pertsona gehiago zeuden orain. Oihuka eta urduri antzean hitz egiten zuten. Zaindariek guztiz nahasturik ziruditen eta espantuka ari ziren jendearen aldera seinalatuz, ni seinalatuz. Beraien artean aurpegi ezaguna: Mantxola. Une labur batez elkarren begiak topatu eta Mantxolak irribarre lerdetsua eskaini zidan.

Bat-batean denak trumilka abiatu ziren niregana. Atsoa atearen alartzean zegoen, barruko jende ugariaren tartetik pasa ezinik. Zirt edo zart egin beharra nuen! Begiak itxi eta, ahal bezain bortizki, barrurantz bultzatu nuen haragizko handitasun itzel hura. Andrea lurrera erortzean hiruzpalau lagun bota zituen. Baten bat, gainera, azpian harrapatuta geratu zen. Haiek ziren haiek

kalapita, nahaspila eta atsoaren orro egin beharra!

Atea itxi eta trena abian hasi zen.

Kristalaren beste aldetik txakurrak ikusi nituen. Nire paretik ari ziren, korrika, arnasestuka. Haietariko batek pistola niregana zuzendu eta horrek barruko nahasmendua areagotu zuen. Orain nire inguruko gehienak zeuden lurrean botata. Mantxola ez zegoen jarraitzaileen artean. Hura zaharregia eta azkarregia zen lan zikina egiteko. Gainera bere eginbeharra bete zuen: bere irribarre hark argi asko jakinarazi baitzidan edonora nindoala ere, ez nuela ihesbiderik.

Ez dakit zenbat geltoki pasa nituen tren madarikatu hartan goragaleak erasan zidanerako. Denbora motel pasatzen zen nire burutik. Ezin nuen ganoraz pentsatu edo sentitu. Goragalea. Hori baino ez nuen sentitzen: nire baitaren sakontasunetik bota beharra.

Trena gelditu eta tarrapataka jaitsi nintzen. Atzean geratu ziren jendearen begirada zorrotzak eta laidozko marmarak.

Geltokian bertan txahala bota nuen. Nire barrena hustu eta lasaitu egin nintzen. Jendearen

begiradak areagotu egin ziren nire baitan. Jadanik inguruaren zama eta jendearen arrunkeria berdin zitzaizkidan. Garbia sentitzen nintzen. Nahiz eta galtzak eta zapatak okaz zikinduta eduki. Gero lurrean eseri nintzen eta buruko makineria, nagiz baina ziurtasunez, berriro ere abian hasia zela sumatu nuen.

Eta barre eta algara egin nuen. Aspaldiko barrerik gozoena egin nuen une hartan.

Saihetsean jotako ostiko bortitzak deblauki itzuli ninduen hilkorren zingiretara. Zinpeko guarda nazkagarria nuen aldamenean. Bere aurpegian gorrotoa eta nazka ageri ziren.

– Kabroi zikina! Mingainaz garbiaraziko dizkiat hire zikinkeria guztiak!

Paparretik heldu eta indarrez astindu ninduen burua nire goitikinetan sarraraziz. Alde egiten saiatu nintzen erdi arrastaka baina astapotro hark bizkarra hankaz zapaldu eta ihesa zapuztu zidan. Eskua astindu nuen amore ematen nuela adieraziz. Berak hala ulertu zuen. Poliki jaiki nintzen lurretik.

Eskuak altxa eta ahalik eta umiltasunik handienaz inguratu nintzaion. Borra nire aldera dan-

tzarazten zuen ni jo eta txikitzeko irrikatan. Aurrez aurre jarri ginen. Borra kokospean paratu zidan, hotza eta gogorra zegoen. Orduan, amorruz, nire belaunaz egundoko potrotakoa jo nion. Ez zen berehalakoan jausi, mantsoki (samurkiro kasik) baizik. Dokumentalen batean ikusi nuen lantegi zahar bateko tximinia hura bezala. Dinamita lehertu eta azpia birrinduta eduki arren, nagikeriaz erori zen, naturari berari kontra egin nahi izan balio bezala. Kostatu bazitzaion ere tipo higuingarri hura nire oinetan zegoen. Segituan, ileetatik heldu eta burua lurraren kontra jo nion. Hezur kraskatuen hotsa entzun zen. Suduretatik odola borborka isurtzen zitzaion.

–2–

Metrotik atera eta ikusi nuen lehen tabernan sartu nintzen. Nire burua ernaraziko zuen zerbait behar nuen. Ginebra hutsa botatzen ari zen bitartean tabernariak begi mesfidatiz begiratu zidan. Ez ditut gogoko tabernari mutur luzeak. Edaria zerbitzatzeaz bat zure barrena, edo arima, edo iragana asmatzeari ekiten diotenak. Hura haietako bat zen, noski. Hala ere, momentu hartan banuen kezka astunagorik, non lo egin, kasu.

Telefonotik hots egin nuen.

Andonik ostatuaren helbidea eman zidanean ez zuen galderarik egin. Egoeraren larritasuna antzemango zuen noski. Nire lagunak bazekien zuhurra izaten; horixe zuen bertuterik handienetako bat. Helbidea eman, zorte ona opa eta *laster arte* soil batekin hizketari amaiera eman zion. Lagun zoragarria.

Kasuaz ere hausnarketa egin beharko nuen. Ez dago esan beharrik Jokinen hilketak are gehiago kakaztu zuela dena. Jadanik hiltzailerik

ez zelako uste lasaigarria irentsi beharrean nengoen. Baina okerrena zen gertatzen ari zenaz arrastorik ez nuela eta zulo beltzetik behera amiltzen jarraitzen nuela, gero eta beherago. Alkandorako patrikatik paper zimurtua atera nuen. Jokinen formula atala. Jokinen *lore* madarikatua nire eskuan zegoen. Hiltzaileak ez zuen formula bilatzen. Are gehiago, ez zuen interes txikiena ere paper pusketa horretan; bestela aise aurkituko zuen papera. Neuk aurkitu nuen bezalaxe. Formularekin lotura zuzena ez zuen beste zerbait bazegoen kaka horren azpian. Kasua argitzea nire ihesbide bakarra zela pentsatze hutsak azala oilo-ipurditan jartzen zidan; izan ere, neure geroarengatik inork ez zuen sosik ere emango.

Taxian joan nintzen ostaturaino. Bilboko aldirietan zegoen, auzune urrun eta pobrean. Ostatua etxe zahar batean zegoen. Leihoetako kristalak, zikinkeriaren zikinkeriaz, ia opakoak ziren. Ez nuen ahalegin handirik egin behar bertako bizilagunak pixontziak leihotik behera husten irudikatzeko.

Barrura sartu nintzenean, putetxea zela konturatu nintzen. Andoni aurretik madamearekin

hitz eginda zegoen, beste behin bere prestutasun fina erakutsiz. *Marlyne* ezizenez aurkeztu zen delako madame hura. Ordura arte, nik pentsatzen nuen putetxetako madame guztiak gizen eta bulartsuak zirela. Deskuidu ederrean nengoan! Marlyne sardina hezurra baino lehorragoa zen. Bazuen, hala ere, halako fintasun edo dotorezi kutsu atsegina. Gauean, afaritan, lanean ari ziren lau neskak ezagutu nituen: *Perla, Marcia, Lidia eta Xaho-Xaho.* Marcia brasildarra zen eta bere azala eta batez ere usaina kafe eho berriarena zuen. Xaho-Xaho ekialdeko neska txipia zen. Onesmen guztizko irribarre kilikagarria ageri zuen beti. Bai, Xaho-Xaho irribarrea zen. Beste batzuek titi oparoak edo ipurdi kulunkaria arma gisara darabiltzaten bezala, aho txiki hura zen Xaho-Xahoren xarma eraginkorrena. Marciak behin aitortu zidanez, Xaho-Xaho zezenketei buruzko ikerketa egitera etorri zen Bilbora. Eta toreatzaile bat izan zen, hain zuzen ere, Bilboko gaueko bizimoduaren gazi-gozoak erakutsi zizkion lehena. Hala ere, Marciak hori kontatu zidanean *xixtatu* berria zegoen eta, halakoetan, esanak eta izanak ez dira beti bat etortzen. Perla

errumaniarra zen eta bere hizkera eta itxurarengatik gerra hotzeko espioi baten traza hartzen nion. Agian langabezian geratuko zen, bere bizitzan zehar mendebaldeko ehunka diplomatikori hartu zuten lehenengo ahia ere aterarazi eta gero. Izan ere, politika beti esker txarrekoa izaten baita. Lidia zen guztietarik gazteena. Ezin azaldu nezake bere begien kolorea. Nahasia, gandutsua, berdexka iluna... Kotxe baten olio aldatu berria. Bai, halakoxe kolorea zuten begi misteriotsu haiek. Lidia zen *xixtatzen* ez zen bakarra. Lidiak poesia irakurtzen zuen. Sekula ez dut ikusi berarena bezalako begirada aldakorragorik. Bost bat segundotan sentimenduz gainezka dagoen begirada malkotsu hunkigarrienetik odola ere jelatuko lukeen begiradarik hotz eta gupidagabeenera pasa zitekeen. Eta agian konturatzerako beranduegi ere zitekeen. Lidiak arriskuak ematen duen plazer amultsua eskaintzen zion ausartzen zenari.

Azkenik Paolo zegoen. Paolo putetxeko txuloa zen, itxuraz bederen. Egundoko lepo-jira zuen eta besoak, berriz, nireak bi halako ziren. Paolok, hala ere, ez zion kakalardo bati ere minik

egingo. Inoiz ikusi dudan ogi-puskarik xamurrena zen gure *txuloa.* Familia bitxia osatzen zuten inondik ere.

Egunak pasa ziren, aste bat edo beste ere bai.

Nik albait gehien laguntzen nien lanean. Bai tabernan gauez bezero lerdetsuei alkohola salduz, bai gelak txukunduz, bai Paoloren lana eginez... Laster ohitu nintzen bizimodu berrira. Nesken faboreak ez zitzaizkidan falta; ezta nire kezkak ahantzarazten zizkidan *hauts magikoak* ere. Bolada zoriontsua izan zen. Telefonoaren deiadarrak egunsenti eder hura urratu zuen arte. Xaho-Xahorekin nengoen txortan. Bere lana bukatuta, oin-puntetan nire gelara sartu eta whiskyak eztarria laztantzen duen leuntasun berberaz ohean irristatu zitzaidan. Bigarren txorta saioa zen goiz-goizeko hura telefono zerriak jo zuenean. Mesanotxean sartuta zegoen, kondoiak gordetzen nituen tiraderan hain justu ere. Xaho-Xaho nire gainean zegoen orgasmoa dastatzear eta ni dezente lehenagotik hasia nintzen beste kontu arruntagoetan pentsatzen jo eta derrepente korrituko ez banintzen. Entzungor egin nuen

baina alferrik, Xaho-Xahok berehala galdu zuen kontzentrazioa eta nire gainean amildu zen indarge, gure orgasmoa zulatu eta di-da batean despuztu izan balitz bezalaxe.

Telefonoa hartu eta harrika bota behar nuen unean, Juliaren telefono zenbakia irakurri nuen pantailan.

–3–

Hitzordua La Arboledan paratu nuen. Lekua nahiko aproposa zen egoera kontrolatzeko. Balizko jarraipenei buruz ari naiz, jakina. Mantxolak pentsatuko zuen Julia lokarri ederra zitekeela amuari eransteko eta ez nuen batere gogorik komisario jaunaren trofeoen artean nire burua eskaintzeko. Lekuak bazuen kutsu erromantikoa. Paraje haiek ez zitzaizkidan guztiz ezezagunak; gaztetan inoiz joan nintzen kotxez leku hartara neskaren batekin larrua jotzera. Horretarako ere leku aproposa baitzen! Zelai ederrak, mendixka ugari, nonahi gordeleku ederrak... Burdin meatzeak ere han zeuden, mendixka haiek alderik alde zulatuz.

Esandako ordua aspaldi pasea zen eta ni gero eta urduriago nengoen. Juliaren kotxea azkenean nire aurretik igaro zen. Mantso eta zalantzaz zihoan bide meharretik zehar, ni noiz azalduko esperoan. Korrika txikian joan nintzaion atzetik parera jarri nintzen arte. Kotxeko atea zabaldu eta Juliaren ondora sartu nintzen. Atzera

begiratu nuen: bidea garbi zegoen. Musu eman nion, ez nuen erantzunik jaso. Ez hitzik ezta zirkinik ere. Puska batez isilik joan ginen; gero, kamioaren ezkerraldetik ateratzen zen bidezidor bat seinalatu nion eta mendixka baterantz desbideratu ginen.

Juliak eguzkitako antiojo beltzak jantzita zeuzkan, nahiz eta zerua erabat lainotuta egon. Une batez bideko zuloek eragiten zioten bularikarari erreparatu nion lizunki. Hanka-tartean kilikadura atsegina sentitu nuen.

Automobila muinoaren atzealdean gorde genuen. Oinez meatze-zulo baten atariraino iritsi eta zigarroa piztu genuen. Haize bolada batek ilea dantzarazi zion Juliari, nahastuz, korapilatuz, laztan eske oihuka ipiniz.

Juliak emeki eta astun hitz egin zuen.

– Zer gertatu zen Jokinekin?

Jokini (eta bide batez neuri ere) gertatutakoa kontatu nion.

Betaurrekoak erantzi eta niri begira geratu zen; atzeko meatze-zuloa baino beltzago zeuden begiez begiratu zidan.

– Steve, Louis, Jokin... Eta orain Pabloren kontu hau. Agian nire temaren ondorioak dira guztiak. Agian neu ere erruduna naiz, hiltzailea bezain erruduna.

– Pablorena?

– Bahitu egin dute!

Lurrean eseri eta begiak itxi nituen. Putetxeko egunak nituen gogoan. Nola, lehendabiziko aldiz akaso, zoriona bete-betean dastatu nuen. Hurrena, errealitatea gorrotatu nuen inork gorrota ezin zezakeen modura eta, beste behin ere, nire burua madarikatu nuen eskarmenturik ezin nuelako hartu.

– Atzo telefonoz deitu zidan, nirekin hitz egin behar zuela esanez. Ez zen inor azaldu. Etxera iritsi nintzenean mezua nuen erantzungailuan: Pablo bahituta zegoen eta Amaiaren formula eskatzen zuten trukean.

– Hortaz, Amaiaren formula zatia faltsua zela konturatu dira. Gure hiltzaile jauna asko arriskatu da oraingoan. Bai, hauxe da hura harrapatzeko aukera bikaina!

– Uste dut xehetasun ttiki bat ahaztu zaizula: Pabloren bizia arriskutan dago.

Egia esan ahaztu samartuta neukan, bai.

– Tentuz ibiliz gero...

– Heriotza gehiegi izan da orain arte eta zentzuz jokatzeko garaia iritsia da.

Esandako hitz bakoitzak etsipen zertzelada nabaria zuen bere baitan. Horrenbestez, hartutako erabakiak ez ninduen ustekabean harrapatu.

– Amaiaren egiazko formula emango diogu eta kito. Amaiari, Pablori eta zeuri eskuzabalki ordainduko dizuet eta istorio malapartatu hau behingoz bertan behera utziko dugu. Ziur naiz aitak, dagoen tokian dagoela, ulertu egingo duela.

Diskurtso polita bota zuen, film amerikarretan bezalaxe kasik. Hitz hauek judizio batean bota izanez gero, epai-mahaikoak honezkero malkoz urtzen egongo ziren.

– Noiz eman behar diot formula kabroi horri? –galdetu nion bestela bezala.

Nik lurrean eserita jarraitzen nuen. Bera nire begien parera makurtu eta hatz erakusleaz sorbaldan kalkatu zidan. Nik begiak ilargi erdiko lepoko oszilakorraren atzean azaleratu nahian ari

ziren bular eder haietan tinkatu nituen, disimulu handirik gabe.

– Ez, Markos. Oraingo honetan niri dagokit kontu honekin betirako bukatzea. Neu joango naiz eta bakarrik, argi hitz egin al dut?

– Badakizu oso arriskutsua litekeela eta...

Ez nuen esaldia bukatu, garaiz konturatu bainintzen txorakeria esan behar nuela. Juliak erabakia hartuta zeukan eta gainontzeko guztia soberan zegoen. Kotxean sartu ginen berriz ere. Bere begirada hotz horrek dena kontrolpean zuela adierazten zuen eta, egia esan, horrek beldur pittin bat ematen zidan.

– Nora goaz?

– Getxon badut etxe bat. Bertan seguru egongo zara. Bihar arratsaldean patrikako telefonora deituko omen didate bahitzaileek jarraibideak emateko. Horrek esan nahi du denboraz justu samar gabiltzala. Bihar goizean Amaiari formula eskatu eta arratsaldean bahitzaileari emango diot. Zu, bitartean, etxean geratuko zara geldi asko, entzun? Dena behar bezala ateratzen bada, pentsatuko dugu gero nola zure egoera argitu Mantxolaren aurrean.

Etxea Getxoko erdian zegoen eta bertan luxua nabarmena zen. Lasaitasunez jokatzen ahalegindu ginen, baina urduritasuna airean zegoen. Pizza enkargatu eta intrigazko film zaharra ikusi genuen telebistan. Ez genuen elkarrekin asko hitz egin. Ondoren, ohera joan eta txortan egin genuen. Juliaren gorputza guztiz zurrunduta zegoen, eta neurea ere bai ziur asko. Ez genuen asko gozatu baina nerbioak, neurri batean bederen, lasaitu egin genituen.

Hurrengo goizean esnatu nintzenean bakarrik nengoen ohean.

Nagiz jaiki nintzen. Julia dutxan zegoen. Ni sukaldera joan nintzen, kafe bat berotzen jarri eta zigarroa piztu nuen Julia noiz aterako zain. Atera zenean, xukadera batean bilduta zegoen. Ni ikusita irribarre bat saiatu zuen eta logelara joan zen janztera. Une hartan agian hitz gozoren bat xuxurlatu behar nion belarri ertzera; edo, zergatik ez, grinaz besarkatu, musukatu... Egun hartan neska hark bizia arriskuan jarriko zuen eta ni hantxe nengoen, berari begira mozolo bat bezala, zer egin edo zer esan ez nekiela. Hogeita batgarren mendeko heroia neu! Egoerak era-

bat alde egin zidan eskuetatik eta neska horren gorputzak nire pentsamena sorgorturik zeukan. Itzela!

Gona estu eta brusa eskoteduna jantzita atera zen logelatik. Nire ondoan jarri zenean, *Neska ederra eta basapiztia* filmaren pasarte batean murgildurik sentitu nintzen.

– Amaiaren helbidea emango?

Eman egin nion.

Ordainez musu eman eta takoi hotsez urrundu zen.

– Eguerdirako hemen egongo naiz. Lasai egon, laztana.

–4–

Ordu biak paseak ziren Julia etorri zenean.

– Dena ondo? –galdetu nion.

Buru-makurtze bat egin eta egongelara joan zen. Ez zuen hitz egiteko gogorik eta nik ulertu egin nuen. Ez genuen mokadurik ere jan. Patrikako telefonoa egongelako mahaiaren gainean zegoen eta berari begira jarri ginen isilik, kafea edanez eta zigarroak errez etengabe.

Telefonoak jo zuen!

Juliak ziurtasunez hartu eta zerbait idatzi zuen paper batean. Ez zuen hitzik esan. Komunikazioa eten zutenean, libretatik idatzitako papera moztu, tolestu eta poltsan sartu zuen.

Nik ez nion deus ere galdetu.

Erlojuari begiratu zion eta irteteko prestatu zen. Nik egongelako besaulkian jarraitzen nuen, amilduta. Ezin nuen ganorazko ezer pentsatu; gorputza astun, puztu eta sorgor sentitzen nuen. Gero, neska niregana inguratu eta musu luzea eman zidan.

– Utzidazu...

Juliak ezezkoa egin zuen buruarekin eta atera egin zen. Agian bukaera gertu zegoen. Kasuaren bukaera eta baita neure bukaera ere. Okerrago ezin nezakeen joka, dena gaizki egin nuen. Kasua argitu beharrean gehiago kakaztu nuen eta amore emateak eman ohi duen mina bizi-bizi sentitzen nuen nire erraien tolesturaren batean.

Denbora geldoegi pasatzen zen. Juliari ezer gertatuz gero ez nion sekula nire buruari barkatuko. Bahitzaileak lehenago ere erakutsi zuen ez zuela inongo kezkarik inor garbitzeko. Eta ni hortxe nengoen, nire kakatan murgilduta arranguraz eta damuz, Juliak bere burua arriskuan jartzen zuen bitartean.

Besaulkitik altxa eta ibiltzen hasi nintzen etxean zehar. Nire aurpegiari ispiluan begiratu eta nire burua are gehiago gorrotatzea lortu nuen. Hormaren kontra ere buruz jo nuen; odola isuri arte jo ere. Alferrik.

Edari biziren bat bilatzeari ekin nion. Uste baino errazago aurkitu nuen: ginebra. Botilatik bertatik trago luzea jo eta esperoan gelditu nintzen. Berehala ziztada jo zidan, bortitza, jasan-

gaitza, urdaila alderik alde urratu izan balit bezalakoxea.

Komunera joateko premia sentitu nuen.

Komun-ontzian eseri eta indar egiterakoan nire barnean zerbait hausten zeneko sentsazioa sumatu nuen. Nire susmoa egiazkoa zen: komuna odolez arrunt zikinduta zegoen. Minaren minez aurreraka makurtu nintzen. Zerbait zegoen lurrean, komuneko bazter batean. Arrastaka inguratu eta Juliaren azpiko arropa zela ikusi nuen. Bart dutxatutakoan bertan utzitako azpiko arropa. Nire eskuetan hartu eta sakon usaindu nuen. Juliaren usaina barne-barneraino sartu zitzaidan mina nabarmen arinduz; bigarren usainaldian plazerezko sentsazioa nireganatu nuen. Hirugarren usainketari heldu behar nionean, ustekabean, zerbait erori zen arropetatik lurrera. Ilargi erdiko lepokoa zen. Eskuan hartu eta begiratu egin nion, erditik puskatuta zirudien. Arretaz aztertu eta lepokoa ontzi txikia zela ohartu nintzen; erortzerakoan, ustekabez, itxigailua jo eta zabaldu egin zen. Zerbait bazegoen barruan... papera, ondo tolestatutako paper bat. Une hartan hain zen handia nire jakingura ezen

urdaileko mina guztiz ahaztu zitzaidan. Papera zabaldu eta irakurri egin nuen.

Ezin nuen sinetsi begi aurrean nuena!

Zerbait egin beharra neukan. Julia nola edo hala aurkitu behar nuen, baina non? Hitzik ere ez zidan esan bahitzaileak aukeratutako lekuaz. Kaka zaharra! Egongelara joan nintzen; agian, artean ere bazen aukera txiki bat. Juliak erabili zuen koadernoa hartu eta arrastoren bat bilatzeari ekin nion. Hizki batzuk markatuta agertzen ziren SAR edo antzeko zerbait. Ez zitzaidan ezertxo ere bururatzen... Bilbo inguruan erreskatea uzteko leku aproposik... Aparte egon behar zuen, noski, aldirietan edo. Eta zergatik ez jende asko zegoen toki batean? SAR horrek metroko sarreraren bat adieraz zezakeen akaso. Supituki hitz bat etorri zitzaidan gogora: zuhurtzia. Zuhurtzia behar zuen gure lagunak dena kontrolpean edukitzeko. Ez zuen orain, azken unean, arriskurik hartuko. Jende gutxi zebilen lekua behar zuen, mendi aldean akaso. SAR... PAGASARRI mendia! Aukera bat zen, beste hainbaten artean aukera bat, besterik ez; baina zirt edo zart egin beharra nuen.

Itsumustuka eskailerak jaitsi eta kalera irten nintzen. Nire aurrean semaforoa zegoen eta gominaz zurrundutako ilea zuen intelektual itxurako gazte bat kotxearen barruan, semaforoan geratuta. Korrika hurbildu nintzaion eta automatikoa kokospean ezarri.

– Hire kotxea behar diat, mugi hadi!

Gazteak eskuak altxatu zituen eta horrela atera zen kotxetik. Bikote bat begira gelditu zen aurreko espaloitik. Kotxean sartu eta azeleragailuari gogotik sakatu nion. Beste aldetik zetorren kotxe batek kolpetik geratu behar izan zuen, lurrean gurpil-azalek arrasto nabarmena utziz. Okerrena zen kotxe zerri hura nire aurrean trabeska gelditua zela, niri pasabidea galaraziz! Berehala, kotxe hartako gidaria atera zen; eskuan giltza ingelesa zuela amorruz zetorren niregana. Berriz ere azeleragailuari sakatu eta kotxeari sekulako kolpea eman nion trabatik kenduz. Gidaria orain lurrean zegoen; hala ere astia izan zuen, jaiki eta giltza ingelesa nire kotxearen atzeko kristalaren kontra jaurtitzeko, txiki-txiki eginda utziz. Kabroia!

Kale estu batetik sartu eta urrundu egin nintzen. Konturatu orduko Bilboko trafiko erogarrian murgildurik nengoen. Halako batean, Pagasarrira iritsi nintzen.

Banekien oso zaila izango zela Julia Pagasarri bezalako mendi zabal batean aurkitzea, baina horixe zen nire aukera bakarra. Jendeak harriduraz begiratzen zidan; izan ere, atzeko kristala puskatua edukitzeaz gain, aurrealdean egundoko zartakoa nuen. Gainera, horren ondorioz kolpe-leungailua okertuta eta erdi arrastaka neraman, zuloz jositako bide hartan behin eta berriz lurraren kontra jo eta dezenteko zarata egiten zuelarik. Banekien denbora kontra nuela baina aurrera egin behar nuen. Nola edo hala Juliaren automobila aurkitu behar nuen, hori ezinbestekoa baitzen halabeharrari potroetatik helduko banion behintzat. Nire aurretik jubilatu taldea ikusi nuen. Aldapatik behera zetozen, korrika ttikian, ezinean kasik. Oso txandal nabarmenak jantzita zeuzkaten, berri-berriak eta kolore bizikoak. Bolantea kolpetik jiratu eta, kamioaren alde batetik bestera lerratuz, beren aurrean geratu nintzen Juliaren kotxeaz galdetzeko asmoz.

Une batez, izua ikusi ahal izan nuen zahar koitadu haien aurpegietan. Gero, lasterkari profesionalak bailiran jarraitu zuten ziztu bizian beheraka. Izan ere, *muturje* beldurgarria eduki behar nuen.

Gorantz jarraitu nuen. Itsu-itsuan nindoan. Aurretik zetozkidan kotxeek doi-doi saihesten ninduten eta baten batek bazterra ere jo zuen. Errebuelta pare bat pasa eta zabalgune batera iritsi nintzen. Bertan, ezker aldean, zerbait ikustea iruditu zitzaidan pinudi batera zihoan kamio estu baten bazterrean. Kotxe gorri bat. Juliarena bezalako kotxe gorri bat. Galga beheraino zapaldu eta automobiletik jaitsita oinez abiatu nintzen pinudira.

Juliaren kotxea zen! Behingoagatik bete-betean asmatu nuen. Pistola atera eta basora inguratu nintzen tentuz. Ez zen ezer entzuten. Kirioak airean nengoen, ez bainekien Juliak norantz jo zuen basoan barrena. Metro gutxi batzuk egin nituen lehen tiro hotsa entzun nuenean. Ni nengoen tokitik gertu izan zen, pendiz baten ostean. Itsumustuka abiatu nintzen, aldatsa igo eta ingurura begiratu nuen.

Han behean zeuden, ezponda batean, niregandik ehun bat metrora. Arrapaladan jaitsi eta pistolari irmo helduz inguratu nintzen. Bihotz taupadak buruan sentitzen nituen, mailukadek baino gogorrago burua jo eta jo batere gupidarik gabe. Arnasari buelta emateko ere nahikoa lan banuen eta bareak sabelaldea guztiz harturik zeukan.

Haiengana iritsi nintzenean, Pablo lurrean zetzan, sorbalda zaurituta zeukan eta odola borborka zerion. Eta nire aurrean, pistola bi eskuez eutsita eta Pablo apuntatuz gure neska pinpirina zegoen, beste behin ere tiro egiteko prest.

Nik amorruz oihu egin nion.

– Ez, Julia, geldi!!!

Handik aurrerakoak di-da batean gertatu ziren.

Juliak niregana jiratu zuen burua pistola bere horretan edukiz. Ez ziren bi segundo baino gehiago izan. Nahikoa, ordea, Pablok inguruan zuen pistola hartu eta, Juliak berriz aurrera begiratzerako, kopeta tiro batez zulatzeko.

Julia elur-maluta bezain leun jausi zen, zerraldo. Nik, amorrazioz, hortzak estutu eta tiro egin

nion Pablori, tiro eta tiro kargadore osoa hustu arte.

Gero, Juliaren gorpua besoetan hartu eta leku malapartatu hartatik urrundu egin nintzen. Irribarre antzean zegoen, lasaitasun ederrean. Odol xirripa xume-xumea lerratzen zitzaion kopetako zulotik behera, herio bere epai latza sinatzeko beldur izan balitz bezala.

–5–

Julia andereñoa:

Guk elkar ezagutzen ez dugun arren, nire lagun handia izan zen Andres Montillaren bidez izan dut zure aditzea. Lehenengo eta behin, zure aitaren heriotzaren berri tamalgarria eman beharrean nagokizu. Kabulen nengoela, gizon mendebaldar bat ospitale batean sartu zutelako xurrumurrua entzun eta, zenbait ospitaletan bilatu ostean, nire lagun aspaldikoa eta zure aita zena aurkitu nuen hilzorian zegoela.

Medikuek ziurtatu zutenez egunbete ez zuen egingo eta, bere agoniak iraun zuen ordu pare eskasa nahikoa izan zen bere ahotik eta zuri zuzendutako zenbait azalpen jasotzeko; gero, berak emandako helbidean zuri bidaltzeko erregutu zidan. Handik gutxira, nire besoetan eman zuen azken hatsa.

Agindutakoa zor izaten denez, eta orduko egoeraren larritasuna nagusi izan arren, ahaleginduko naiz berak adierazitakoa ahalik eta zehazkien islatzen.

Nire Julia maitea:

Azken gutunean esan nizun bezala, egundoko aurkikuntza egin genuen eta, berorren garrantzi itzela zela eta, ahalegin berezia egin nuen gaizkileen eskuetara eror ez zedin. Ondo alferrik ondikotz! Gaur goizean, tadjikak lapurreta egiteko asmoz gure kanpamentura zetozela jakin dut. Ez dakit nork jarriko zituen jakinaren gainean; alabaina ziur nago informazio hori guretako norbaitek zabaldu duela. Lapurreta nola edo hala ekidin beharrean, ihesa antolatzeari ekin diot. Formularen helmuga egokia ezinbesteko baldintza zenez, ziurtasun neurri bezala formula sei zatitan partitu eta bana hartu dugu. Ondo pentsatutako erabakia izan da berau; horrenbestez, hobetsi dut behar ez zen eskuetara jausi ez izana, osorik iristea baino. Ihesari dagokionez, bi taldetan hanka egingo genuen: jeep batean Steve, Amaia eta Louis; bestean gainontzekoak, hots, Pablo, Jokin eta hirurok.

Azken minutuak aprobetxatu ditut Alexandro Handiaren aztiaren hilobiari azken bistadizoa botatzeko. Horretan ari nintzelarik, urrats batzuk entzun eta, konturatzerako, bi gizon gainean ni-

tuen: Pablo eta Jokin. Haiek eraso egin eta formula zatia kendu didate; segidan, hiltzat eman ondoren alde egin dute korrika. Tadjikak iritsi direnean, haiek ere hiltzat jo eta besteen atzetik abiatu dira amorru biziz. Ziur aski ez dute ihes egiterik lortuko. Nire azken hitz hauek ere ez dakit inoiz iritsiko ote diren zure eskuetara. Dena dela, jakizu, onik irteten badira zuregana joango direla; hauxe izan zen nire azken erabakia, agian egokiena. Formula osorik iritsiko balitz, zure esku geldituko litzateke kontu hau onbideratzea eta justizia egitea. Badakit lantegi zaila paratu dizudana, baina jakin ere badakit, zu tartean zaudela, gaizkileek ez dutela sekula beren asmorik burutuko. Gauza bakarra eskatzen diot Jainkoari: nire izenaz eta izanaz gogoratzean, jendeak kontuan har dezan gizon umil baina, ororen gain, bakezale batetaz ari direla. Zure esku dago.

Egun handira arte, ene bihotza.

Nire aldetik, zernahitarako adiskide bat duzula esatea baino ez zait gelditzen. Har itzazu nire doluminak. Besarkada handi bat:

Boris Nekrasov

–6–

Xaho-Xahok Juliaren lepokoan zegoen eskutitza irakurtzen bukatu zuenean, begiak malkotan zituen. Zinez hunkiturik zegoen. Xaho-Xaho hunkiturik zegoenetan are erakargarriago bihurtzen zen. Ohean geunden eta ordurako ordubete edo pasea zen lehenengo txortaldia bukatu genuenetik. Behin bukatuta zerbait kontatzeko erregutu zidan. Larrua jo ondorengo hitz parrastada horiek ez ditut oso gustuko. Loreen kasua kontatzeari ekin nion beste deus interesgarriagorik ez nuelako kontatzeko. Orain berriz ere suspertu samartuta nengoen, erasorako pronto.

– Ea ba ondo ulertu dudan –bota zidan begiak kixkurtuz, hausnarrean bezala edo–. Steveren hilketa Louisek egin zian.

Nik baiezkoa egin nion buruaz. Xaho-Xaho agonduta zegoen ohean, bizkarra burkoaren kontra bermaturik. Bere bular txiki perfektuek neskaren arnasa aztoratua airoski itxuratzen zuten airean. Nik kilimak sentitu nituen sabelpean.

– Louis koitaduaren mendekua izan zunan, bai. Pablo beranduago handik kasualitatez-edo pasa eta gertatutakoaz ohartu zunan. Ez zinan, ordea, denborarik galdu. Steveren gela hankaz gora jarri zinan formula zatia aurkitu arte. Horregatik Steveren gelatik entzundako zarata zela eta, orduari zegokionez kontraesanak zeudenan.

– Eta Louisek zergatik jarri zuen hitzordua Jokinekin bere buruaz beste egin behar bazuen?

Zigarroa piztu nuen. Ez nuen hitz egiteko gogorik. Xaho-Xaho interesaturik ez ezik, kasuan erabat sartuta zirudien. Ordurako, kasuaz hitz egin izanaz guztiz damututa nengoen.

– Hitzordu haren azken arrazoia ez dinagu sekula jakingo, Louisek berarekin eraman baitzuen. Agian dena kontatu nahi zionan Jokini... zera, berak egindakoa, badakin, barrena lasaitu, zama arindu... Baina baliteken Jokinez inolako susmorik izatea. Akaso, bere burmuina zeharkatu zion bala Jokinentzat gordea zinan. Kontua dun azkenean barneko harrak gainezka egin ziola eta amore eman zinan; ahulegia zunan egindakoari aurre egin ahal izateko. Argi dagoena da, Jokinek Louisen hilotza topatu zuenean,

laguntza bila joan beharrean bertan gelditu zela tarte batez. Horregatik harrapatu zinan Poliziak inguruan.

– Zergatik egin zuen hori?

– Poltsikoak miatu behar baitzizkion Louisi, noski.

– Hilotzik zegoela *lorea* kendu zioan! Putakume nazkagarria!

Artean eskuetan zuen eskutitza amorruz astindu zuen. Masailak gorrituta zeuzkan eta bekozkoak are gehiago urrarazten zizkion jaiotzear zeuden eguzkiak ziren bi begi sentsual haiek. Nik atxiki luzea egin nion zigarroari beste eskuaz zakila haztatzen nuen bitartean. Kristo, lehertzeko zorian zegoen!

– Baina Pablo eta Jokin hain ziren desberdinak... Zerk bultzatu ote zituen horretara?

Nik sorbaldak altxatu nituen axolagabeki. Hitz egitea kostatu egiten zitzaidan. Beroegi nengoen pentsatzen hasteko, arrazoi sakonak emateko edo, besterik gabe, itxura egiteko.

– Pablok dirua nahi zinan, noski. Dirua eta boterea gustuko zitinan. Agian aktore bezala dirutza ederra irabaz zezakenan, hori ederki frogatu

zigunan guztioi. Baina berak diru erraza maite zinan. Jokinen kasua guztiz desberdina zunan, noski. Jokinek ospea eta sona bilatzen baitzituen. Ziur zegonan zorioneko formula hark medikuntza goitik behera irauliko zuela eta berarentzat horixe zunan garrantzitsuena. Edozein gauza emango zinan bere izena entziklopedia potoloetan agertzeagatik. Bere handinahia garesti ordaindu zinan ordea.

– Hortaz, Juliak akabatu zian Jokin.

Xaho-Xahorentzat kasua telesail amaigabe eta grinatsu haietako baten antzekoa zen. Ziur asko, haiei begira pasako zituen orduak eta orduak arratsaldero lanera sartu aurretik. Neuk, ordea, oraindik orbanak neuzkan gorputzean eta, batez ere, bihotzean.

– Haren mendekuaren hasiera izan zunan. Erraza izango zitzaionan mediku zaharra garbitzea; hala ere bazekinan Pablorekikoak egiteko azkar ibili beharra zuela.

Ohetik jaiki eta zigarrokina leihoko lorontzi batean itzali nuen. Zakila artean ere nabarmen samar egon arren, neskak ez zion begiratu ere egin. Zain zegoen. Kulebroiaren bukaera jakiteko

irrikan zegoen. Agian hori baino ez zen izan dena: *tele-zabor* saio merke eta nazkagarria.

– Julia ez zegoan Pablorekin maiteminduta, beraz.

Pena kutsu batekin bota zuen baieztapena. Argi zegoen maitasunezko bukaera nahiago izango zuela gure neska motxak, nahiz eta erre-matea tragedia izan.

– Juliaren maitasun jolasak guztiz interesa-tuak izan zitunan, potxola.

– Baita hirekikoak ere?

Whisky botila bilatu nuen mesanotxe azpian. Aurkitu eta trago luzea jo nion. Ez nuen eran-tzun.

– Juliak Pablo soka motzean lotu behar zinan derrigorrez, azken sastada eman artean.

– Gauza bat ez diat batere argi: hasierako ti-roketako gaizkile haiek, nork kontratatu zituen?

– Hura ere Pabloren lana izan zunan. Bi hel-buru zitunan nagusiki: alde batetik ni beldurra-raztea eta bestetik kasua nahastea; baita ere, bide batez, bera ere han zegoenez, edozein erru susmorik berarengandik uxatzea. Beste hainbes-te esan liteken berak jasandako ustezko miake-

ta eta jarraipenaz ere: bere burua zuritzeko asmatutako gezurrak, noski. Bestalde, askotan zaila gertatzen dun pertsona baten sentimenduak aho betean hitz egitea; tartean ñabardura eta tolestura gehiegi izaten baitira. Baliteken Pablo egiatan Juliarekin maiteminduta egotea; baina Juliak, noski, ez zinan lekurik Pabloren planetan. Barrena eduki behar zinan, gero, aita akabatu ondoren alabarekin amodio-jolasetan ibiltzeko. Honek ezinegon ikaragarria sorraraziko zionan gure mutilari eta, ziur asko, honek ere badu zerikusirik Pablok autopistan bere buruaz beste egiteko burutu zuen ahaleginarekin. Baina, nahiago badun, pentsa dezaken azken hau Pabloren beste antzezpen bat gehiago izan zela, eta bihotzik izan ezean ezin sentimendurik gorde bertan. Aukera heurea dun.

– Eta bahiketaren kontu hura?

Komunera joan nintzen. Atera nintzenerako nire zintzilikarioa erabat piltzartuta zegoen. Orduan bukaera nahita luzatzea erabaki nuen. Xaho-Xaho ezinegonaren puntuan ipini nahi nuen, sufriarazi... Nire mendeku partikularra izango zen.

– Pablo sei loreen jabe zelakoan zegoenez, edozein unetan desagertuko zunan. Hori, noski, ederki asko zekinan Juliak. Bide bakarra zinan bere eskueratik betiko alde egingo ez bazion: sei loreetatik bat, Amaiarena hain justu ere, faltsua zela jakinaraztea.

– Baina sei loreak eskuratuta al zeuzkan ordurako?

– Jakina. Kontua erraza dun: bere lorea eta Jokinena, Xaharrari hil ondoren ostutakoa eta gero Juliari emango ziotena, Steverena, Amaiarena (faltsua berau) eta Louis hilotzik zegoela Jokinek kendutakoa.

– Hortaz, Pabloren bahiketarena...

– Berak formularen azken atala osatzeko asmatutako jukutria. Dudarik gabe asko harrituko zunan norbaitek formula faltsua zela jakinarazi izana. Baina ezin zinan besterik egin, horixe baitzen bere azken aukera. Juliari eman zionan, noski, bahiketaren berri, berarengan uste osoa zeukan eta.

– Eta Juliak bere plana burutzeko aukera paregabea izan zian: Pablo eta bera aurrez aurre bakartegi batean. Hura bai neska burutsua!

– Eta ederra, bai...

Barren-barrenetik atera zitzaidan; urdailean, aspaldiko partez, sastada lazgarria sentitzeaz bat kasik.

Ohera itzuli nintzen.

– Horregatik ez zian nahi ni hara joaterik: bere jokoa baitzen. Berak antolatu eta berak amaitu beharrekoa.

– Eta zer gertatu zen ditxosozko formularekin?

Beste trago bat hartu nuen. Beste sastada bat. Orratzez zeharkatutako tximeleta sentitu nintzen.

– Botika gisa merkaturatu zitenan. Hala ere, osasunerako kaltegarri omen ziren ondorioak eragin zitzakeela eta, laster kendu zitenan merkatutik.

– Arma modura ez ahal dute erabiliko behintzat...

– Hasiera batean horren beldur ziren agintariak. Neurri bereziak ere hartu omen zitiztenan; baina horretan ere ustea ustel gertatu eta, nik dakidala behintzat, inor ere ez zunan saiatu for-

mula lapurtzen. Ez baitzen... Nola esango nuke? Behar bezain eraginkorra.

– Ulertzen diat. Gaur egun jo eta kristoren txikizioa eragin ezean hutsaren parekoa duk.

– Gainera erabat eraginkorra izateko faktore jakin batzuk bazeuden tartean: haizea, haizearen norabidea, eguraldia... Baldintza gehiegi itsumena baino sorrarazten ez duen arma batentzat.

– Hortaz, gertatutako guztia alferrik izan zen?

Ez nuen berehalakoan erantzun.

– Ez, agian den-dena ez zunan alferrikakoa izan.

Hau esanik, mesanotxeko argia itzali eta maindireen azpian galdu ginen.